

Zu hemen zaude.

golena

e28



UR JOLASEKIN GOZATU DUTE UMEEK UDALEKUETAKO LEHEN EGUNETAN

Debagoiengan bi mila umek gozatu dute opor garaiko aisialdi eskaintzarekin / 2

Bergarako udalekuetako umeak Labegarrietako ur-txorrotetan.

XABIER URTZELAI ATXA

LGTBI Komunitatearen Nazioarteko Egunean, elkarretaratzeak Arrasaten eta Aretxabaletan / 12 eta 16

Maria Ubarretxenak asteon hartu du Eusko Jaurlaritzako bozeramaile kargua / 1

Artea lantzearen garrantziaz aritu dira EAEko eskola txikietako irakasleak Aramaion / 15

250 korrikalari baino gehiago domekan Oñatin jokatzekoa den 25. Torreazoko krosean / 30

SINADURAK

 IÑAKI UGARTEBURU / 6	 ALEX ARTEAGA / 20
 RAMON UGALDE / 12	 IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA / 24
 PALOMA MARTINEZ PEREZ / 17	 XABIER IGARTUA / 29
	 ANDER ETXEBERRIA / 40



Lourdes Herrasti osteoarkelogoari elkarriketa

Gazte taldeen arteko lehia eta dibertsioa

Audi Q4

Disfrutatu teknologiaz!



Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70

Udalaitz

2.051 haur uda giroaz gozatzen

Asteon hasi dituzte udalekuak bailarako zenbait herritan; beste zenbaitetan, berriz, uztaillaren iritsierarekin batera hasiko dira. Debagoieneko herri guztietako haurrek izango dute udalekuez gozatzeko aukera, eta 2.000 haurretik gora arituko dira



Bergarako udalekuetako haurrak Labegaraietako ur-txorrotetan. XABIER URZELAI



Haurrak Labegaraietako ur-txorrotetan jolasten. XABIER URZELAI

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA Uda iritsi bezain pronto ekin diote Debagoieneko herrietako udaleku irekiek jardunari. Herri guztietan egongo da eskaintza, eta, guztira, 2.051 neska-mutiko eta 253 begirale arituko dira. Herri batzuetan hasi dira dagoeneko; beste batzuetan, berriz, datozen egunetan ekingo diote.

Eredu berarekin lanean

Udalekuetako helburu nagusietako bat da haurrek bertako ekintzekin ondo pasatzea, jende berria ezagutzea eta udalekuek irautesen duten denbora guztiaz gozatzera. Baina horren guztiaren atzean badaude zenbait balio, eta horietan oinarritzen dira bailarako herrietako koordinatzaileak uztailean zeharreko ekintza guztiak sortzeko eta haurrak hezteko moduak zehazteko. Herrietako koordinatzaileek adierazi dute bat egiten dutela aisialdi eredu eta helburu berberekin: "Udalekuen bidez haurrei gauza asko eskaini nahi dizkiegu, baina, batez ere, ondo pasatzea izango da helburua. Ume bakoitzak izan dezan askatasuna lotsa galdu eta udalekuetan

norbera izanda primeran pasatzeko. Gainera, egingo dituzten ekintzen bidez gauza berriak ikasteko aukera ere izango dute. Aisialdi ereduari dagokionez, batez ere euskara bultzatuko duten udalekuak izango dira, baina, horrez gain, berdintasuna, ingurunearen zaintza, talde izaera eta besteekiko errespetua ere landuko ditugu. Hau guztia aurrera eraman ahal izateko, begiraleok askotariko ekintzak prestatu ditugu eta horietan haurrek gauza berriak probatzeko aukera ere izango dute".

Bestelako udalekuak

Udaleku irekiez gain, bailarako hainbat herritan ere antolatu dituzte bestelako udalekuak. Arrasaten, esaterako, Mondrak, Mondratek, Arrasate Eskubaloik eta Ointxek udako campusak antolatu dituzte; UDAK futbol

UDALEKU IREKIEZ GAIN, KIROL, TEKNOLOGIA ETA ARTE UDALEKUAK ERE EGONGO DIRA

campusa antolatu du eta bailarako beste herri batzuetan kirol kanpaina ere egongo da; Oñatin eta Bergaran, esaterako. Bergararekin jarraituz, udako irristaketa eta hockey campusa egongo da Labegaraietan uztaillaren 22tik 26ra –aste honetan Aramaion egin dute–, 6 eta 13 urte bitarteko gaztetxoentzat. Horrez gain, Oñatin arte udalekuak egongo dira, beste urte batez; Arrasaten, berrikuntza gisa, baso udalekuak egongo

dira uztaillaren 22tik 26ra bitartean eta Bergarako Laboratoriumen eta Miguel Altunan campus teknologikoa egingo dute uztaillaren 1etik 5era, "teknologiaren bidez sortzeko gaitasuna garatzeko; besteak beste, 3D diseinuari, 3D inprimaketari, mekanizazioari, mekanika muntaiari eta zirkuitu elektrikoei dagokien kontuetan. Gainera, erronka dinamikoan bitartez, talde-lana, pentsamendu logikoa eta arazoaren konpon-

bidea lortzeko gaitasuna garatzea" ere badute helburu campuseko antolatzaileek.

Aramaion zenbait ekintza

Aramaioko haurrek ere izango dute zertaz gozatu uztailean; izan ere, zenbait ekintza antolatu ditu Udalak, Txirritola elkartearekin batera: hondartzara bi txango, Albiñara (Araba) gaua pasatzera irteera, afari-merienda bat Ganborralden eta sukaldarien liga.

Debagoieneko udaleku irekiak

Herria	Iraupena	Ume kopurua	Adin tartea	Hezitzaile kop.
ANTZUOLA	uztaila 1-18	149	4-12	18
ARETXABALETA	uztaila 1-19	326	3-12	36
ARRASATE	uztaila 1-19	430	2-12	60
BERGARA	ekaina 24- uztaila 19	365	5-12	41
ELGETA	ekaina 24-uztaila 24	97	2-12	7
ESKORIATZA	uztaila 4-23	145	3-12	17
LEINTZ GATZAGA	uztaila 8-12	7	6-11	2
OÑATI	ekaina 24-uztaila 19	532	2-12	72

ITURRIAK: TXATXILIPURDI, JARDUN, IDOLAZ, LORATU, ELGETAKO UDALA, GUREL, ETA TXIRIKILA.

Joan den astetik udan sartuta dago Debagoiena

Konturatu orduko, uda ere heldu da ibarrera. Udaberriari erreparatuta, ohiko eguraldia egin duela diote adituek, nahiz eta azken hilabeteak euritsuak izan diren. Udari dagokionez, eguraldi aldetik ona izatea espero da. Eta Urkuluk betetze maila ona du

Gontzal Belategi Zubia DEBAGOIENA

Ekainaren 20an, erabat zehatzak izateko 22:51n, heldu zen uda Euskal Herrira, eta, horrenbestez, Debagoienara. Kanean geroz eta gehiago ikusten dira praka motz, tirante eta sandalia estiloko jantziak, nahiz eta kasu batzuetan aterkiak lagunduta joan. Udarekin batera, uda-giroko planak egiten hasi dira debagoiendarrak: herri eta auzoetako jaiak, udalekuak, oporraldiak, mendi irteerak eta abar.

Udaberriko eguraldia

Euskal Herriko klima ezagututa, planak egiteko komenigarria izaten da zein eguraldi izango den aurrez jakitea. Eguraldi iragarpenak begiratzea, edo, zuzenean, etxetik irten aurretik leihotik begiratzea ohiko fenomenoak dira Euskal Herrian. Gainera, azken hilabeteetan izan den eguraldi aldakorrek ohikoago bilakatu du kontu hori.

Ez dira gutxi izan eguraldiaz eta, bereziki, euriaz kexatu diren debagoiendarrak. Hala ere, Joxe Landa adituaren arabera, udaberria nahiko normala izan da: "Esango nuke udaberria normal joan dela. Aurten ez da aparteko ezer gertatu, dena ondo joan da". Onintze Salazar Euskalmeteko meteorologoa bat dator



Bi ume Arrasateko igerilekuan jolasten. GOIENA

Landarekin, nahiz eta beroa aipatu: "Orokorrean, udaberri klimatologikoa; martxo, apiril eta maiatzekoa beroa izan da. Batez bestekotik gora egon da, baina gradu erdi bakarrik; beraz, ez da aldaketa handirik izan".

Temperaturaren batez bestekoa ohikoa baino gradu erdi gehiagokoa izan arren, udaberriaren zehar izandako temperatura aldakorren eragina izan dela azaldu du Salazarrek: "Udaberriaren lehen zatia bai izan zen oso beroa, baina horren ostean euria eta hotza etorri dira".

Azken hilabeteetan euri asko egin arren, udaberria bera ez da horren euritsuak izan: "Jasotako kopuruek esaten digutena da udaberri nahiko normala izan dela. Kontrara, normalean baino pixka bat lehorragoa izan da. Nahiz eta azken hilabeteak euritsuak izan, udaberri osoan normalean baino euri gutxiago egin du". Arrasateko datuak aipatu ditu Salazarrek hori azaltzeko: "Arrasaten, adibidez, metro karrikatuko 269 litro pilatu dira hilabete haietan zehar".

Udarako aurreikuspenak

Salazar ez da ausartzen uda osorako aurreikuspenik egiten: "Urtaro oso iragarpenak ez dira oso fidagarriak. Guk lehen egunak zelan etorri daitezkeen aurreikusten dugu, baina uda osoa ez. Goizetan beroa egiten du eta arratsalde-gau partean ekaitzak hasten dira; batez ere, barnealdean. Asteburu honetan temperatura jaitsi egingo da 20 gradu ingurura, eta gero, berriro tenperaturak gora egingo du, baina hori esan dezakegu, gehienez".

Landa bai ausartu da udarako iragarpen egitera, eta ona izango dela dio: "Oso ondo abiatu da, bikain. Tenperaturak ondo daude, eta, ostiralean euriarekin batera pixka bat jaitziko diren arren, ez du askorik iraungo horrek. Udari, bestela, tankera ona hartzen diot, orokorrean; eguraldi eguzkitsua izango dugu".

Urkuluren betetze maila

Urkulu urtegiaren betetze maila kaxkarrak kezka eragin zuen joan den urtean. Hala ere, egungo egoera oso bestelako da Gipuzkoako Ur Kontsorzioko Debagoieneko antolaketa-buru Aitor Irizarren arabera: "Iazko egoera ikusita, 2023ko ekain bukaeran %63-64an geunden eta gaur, aldiz, %94tik gora. Alde oso nabarmena dagoela argi dago". Ur maila ona izan arren, ura zaindu egin behar dela gogorarazi du Irizarrek: "Oraingo egoera normalizat hartu dezakegu, ohikoa baino pixka bat hobea. Ur nahikoa daukagu uda eta udazken oso lehorrei aurre egiteko, inongo arazorik gabe. Hala eta guztiz ere, urtegia eta ura zaintzen jarraitu beharra dago, ur tanta bakoitza aprobetxatzeko".

Debagoiengan bainatzeko txokoak

Udako beroari aurre egiteko ohiko formula da bainatzea. Bainu-leku bila ez da kostara joateko beharrik, Debagoiengan bertan ere ugariak dira eta freskatzeko aukera bermeratzen duten espazioak. Bainu denboraldia irekita dagoen honetan, hauek dira eskualdeko bainu-lekuak:

Aramaio

- Ur-txorroten parkea
- Albina urtegia

Antzuola

- Ur-jolas parkea

Arrasate

- Musakolako igerilekua
- Uxarteko igerilekua
- Santa Barbarako ur-parkea
- Villa Amparoko ur-parkea

Bergara

- Agorrosingo kanpoko igerilekua
- Deba erreka putzuak
- Labegarrietako ur-txorrotak

Eskoriatza

- Gaztañaduiko ur-jauzia
- Umeentzako igerilekua kiroldegian

Oñati

- Usako
- Ur-uhinen parkea
- Umeentzako igerilekua kiroldegian

"Autogobernua sakondu behar da", Maria Ubarretxenaren ustez

Bozeramaile eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu sailburu berria da dagoeneko

G.B.Z. DEBAGOIENA

Arrasateko alkate izandako Maria Ubarretxena Eusko Jaurlaritzako bozeramaile eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu sailburu berria da joan den martitzena ezker.

Legealdirako lan lerroak

Ajuria Enean izan zen kargua hartzeko ekitaldia, eta Gernikako Estatutuaren ale baten gainean egin zuten zina sailburu berriek. Estatutua osorik betetzearen beharra azpima-

rratu zuen, hain justu, Ubarretxenak: "Autogobernua sakontzeko unea iritsi da, Gernikako Estatutua guztiz betetzen dela bermatuz. Bide horretan, zintzilik dauden eskumenak geureganatzeko beharra dago".

Legealdirako beste lan-lerro batzuk "governantza erdua hobetzea, herritarren parte-hartzea, administrazioaren digitalizazioa bultzatzea eta tramitazio administratiboa desburokratizatu eta sinplifikatzea" izango direla iragarri du Ubarretxenak.



Ubarretxena, kargua hartu berri, Pradales lehendakaria ondoan duela. IREKIA



Ikastolen Elkarteak Iruñeko Baluarte jauregian egindako batzarra. IKASTOLEN ELKARTEA

Ikastolek etorkizunerako erronkak finkatu dituzte

Ekainaren 22an Iruñeko Baluarte jauregian egindako Ikastolen zazpigarren batzarrean 114 ikastoletako ordezkariak batu ziren. Besteak beste, ikastola eredia eguneratzeko, egonkortzeko, zabaltzeko eta aldarrikatzeko erabakia hartu zuten

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Iruñeko Baluarte jauregiak Ikastolen Elkarteak zazpigarren batzarra hartu zuen joan den ekainaren 22an, non Euskal Herriko 114 ikastoletako ordezkariak batu ziren. 2009. urtean egin zuten azkenengo batzarra, eta, hamabost urte igarota, Arizmendi, Aranzadi eta Txanxikuko ikastoletako ordezkariak Goienari azaldu ziotenez, "beharrezko" ikusten zuten berriz elkartzea.

Lau hilabeteko prozesu baten ostean, besteak beste, ikastola eredia eguneratzea, egonkortzea, zabaltzea eta aldarrikatzea erabaki dute. "Nora goaz, Nondik gatoz eta Non gaude txostenen gaineko lanketa egitea eskatu digu Ikastolen Elkarteak azken hilabete hauetan. Gizartea aldatuz doa, eta azkar, gainera, eta oso positiboki baloratzen dugu elkartzea, hamabost urteren ostean beharrezkoa zen eta", azaldu du Itziar Aranak, Txanxikuko Ikastolako zuzendariak.

Lau hilabeteko prozesua

Prozesu horretan buru-belarri murgilduta ibili diren beste bi Leire Arana eta Amaia Arrieta izan dira, Arizmendi Ikastolako Kontseilu Errektoreko kideak. Hartutako erabakien artean daude Ikastolen Elkartearen indartzea, Euskal Herri osoko mugimendu-izaera indartzea, pertsonak erdigunean jartzea, ikastolen irismena handitzea, Hezkuntza Proiektua sendotzea, euskal kulturaren sorkuntza eta transmisioan lan-ildo berriak ezartzea eta ikastoletako hizkuntza-proiektuak eguneratzea. Izan ere, arlo edo gai batzuetan norabide aldaketa bat eman beharra dagoela uste dute. "Erakinetan hauetarako oinarri batzuk

114 IKASTOLETAKO ORDEZKARIAK BATU ZIREN IRUÑEKO BALUARTE JAUREGIKO BATZARREAN

ezarri ditugu, eta orain ulertzen dugu plan estrategikoak eta helburuak etorriko direla jarraian", adierazi du Aranak.

Prozesuak merezi izan duela gaineratu du Arrietak: "Lan gogorra egin dugu, baina iparra ondo finkatu dugu. Gainera, indarra eman digu 114 ikastolak norabide berean joan direla ikusteak".

Etorkizuneko erronkak

Batzarrean hartutako erabakiak hurrengo hamarkadara begirako erronken artean, besteak beste, ikastoletako ikasleak euskaldun kontzientek izatea dute begiz jota Ikastolen Elkartetik. "Gure haur eta gazteei euskaldun kontzientek izaten laguntzea nahiko genuke, baina badakigu pertsona ereduaren kontzeptua oso zabala dela. Era berean, komunitatearen elkarzaintza sustatzea ere nahi dugu" dio Agurtzane Loidi Aranzadi Ikastolako zuzendariak.



Goiena.eus lehen 100 domeinuetako bat izan zen. IÑIGO BARRENA

Goiena aitzindari izan zen '.eus' domeinuak hamarkada bete du

Gaur bertan da efemeridearen urteurrena; 2014ko ekainaren 28an sareratu ziren lehen 100 '.eus'-ak

I.B.K. DEBAGOIENA

2014ko apirilaren 15ean sareratu zen lehen .eus-a, domeinua berarena, eta ekainaren 28an abiatu zuen PuntuEUS fundazioak bere jarduna; izan ere, egun hartan sareratu ziren lehen 100 .eus domeinuak; tartean, Goienarena. Abendura bitartean mantendu ziren lehen 100 domeinuak eta ondoren sortu ziren beste 1.292. Hamarkada bat igaro da ordutik hona, eta etengabeko hazkunde izan du .eus domeinuak gaur egunera arte; egun, 15.000 domeinutara iristea lortu da.

Goiena aitzindari

Gaur egun milaka .eus domeinudaude, baina Goiena aitzindari izan zen hastapenetan, lehen 100 .eus domeinuen barruan egon zelako. Iban Arantzabal Goiena Komunikazio Taldeko zuzendariak aitzindari izatearen ohorea azpimarratu du: "Izan ere, .eus-ek esan nahi duen guztiaren parte da Goiena. Hasieratik izan da eta izango da. Arrazoiak da .eus-ek izateko modu bat adierazten duela, eta, Goienaren kasuan, Euskal Herriko parte izatea eta euskaraz den herri horren parte izatea adierazten du".



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

Kargu aldaketak Klusterrean

Soziolinguistika Klusterrek hainbat kargu aldaketa onartu ditu ekainean egindako batzar orokorrean. Hala, Euskaltzaleen Topaguneko ordezkari Jasone Mendizabal arrasatearrak hartu dio lekukoa 2021eko iraila ezkerro Klusterreko lehendakari izan den Mertxe Mugikari (AEK). Hausnarketa estrategikoa jarriko du martxan Klusterrek uda ostean.

"Liderrak langilearen bidelagun izan behar du"

ALEJANDRO DEL CARMEN 'COACH'-A

Garaia Parke Teknologikoan egin den BNI Euskadiren hamargarren urteurrenean, enpresa-ingurunean lidertzaren eta motibazioaren gainean duen ikuspegia azaldu du

Iñigo Barrena ARRASATE

BNI Euskadik hamarkada bat bete du eta Garaia Parke Teknologikoa aukeratu du urteurren hori ospatzeko. Debagoiengan ere bada BNI bat, Aukera izeneko, eta hamasei enpresa batzen dituen taldea da. Ekitaldiaren helburua urteurrena ospatu eta enpresen arteko harremana sustatzea izan da. Horretarako, hainbat hitzartze egon dira. Tartean izan da Alejandro del Carmen (Gasteiz, 1989); lantaldeen kudeaketan aditua da, eta enpresa-ingurunean lidertzaren eta motibazioaren garrantziaz duen ikuspegia partekatu du. GOIENA harekin izan da.



Alejandro del Carmen, kirolean eta enpresagintzan aditua den *coach*-a. A.C.

Nola kudeatzen da talde bat?

Taldean kudeaketa asko aldatu da. Lehen, taldea pertsonen batura bat bezala ikusten zen, eta, gaur egungo begiradan, taldea pertsona bakarra bezala ikustea da. Kontuan hartu behar dugu taldeko pertsona guztiak sistema horren ahotsa direla, eta, hortik abiatuta, enpresaren erabakiak taldean kudeatu behar dira.

Ze garrantzi du langileen arteko harremanak taldea kudeatzeko orduan?

Oso garrantzitsua da. Ordu gehiago igarotzen dugu lankideekin familian baino. Ez dut esaten adiskidetasunik egon behar duenik, baina bai elkarrekiko balio eta errespetu batzuk, taldeak finkatu dituen helburu beretara iristeko.

Nola hasi daiteke taldea motibatzen?

Taldearen lidergoa duen pertsonak garbi izan behar ditu helburuak. Askotan, enpresen arazorik handiena komunikazio falta edo aurrean ditugun erronkak langileei nola komunikatu izaten da.

Geroz eta indibidualagoak garen gizarte baten bizi gara; gaur egun nola lortzen da taldea motibatzea?

Hemen norbanakoari ere garrantzia eman behar zaio. Talde ikuspegia dugun bezala, pertsona bakoitza ere kontuan izan behar da, eta talde barruan erronka propioak izan behar ditu bakoitzak. Norberaren egin-kizunak zein den ondo erabakita egon behar du, haren zereginaren zein den eta taldeari zer eman ahal dion jakinda.

Lidergoa duen pertsona, askotan, nagusi gisa ikus daiteke; nola izan daiteke pertsona bat lider, nagusi paperean erori gabe?

Bereizi beharra dago. Lehen, nagusia agindu eta exijitu egiten zuena zen. Orain, liderrak langileei lagundu egin behar die. Helburu batzuk finkatu behar ditu, noski, baina bidelagun izan behar du, eta horretarako tresnak eman behar dizkie.

Ze onura ditu taldea motibatuta izateak?

Askotan, langile batzuk erreta egon daitezke egiten duten lanarekin, eta taldearen kudeaketa ona eginda hori saihestea lortu daiteke. Era berean, taldearen motibazioan eta langileen poztasun mailan ere aldaketa nabarmena izango litzateke.



Neinor HOMES

SAN ANDRES HOMES
ARRASATE

GILTZA ESKUAN

Estreinatuz zure etxea eta gozatu zure bizitza berriaz lehen egunetik







Bizikleta-aparkalekuak • Jolasguneak
Gourmet aretoa • Gimnasioa

EZOHIKOA ZURE - ZUREA

Neinor Store:
Maalako Arrabala, 33 (Arrasate)

BISITATU PISU PILOTUA

900 11 00 22 • neinorhomes.com



ZABALIK

IÑAKI UGARTEBURU

Irrikan

Uztailaren amaieran Parisera joango gara; nire bigarren Olinpiar Jokoak izango dira eta irrikan nago. Bartzelonan izan nintzen eta izugarri disfrutatzen aukera izan genuen, bai giroaz eta baita kirol ikuskizunekin ere.

1992ko Olinpiar Jokoetarako txartelak hartzerakoan bi ekitaldi eman zizkiguten aukeran, prezio onargarri batekin. Atletismoko finalen egun bat eta eskubaloiko finalerdiak aukeratu genituen. Eta aparte, aukeratu gabeko makina bat kiroletarako sarrerak tokatzen zitzaizkigun: hockeya, waterpoloa, tenisa, mahai tenisa, beisbola... Ondorio bat atera genuen: edozein kirol izanda ere, munduko onenak ikustea izugarritzko ikuskizuna da.

Parisera joatea aspaldi erabaki genuen. Duela hiru urte, hilero dirua jartzen hasi ginen eta izena eman genuen sarrerak erosi ahal izateko. Zorionekoak gara, sarrerak lortu ditugulako; izan ere, badituzte lagun batzuk gauza bera egin dutenak eta ez

dituztenak sarrerak lortu.

Prozesua nekeza bezain frustragarria izan da.

PROZESUA EZ DA GARDENA IZAN, ETA PREZIOAK ESTRATOSFERIKOAK, NEURRIZ KANPOKOAK

Atletismoa ikusi nahi genuen eta lehenengo aukera izan genuenean sarrerak 600 euro eguneko ordaindu behar ziren. Ez geunden eta ez gaude prest

hori ordaintzeko. Ondoren, duela hilabete batzuk, sarrerak erosita genituela, 300 euro inguruan erosteko aukera eman ziguten. Larregi hau ere! Saskibaloikoak merkeagoak ziren, baina oso garesti. Hori dela eta, arestian esandakoa betez, beste batzuk aukeratu genituen.

Zer ikusiko dugu Parisko Olinpiar Jokoetan? Boleibola, nesken errugbia, eskubaloia, tenisa eta waterpoloa. 100 euro inguruko sarrerak, eta ez dira finaletarako.

Disfrutatzen aukera izango dugu, bikainak direlako bertan parte hartuko duten kirolariak, eta espero dugu giroa ere bikaina izango dela, baina ez zait batere gustatu prozesua, ez da gardena izan, eta, are gutxiago, prezioak estratosferikoak izan direlako, neurritz kanpokoak.

Hala eta guztiz ere, irrikan nago.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Udara, udara

MAIDER GALARDI F. AGIRRE

'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/BX7WA](https://labur.eus/bx7wa)

Ez dakit nola heldu naizen honaino, baina Maltatik idazten ari naiz zutabe hau. Ez dakidala diot, azken ia bost urteetan blokeatuta eduki nauelako fobiak eta ez dudalako abioi bat ere hartu. Ez da ekologismoa. Arrazoia uste baino arruntagoa da: beldurtia naiz. Horren beldurtia eta urduria, ezen hiru urte egon bainintzen urrutira bidaiatu gabe, bidean edo helmugan krisi bat eduki eta kudeatu ezingo nukeelakoan. Cabo de Gata jaitsi behar nuen 2021ean,

baina Obanosen gelditu nintzen eta etxe zuriak lur koloreko fatxadengatik aldatu. 2022an ausartu nintzen lagunekin Costa Bravara joaten, baldin eta ospitale bat ondoan bazegoen. Iaz Suitzara furgonetan joan nintzen, baina X-ri eskatu nion herrietatik gertu aparkatzeko, eta aspaldiko partez aurrenekoz igo nintzen airean kateatuta geratu zitekeen teleferiko batera. Hegazkinaren aurreko azken pausoa zen. Bitarte honetan guztian inbidiaz segitu ditut lagun eta ezagunen bidaiak ahaztezinak, eta kudeatu behar izan dut frustrazioa.

Duela aste bat Maltara hegazkina hartu ala ez erabakitzen ari nintzela ikusi nuen Leire Pinedo psikologoaren txio bat, galdetuz ea benetan maite genuen urte sasoi hau, asko baitira garaioan deseroso sentitzeko arrazoiak. Aireportuan M-rekin egin nuen topo eta Pinedoren txioaz aritu ginen hizketan hegaldiaren agonia disimulatzen. Gogoratu ginen udan oporretara joan ez eta eskolara bueltan bidaiak asmatzen zituaztenez, oroitu udan etxetik urrun joan ezin daitezkeen baserriarrez. *Pueblo*-az beste ezer gutxi ezagutzen duten haiez. [...]

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEAwww.goiena.eus**Argitaratzailea**

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzardea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014**ISSN:** 2174-369X**Tirada:** 18.550 ale**Inprimategia:**

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Sanmartzialak

ANA SEBAL

LAB SINDIKATUAREN IZENEAN
BERGARA

Badatoz 2024ko sanmartzialak!

Egun eta leku berezia bergararrantzat. Denok ondo pasatzeko helburuarekin, natura zainduz eta ondokoa errespetatuz gozatu dezagun, elkarrekin eta elkarrentzat.

Aldarrikapenez josita egongo da ekainaren 30an berdegune guztia. Haur, gazte zein heldu aske sentitzeko. Aurten, bertako kantinan jatekoak eta edanak emandako dirua Harrera elkarrentzat izango da: presoek eta deportatuek kartzelatik edo erbestetik itzulitakoan topatzen dituzten arazoei aurre egiteko laguntzara bideratuko dugu egun honetako etekin ekonomikoa –aholkularitza juridiko-administratiboa, osasungintza, lan mundurako sarbidea eta asistentzia ekonomikoa, oro har–.

Beraz, bete ditzagun edalontziak elkartasun eta duintasunez! Denak etxean izan arte!

Nola ulertu hau?

JON UGARTE

ARAMAIO

Azkenaldian aztoratuta dabil Arabako herri txikiak biztanleria: haize-errotak mendietan, eguzki-poligonoak nekazari-lurretan, argindar-lerroak batetik bestera... Debagoiengan ere energiarekin lotutako hainbat proiektu aurreikusita daude: bi zentral Aramaion –Ganborralden eta Jarindon–, Gatzagan beste bat, baita Antzuolan ere, eta azkena, oraingoz, Bergara eta Elgeta inguruan. Hainbat galdera sortzen zaizkit.

Zergatik orain? Zergatik, gehienbat, Araban? Nork irabazten du proiektu hauekin? Nork galdu? Zergatik ez dago Lurralde Antolamendu Planik? Zenbat zentral eoliko eta eguzki-poligono eraiki behar dira? Zenbat energia ekarri behar dugu kanpotik? Eta lehengaiak nondik? Eta

zer jan behar dugu? Zergatik engainatzen dugu gure burua? Gurpil zoro hau gelditu ahal dugu? Gura dugu? Zenbat lagun gabilta egunero autoan San Prudentzioko errotondan buelta eta buelta? Zertarako AHTa? 25 urte pasa dira Debagoiengan lehen zentral eoliko eraiki zela; zein onura ekarri ditu? Zerbait ikasi dugu?

Galdera ugari. Erantzuna, lagun, haizean omen dago.

Bakarrak garelakoan, berdinak ekintzez

MADDI ETXABE HERIZ

ARRASATE

Olinpiaden kontura irakurri berri dut Arrasaten Kuadrilla Eguna egiteko asmoa dagoela. Kuadrilla Eguna, horrek dakarren guztiarekin; ustezko lagunak, talde baten parte izatea, Euskal Herriko sisteman sortu dugun sare honen barruan egotea, besteen begietarako balioa izatea. Kuadrilla Eguna zoragarria izan daiteke kuadrilla duenarentzat, noski. Parranda eguna, talde baten zauden ospakizuna... Kuadrillarik ez duenarentzat, ordea, bistan uzten du nork ez duen horren ondo enkajatu saretzearen sisteman.

Zeren adin batetik aurrera zein funtzio betetzen du kuadrillak? Herri bazkarira norekin joan izatea? Esperientziak eta urteek erakutsi digute lagun handi eta onak kuadrillatik kanpoko zirkuluetan eraiki ditugula. Eta kuadrillan, familian eta lanean bezala, zaila dela guztiak lagun izan eta elkar ondo ulertzea.

Madrilen, Bartzelonan eta beste leku askotan –batzuetan– beste modu batera harremantzen dira. Bertan lagun batek bere lehengusua gonbidatzen du planera, eta besteak trenean ezagutu berri duen ezaguna. Guztiak dira ongiatorriak eta jendea nahi duen jendearekin ibiltzen da, pertentziaren presiorik izan gabe eta talde finko horri leialtasunik zor gabe. Zorionez,

Euskal Herrian horrelako aldaketa txikiak gertatzen ari dira, baina oraindik kostatzen zaigun susmoa dut. Eta zer esanik ez nerabezaroen izaten diren taldeekin.

Ez dut guztia beltz kolorez margotuko, kuadrillak badituelako bere alde positiboak ere.

Baina pentsatzen dut badela garaia kuadrillan izaten ditugun introiektoen eta horrenbeste leku ematen zaien mandatu isil horien inguruan hitz egiteko. Horren sektarioa ez izateko. Zeren bai, oso sektarioak izan ohi gara batzuetan. Benetako espazio seguru eta librea izateko. Iritzi eta gustu ezberdinak izan arren elkar ulertu eta eroso sentitzeko. Inor ez diskriminatuko. Botere harremanik ez egoteko.

Kuadrilla Eguna polita izan daiteke, gure pribilegioei erreparatu eta zaurgarri dauden horiek gurekin elkartzeko prestutasuna adierazten badugu.

Txopoz harro?

LARRAITZ ARANDO ILARDUIA

ARETXABALETA

Atzo gauean igo zuten txopoa Aretxabaletan. Emozionantea izan zen atzokoa. Han egon ginen herritar pilo bat plazan adi gazteei begira, eta tantaiak irrist egiten zuenean oihuka hasten ginen asko.

Tentsiodun momentu magikoa izan arren, agian azterketa soziologiko bat egitea interesgarria izango litzateke. Goizean goizetik hasten da 18 urteko gazteentzat egun handia. Herriko basoetara joan eta pinu bat bota eta plaza azpira eraman ohi da urtero. Basotik herrian barrena sartu zireneko momentu hori parean tokatu zitzaidan atzo: Hogeia bat mutil zihoazen "lo-lo-lolo... lo-lo-lolo..." kantua altu abesten errepede erditik, besoak goian eta beldur gabe, puztuta. Atzetik, soka luzeari tiraka, neska* mordo bat eta mutil batzuk. Sokatik tiratzen zutenei esker, tantaia lurrean

tarrasean. Atzean lauzpabost mutil, barriketan eta lasai oinez. Badago zer aztertu.

Gauekoa, berriz, txopoa igotzeko momentu zirraragarria eta serioa da. Egun luzeko parrandaren ostean, herritar askoren aurrean gazteek sekulako erronka baitute betetzeko. Ikusgarria da momentu horretatik aurrera nola transformatzen den taldeko giroa. Nola sortzen diren rol ezberdinak: agintariak, soketatik tiratzaileak, sardedunak, palanka egingo dutenak, animatzaileak, emozio zaintzaileak... Atzo, behintzat, agintzen eta guztiei ozenki zer egin esaten hiruzpalau mutil aritu ziren, eta neskak beste plano batean geratu ziren. Eta ez dut uste atzoko kontua denik soilik. Badakigu plaza erdian aginduak ematen hastea edozein neskarentzat* arriskutsua dela. Badakigu egingo lukeena eginda ere kritikatu izango litzatekeela. Oso ongi egin arren ere, epaitua izango litzateke. Ahaldundua egoteaz gain, taldeak babestua egon beharko litzateke, eta, hori horrela izan dadin, taldeak aurrelana egin beharko luke.

Badakit neskak* horretarako bidea egiten ari direla, baina zer gertatzen zaie mutilei bigarren planoan geratzen direnean? Eroso sentitzen al dira nesken* aginduak jaso eta isil-isilik hori egin behar dutenean? Badirudi txoparen fenomenoak ere baduela bere kristalezko sabaia!

Lortu dugu

IGOR URIZAR MURGOITIO

ARRASATE

Lortu dugu! Lortu dugu Arrasateko Douglasetik Alma-k-ren lineala kentzea. Lortu dugu! Gure herrian lehen pausoa ematea eta berriro ere jendearen ahotan *boikot* hitza ipintzea! Lortu dugu herriko palestinar komunitateari irribarre bat ateratzea! Baina ez gara hemen geratuko; borrokan

jarraituko dugu palestinar herriak eskatu zigun kanpaina bultzatzen, boikota, desinbertsioa eta zigorrak aldarrikatzen.

BDZ –BDS ingelesez eta gazteleraz– Mugimendua 2005ean Palestinan sortu zen deialdia da; bertan, 1948an Israelgo estatua sortu zenetik hona Palestinaren egoera etengabe txarrerara joan dela ikusita –palestinar lurraren murrizketa etengabea, Israelen bizi diren palestinarren gaineko apartheid, Gaza eta Zisjordaniaren okupazio kolonial-militarra, funtsezko bizi baliabideen erauzketa eta lapurreta...– eta honen aurrean *nazioarteko komunitatea* deritzonak erakusten duen Israelekiko konplizitatea aintzat hartuta, munduko herrietako gizarte zibilari egindako eskaera da: Israelgo estatuari boikota, desinbertsioa eta zigorrak kanpaina bat egitea. Borroka estrategia hau aukeratzea ez da ausazko erabakia, Hegoafrikan apartheidari amaiera emateko borrokan ezinbestekoa izan baitzen. Kanpaina hau palestinar gizarte zibileko 200 baino gehiago elkarterek, GKE-k eta gizarte taldek babesten dute, bai eta palestinar kultur gile, kirolari eta profesional askok ere.

BDZ kanpaina internazionalak finkatutako hiru helburu nagusiak hauek dira: Israelek Palestinaren okupazio eta kolonizazioa amaitzea, Israelgo estatuan bizi diren arabiar-palestinarrei gainerako herritarren eskubide berak onartzea, eta errefuxiatu palestinarrek sorterrira itzultzeko duten eskubidea errespetatzea.

Garaipen bat lortu berri honetan eta herriari zabaltzeko asmoz, bilera zabal bat egiteko deialdia zabaltzen dugu.

Palestinarekin sentsibilizazioa duen oro gonbidatzen dugu uztailearen 3an, 18:30ean, Kulturateko Jokin Zaitegin egingo den bilera irekira.

Jar ezazu zure autoa puntu-puntu eta ondo pasa oporrak



Amets Berezaio

Salmenta, konponketa mekanikoak, txapa eta pintura

Berezaio auzoa - Oñati - 943 71 80 85 / 943 78 25 92
Lizarragako hiribidea - Antzuola - 943 78 70 77

Murillo Garajea



Leizeaga 4 • 943 76 13 84 • Bergara
www.eurotaller.com/taller/311/garaje-murillo



ALMACENES LASCAR

a.laskar@laskar.es • www.laskar.es
Amillaga 32 • 943 76 10 38 / 943 76 19 11

GASOIL BANAKETA
OLIOAK (REPSOL)
AD BLUE
OLIO ALDAKETAK
PNEUMATIKOAK ETA
GARBIKETAK



**BERGARA
PNEUMATIKOAK**

Pneumatikoak • Olio aldaketak • Mekanika azkarra

Leizeaga 1B BERGARA - Tel.: 943 76 36 27 - 638 26 77 64
nfo@bergarapneumatikoak.com | www.bergarapneumatikoak.com

Markiegi autoak



AUTOEN GILTZEN KOPIAK

Leizeaga, 1 • BERGARA • markiegiautoak@telefonica.net
943 76 35 09 • 629 91 52 15 • @markiegiautoak

Abuztuan goizez zabalik

Ordutegia: 07:00-14:00
(12tik 18ra itxita)

**SALMENTA ETA
MEKANIKA OROKORRA**



CHAPIME TAILERRAK



TXAPIME AUTOAK

- ✓ Marka guztien konponketak
- ✓ Autokarabanan mantentze-lanak
- ✓ IAT (ITV) aurreko azterketa

SAN ANDRES AUZOA 5, ARRASATE TEL. 943 79 45 22



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Salmenta eta salmenta osteko
zerbitzu osoa



San Andres 10 D • Tf: 943 77 30 10



Salmenta • Mekanika
Elektrizitatea • Pneumatikoak



Bateria, argiztapena, aire girotua, iragazkiak, balaztak, pneumatikoak, olio nibelak...

 **Lagun Garajea**

Santalaitz 3
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 76 11 20

*Zure
zerbitzura!*

MEKANIKA OROKORRA

Turismoak, lur orotako
ibilgailuak, ibilgailu astunak eta
nekazaritzako ibilgailuak.

Azeri kalea, 5, Arrasate.
943 79 12 61 / 665 38 35 02 /
garajeibarra@hotmail.com



GARAJE NORTE

 **EUROREPAR MULTIMARKA**
CAR SERVICE

Mekanika, txapa eta pintura
Marka guztiak konpontzen ditugu
Autoaren zerbitzu osoa

BASABE POL. A 1-3. pab. - 20550 ARETXABAETA - 943 71 20 03

 **GRUPO
EASO
MOTOR**

DESKONTUAK
GURPILETA ETXAN ERREBISIOETAN DEITU!
San Andres kalea 6, • Arrasate
www.grupoeasomotor.com

 **HYUNDAI**
Oarso Car
HYUNDAI 943 79 70 06

 **MUGARRI** 
MUGARRI 943 79 07 44

AMG autoak

Torrebaso industrialdea 14-B • 20540 Eskoriatza
Telf.: 943 71 42 79

 **ARRASATE
AUTOAK**

Mekanika, elektrizitatea,
pneumatikoak,
mantenua,
autodiagnosia,
tapizeriaren garbiketa,
deskarbonizazioa...

Ekutio kalea 4, 31. pab. Arrasate
Tel.: 943 79 97 35 - 670 79 97 35

**GALLASTEGI
MOTOR**

Mekanika orokorra
Elektronikan adituak
Diagnosi zerbitzuak
Automozioko aholkularitza

Markulete industrialdea
Telleria 4, 5 pab. Arrasate
943 79 73 58 / 670 79 73 58

**GALLASTEGI MOTORSPORT
APR / VAGSPEED GIPUZKOA**


Reprogramazioko etxeen banatzaile ofiziala

**Ez ahaztu!
Deitu zure
tailerrera eta
hitzordua
eskatu!**

SANJUANAK 2024



San Juan bezperan, dantzariak Biteri kalean, errementari dantza eginez, plazara bidean. ARGAZKIAK: GOIENA



Maider Morras alkatea eta Oxel Arriaran gaztea, alpargatak sutara botatzen.

Herriaren garra, sua bezain bizia

Sanjuanak bukatu berri, behin-behineko balorazio positiboa egin du Udal Gobernuak: "Arrasatearrak, oro har, kalera irten dira jai giroaz gozatzera, eta pozgarria izan da herriko kaleak bizitasun eta alaitasunez gainezka ikustea; herriak bizirik sentitu dugu"

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Festa egun luzeak izan dira aurtengoak Arrasaten, eta, oro har, zapore gozoa utzi dutenak, gainera. "Bizirik dagoen herria" sentitu du Udal Gobernuak, egin dituzten ekintzak jendetsuak izan direla argudiatuta. "Emaitza hori hainbat eragileren ar-

teko elkarlanari esker izan da. Askorentzat, urte osoko lanak eragindako emaitza bikaina. Ekimen jendetsuenen artean egon dira txosnaguneko zein Monterongo kontzertuak, errementari dantza, Gazte Olinpiadak, puzgarriak eta haurrentzako programazioa", diote.

Hainbat aldaketa, euriagatik Eguraldia, batez ere lehen egunetakoa, ez da aproposena izan jaietarako. Izan ere, euriaren ondorioz, Uarkapen egin behar izan dituzte kantu afaria eta dragoi jana, eta errekortarien erakustaldia bertan behera utzi behar izan zuten, "segurtasuna



Erraldoi eta kilikien emanaldia.



Zeuk iñ zeuk jan, Portaloian berriro.

bermatzeko", zezen-plazaren egoera txarra zelako.

Berrikuntzekin pozik

Gazte Olinpiadak izan dira aurtur berrikuntza nabarmenena, eta Gobernuak "aipamen berezia" egin dio ekimenari: "Entzun izan ohi ditugun mezuen kon-

trara, horrek gazteen konpromisoa eta elkarlanerako gaitasun eta potentzialtasuna erakusten du. Zorionak gazte guztiei!".

Errementari dantza zuzenean ikusteko Monterronen jarritako bigarren pantaila erraldoia ere arrakastatsua izan da. "Jendetza bildu zen San Juan bezperako

Gualbi
aholkularitza
Eraña aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei
erantzuteko prest!

Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com • www.gualbiasores.com



Hainbat haur Eguzkilarurekin.

ilunkeran. Herritar askok errementari dantza dantzatzeko iniatiba hartu, eta giro bikaina jarri zuten. Ondo bidean, datorren urtean berriz jarriko dugu pantaila".

Haurrentzako jarritako puzgarriek ondo ordezkatu dituzte barrakak, udal ordezkarien esanetan. "Haur eta guraso asko ikusi ditugu joan-etorrian; askok eskertu dute ur-parkea. Dena den, aurretiaz esan bezala, guraso taldeekin eta eragileekin hitz egingo dugu haurren aisialdiaren gaineko balorazioa egiteko".

Zeuk in zeuk jan bazkaria Portalaira itzuli izana ere "oso ondo" baloratu dute. "Eguzkiak gogor jo bazuen ere, bertaratu ziren herritarrek asko eskertu zuten herri bazkari autogestionatua Portalaira itzuli izana".

Protokoloa ez da aktibatu

Indarkeria matxistei aurre egiteko protokoloa aktibatze



Arrakastatsuak izan ziren Gazte Olinpiadak; Boniato Crew taldeak irabazi zituen.

beharrak ez da egon. "Ez da esku hartzerik egon, eta horrek balorazio positiboa egitera garamatza", dio Gobernuak.

Esker mezuak ere bai

Jaietan lanean aritu diren eragile, herritar eta udal langileen-tzako esker mezuak izan ditu Udal Gobernuak: "Ezberdinen arteko elkarlanari esker izan dira posible San Juan jaiak". Udal langileen jarduna bereziki nabarmendu du: "Esker bereziak brigadari, Kultura teknikariei, Udaltzaingoari eta garbitzaileei; egunotako lana itzela izan da, eta dagokien aitortza zor zaie. Eskerrik beroenak haientzat".

GAZTE OLINPIADEK ERANTZUN EZIN HOBEA IZAN DUTE ETA AIPAMEN BEREZIA EGIN DIE GOBERNUAK

Hiru entzierroak, jendetsuak

Bergarako Zezenak ganadute-giko Iñigo Almorzari ere aho zapore ona utzi diote jaiak: "Entzierroak eta zezen-plazako emanaldiak jendetsuak izan dira hiru egunetan. Kolpe batzuk egon diren arren, ohikoak izan dira; ez da aparteko arazorik egon". Zera gaineratu du: "40 bat urte dira Arrasatera joaten garela, eta hango giroa berezia izaten da beti. Errekortari bategen esan zidan Arrasateko San Juan eguneko emanaldia Euskal Herriko onena dela". Esan bezala, ez dute emanaldi hori egiterik izan.

AEDkoak ere pozik

Dragoi janak zein bertso saioak emandakoarekin pozik dago AED: "Azken horretan lekualdaketa izan da apustua, eta ondo erantzun dute herritarrek; halere, aukeran, gazte gutxi egon dira, eta hor dugu erronka".



Gazteak, makala eramaten, Otalora Lizentziaduna kalean, Monterron parean.



Kiko Venenoren doinuek agurtu zituzten aurtengo San Juan jaiak, eguaztenean.



Udalak lehen aldiz jarri zuen pantaila Monterronen, errementari dantza jarraitzeko.

VITALDENT
ZURE AHOA DENA DA

**%15EKO DESKONTUA
HORTZ-ESTETIKA⁽¹⁾**



ARRASATE

Otalora Lizentziaduna kalea 1
943 06 03 22

(1). 24/05/01etik 24/06/30era bitarteko promozio baliaduna, biak barne. Onartutako aurrekontuaren zenbateko osoari aplikatuko zaio. 250 €-tik gorako tratamenduetarako. Ez da metagaria beste deskontu eta sustapen batzuekin. Ez da bateragarria Vitaldentek diruz lagundutako interesak dituen finantzaketa-motekin. Kontsultatu zure tratamenduen tarifak zure Vitaldent klinikan. Medikuen agindupeko tratamenduak. CS10715 osasun-erregistroa. RPS 255-21

Urteko egun guztietan, baina, batez ere, gaur

LGTBI Komunitatearen Nazioarteko Egunarekin bat eginez, Morborrek mobilizazioa deitu du gaurko, 18:30erako. Modu berean, Udalak adierazpen instituzionala egin du gaurko egunaren harira, eta herritarrei elkarretaratzean parteko hartzeko dei egin die

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE
LGTBI Komunitatearen Nazioarteko Eguna da gaur, ekainak 28. Horren harira, elkarretaratzea deitu du Morbor taldeak. Hain zuzen ere, *Hetero, danok zuri begira, ero?* lelopean elkartuko dira, 18:30ean, Herriko Plazan. "Heteroaraua ez delako osasungarria. Heterodisidentzietatik arrakalak irekitzen jarraituko dugu, erdiguneak irauli eta erztetan gaudenon gorputz, desira eta izateak aldarrikatzeko, behin eta berriro jaioko garelako", adierazi dute taldeko kideek, herritarrei aldarrikapenera bartzeko dei eginez.

Arrasateko Udalak ere mobilizazioetan parte hartzeraz animatu ditu herritarrak. "Diskriminazio modu guztiak baztertzeko dei egiten diegu, baita LGTBI+ mugimenduak gure herrian deitutako manifestazio eta ekitaldi guztietan parte hartzeko ere. LGTBI+ Harrotasun eguneko ekitaldietan parte hartzeraz animatu nahi ditugu herritarrak, espazio publikoa kolorez eta aldarrikapenez betetz, Arrasate berdinzaleago eta anitzagoa izan dadin".

Lau alderdi politikoak ados

Hain zuzen, udalbatzan ordezkaturata dauden lau alderdiak ados jarri dira gaurko egunari begira eta adierazpen instituzionala egin du Udalak. "Historiak erakutsi digu ikusgaitasuna urrats garrantzitsua dela, izendatzen ezdena ez dela existitzen. Horregatik, legealdi honetan Berdintasun Sailaren izena aldatu eta Arrasateko Udalean lehengo aldiz LGTBI+ politikak garatzeko erabakia hartu dugu. LGTBI+ pertsonen eskubideak bermatzera bideratutako neurriak aktibatu ditugu", dio adierazpenak.

Halaber, sexu eta genero-aniztasunaren ikusgarritasunak gizarte gisa aurrera egiteko



laz ekainaren 28an Herriko Plazan egin zuten elkarretaratzea. E.A.B.

aukera ematen duela ere nabarmen du idatziak. "Aniztasun hori aitortzea eta ospatzea, justizia-ekintza izateaz gain, komunitate gisa aberasteko aukera ere bada. Ez dugu inolako atzerapausorik onartuko kolektibo osoko ehunka lagunena ahalegnari esker lortutako eskubideetan. Irabazitako eskubide bakoitzak gizarte bidezkoago eta gizatiarrago baterako urratsa da".

Onarpen soziala handitzen

Udal ordezkariak adierazi duteenez, sexu eta genero-aniztasunaren onarpen soziala "gero eta handiagoa" da, hein batean, "euskal gizarte osoaren elkarlarnari esker". Horri lotuta, zera azpimarratu dute: "Lan hori funtsezkoa izan da armairurik eta loturarik gabe, aurreiritzirik eta estigmatik gabe, bizi ahal izateko, komunitatea eraikitzeko. Babes-keinu bakoitzak, iku-

HERRIKO PLAZAN ELKARTUKO DIRA GAUR, EGUBAKOITZA, 18:30EAN HASITA, MORBORREK DEITUTA

sarazte-ekintza bakoitzak, mugimendu hori indartzen eta aurrera jarraitzeko gure erabakia berresten laguntzen du".

Eragileekin koordinatuta

Gaurko egun bakarrak ez, urteko egun guztietan LGTBI+ pertsonen eskubideekin duten konpromisoa politikoa adierazi dute udal ordezkariak. "Hitzetatik haratago, gure konpromisoa politika zehaztutako isla nahi dugu. Horregatik, Arrasateko Udalak, lehenengo aldiz, aurrerapausoak eman ditu LGTBI+ kolektiboarekin daukagun zor historikoa kitatzeko, eta, horretarako, baliabide tekniko eta ekonomikoekin, mugimendu feminista eta LGTBI+ kolektiboko ordezkari eta adituekin, ildo politiko berri hau adosteko eta garatzeko lehengo pausoak eman ditugu", azaldu dute.

Hala, LGTBI+ eta gizarte eragileekin koordinatuta, diagnostiko bat egingo dute, Arrasate LGTBI+ kolektiboaren errealtatearen argakia zein den ezaugu eta bizi-baldintza duinak bermatzeko talka plan berezi bat diseinatuta eta garatuta.

Ultradotasunezko mekanizazio-makina bat instalatu du MUK

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko instalazioetan bost ardatzetako ultradotasunezko mekanizazio-makina bat instalatu dute, eta azaldu dute "estatuko lehena" dela: "Doitasun mikrometrikoa du -merkatu zehatzena-, eta gai da giza ile bat baino ehun bider ebaketa finagoak egiteko". Hala, zehaztu dute "fakultatea lehen mailan" kokatu dela ikerkuntzari, produktuen garapenari, enpresentzako zerbitzuei eta industria-mekanizazio presakuntzei dagokienez. Besteak beste, sektore aeroespazialean eta industria elektronikoen, medikoen eta oftamologikoen erabiltzen dira halako makinak.

Hainbat ikastaro mantendu egingo dituzte uztailean

Musakolan body pump egiteko aukera egongo da uztaileko martitzen eta eguenetan, 17:30etik 18:30era; pilatesa, astelehen eta eguaztenetan, 10:00etatik 11:00etara eta 19:30etik 20:30era. Spinninga, astelehen eta eguaztenetan 18:30etik 19:30era eta astearte eta eguenetan 07:00etatik 08:00etara.

Uarkapen, aldiz, k-strecheko ikastaroa bakarrak mantenduko dute: astelehenetan, 10:30etik 11:30era, 11:30etik 12:30era eta 17:00etatik 18:00etara; martitzenetan, 10:30etik 11:30era; eguaztenetan, 06:30etik 07:30era, 09:30etik 10:30era, 10:30etik 11:30era eta 18:00etatik 19:00etara; eta egubakoitzetan, 07:30etik 08:30era.

Hainbat mendi ibilaldi uztailean, abuztuan eta irailean, doan

Udalak askotariko mendi ibilaldiak antolatu ditu udarako, domeketan. Lehena uztailearen 7an egingo dute: PR-GI 205 Anporretako bira, *Burdinaren bidetik*. Uztailearen 14an Kurtzetxikiko bira egingo dute eta 21ean, aldiz, PR-GI 206 Murugain, *Dragoiaren bidetik*. Ibilaldi guztiak 09:00etan hasiko dituzte, Herriko Plazatik.



NIRE USTEZ

RAMON UGALDE

Barrakarrik gabeko sanjuanak

Sanjuanetan ez da barrakarrik izan. Oso arraroa da, baina udal arduradunek hori ere lortu dute. Atracciones Sanzeko arduradun Juan Pablo Sanzek oso ondo azaldu zituen zergatiak Goienan.

Sanjuanak eta Arrasaten egiten diren ospakizun ofizialak ez ditut gustuko. Arrotz samar sentitzen naiz, bertakoa ez banintz moduan. Herrikideak dibertitzeko manerarekin ez dut konektatzen, eta ez dut inongo gogorik izaten proposatutako ospakizunak ikusteko; are gutxiago, parte hartzeko. Salbera joan nintzen eta hotz utzi ninduen; danborradari ez diot kenduko balio terapeutikoa, baina aspergarria egiten zait; errementari dantzaren mugimendu errepikakorra kooperatibetako kateko lanaren gorazarrea iruditzen zait; pistolarien kantu afarira ez naiz joan; buruhandien desfreak nafar erdaldun sentiarazten nau; eta pilota partidu bat ikusteagatik ez dut sekula pagatuko. Txosnetara ez naiz joaten, baina pankartetako aholku eta aginduekin ez nintzen eroso egongo. Poz handia ematen zidana zen Atracciones Sanzen entzutuen euskal musika. Baina, ai! Duela bost urte, Udalak jartzen zizkion trabengatik, etortzeari utzi zioten. Lerro hauek balio bezate Atracciones Sanzi eskerrak emateko.

Abuztuari dagokionez, beste hiru ibilaldi egingo dituzte. Abuztuaren 4an, Gongetako meatzeetara; abuztuaren 18an, Udalatxeko bira; eta abuztuaren 25ean, Udala-Besaide-Tellamendi. Guztiak Udalako goiko apartakalekutik abiatuta, 09:00etan.

Irailean, azkenik, Irutontortetara, Arantzazura eta Leintz Gatzagara egingo dituzte ibilaldiak; horiek ere plazatik irtenda. Informazio gehiagorako, bi telefono-zenbaki: 943-25 20 00 (BAZ) eta 619 48 57 67 (gidaria).

"Saria lortuta, jarraitzea baino ez zait gelditzen"

ANE ZABALA MENDI KORRIKALARIA

Arrasate Kirol Sarietan herritarrenngandik boto gehien jasota, Kirolari Onenaren Saria eskuratu du. Arrasatearrekin "oso eskertuta" dago Zabala, emandako babesagatik

Iñigo Barrena ARRASATE

Ane Zabalak (Arrasate, 1973) eskuratu du Arrasate Kirol Sarietan Kirolari Onenaren Saria, beste zortzi hautagairen aurretik. Iaz, besteak beste, Hiru Handiak lasterketa irabazi zuen, eta aurten, Gasteizko Mendiak lasterketa irabazi berri du, duela bi aste. GOIENA Zabalarekin izan da, AKS sariari eta denboraldiari buruz hitz egiteko.

Arrasatearren ustez, zu izan zara kirolaririk onena...

Halaxe da. Egia esan, sorpresa ikaragarria izan da, oso polita. Arrasateko herritarrei eskerrak ematea besterik ez zait gelditzen.

Ze sentazio dituzu herritarrek zu aukeratu ostean?

Lehenik eta behin, bozkatzan duten herritar guztien errespetuagatik, ekitaldira joan beharra nuen, baita beste kirolariek ere. Gero, pantaila handian zure aurpegia ikusten duzunean sekulako sorpresa izaten da, eta hasieran ez duzu sinesten. Bederatzi ginen eta guztiek merezi zuten saria; beraz, oso momentu polita izan zen.

Botoei dagokionez, oso alde txikia egon zen...

Bai; bi kirolari egon gara lehian nor baino nor gehiago. Sei botoko alde besterik ez da egon bion artean, oso parekatua izan



Ane Zabala, sariarekin, Santa Barbara parkean. IÑIGO BARRENA

da, dudarik gabe, eta edozeinek irabazi zezakeen.

Bederatzi izendatu egon ziren sarietarako, eta denetarikoz dizipline-tan; igartzen da Arrasaten kirola bizi-bizi dagoela, ezta?

Arrasaten, orokorrean, kirolari asko eta kirol talde asko daude, eta, era berean, ikusten da kirolaren alde lan handia egin gura dutela. Espero dut kiroldegia ere hobetzea, nahiz eta denboratxo bat beharko duen. Arrasaten kirola indarra hartzen ari da, eta horrek lagunduko luke indartzen jarraitzeko.

Horrek ere bide emango luke talde kirolean eta bakarkakoan emaitza hobek lortzeko?

Ziur nago herritar gehiago animatuko liratekeela kirola egitera instalazio hobek izango bagenu, eta ez soilik kiroldegian, baita kalean ere. Ez nabil esaten sariak lortzeko hasiko liratekeela kirola egiten; norberaren gozamenerako izango litzateke. Behin kirolaren munduan eta egunerokoan sartuta, pertsonalki hobeto sentitzen zara eta jende berri asko ezagutzeko aukera ematen dizu kirolak.

Azken urteko lorpenak hartzen dira kontuan sari horietarako; emaitza onak izan dituzun seinale.

Egia da, bai. Sari honetan gehien aipatu izan dena Hiru Handiak lasterketan lortutako garaipena izan da, eta egia da hura inflexio-puntua ere izan zela. Hilabete osoz jendeak zoriondu egin ninduen lortutako emaitzagatik, eta arrasatearren aldetik hori jasotzea oso polita izan zen. Hori izan da, nire ustez, gakoa Kirolari Onenaren Saria lortzeko.

Gutxi esan dezakete Hiru Handiak lasterketa irabazi dutela.

Ba, nik animatu egiten dut jendea probatzera. Askok esaten dute ezin dutela edo ez direla gai egiteko, baina nik probatzeko esango nieke. Jakina, ez da egun batetik bestera egiteko lasterketa bat, baina nik ere urteak daramatzat kirolean gutxinaka helburuak lortzen. Askok esaten dute ez direla gai egiteko, baina ziur nago egiteko moduan izango liratekeela.

Azken urtean beste hainbat lasterketa eta lorpen izan dituzu; nolako urtea izan da zuretzat?

Bailarako lasterketetan parte hartzea gustatzen zait; guztietan parte hartzen saiatzen naiz. Arrasate-Udalatzen eta Aloñako Igoeran izan naiz; Antzuolan, aldiz, ezin izan nuen parte hartu, eta horrek pena eman zidan. Gainerakoan, distantzia luzeetan hasi naiz lehiatzen eta hiru egin ditut; guztietan ondo sentitu naiz. Aurten, gainera, fisikoki ere ondo sentitzen naiz, baina burua askorik estutu gabe nabil; izan ere, kirolaz gain, beste hainbat gauza ditut egunerokoan: familia, lana eta bestelakoak.

Aurten B2H lasterketan lehiatzeko zara; nolako lasterketa da?

Ez dut ezagutzen. 90 kilometro dira, distantzia aldetik Hiru

Handiak baino motzagoa, baina desnibel handiagoa duela uste dut. Berria naiz lasterketa mota horietan eta errespetu handia ematen didate. Anoa-postu batetik bestera nola sentitzen naizen jakitea gustatzen zait. Momentuz, ez dut makalaldirik izan; beraz, lasai hartu eta ea noraino iristen naizen.

Berria zarela diozu, baina Hiru Handiak irabazi duzu; horrek B2Hrako indarrak emango dizkizu, ezta?

Bai; gai izan banaiz aurrekoa egiteko, hau egiteko ere gai izango naiz. Dena dela, lasterketa luzeetan faktore asko hartu behar dira kontuan. Denbora asko da eta mentalki gauza askotarako denbora ematen du. Esan beharra dut oraindik ez naizela ohitu horrelakoetara.

Etorkizunera begira zeintzuk dira finkatuta dituzun helburuak?

Momentuz, BH2. Gero, irailean Ermuan Hiru Txikiak egitea gustatuko litzaidake. Hemen inguruan, berriz, Aiba! mendi martxa egin nahiko nuke.

Horri guztiori aurre egiteko, sariak lagunduko du, ezta?

Bai; orain ezin naiz etxean egon, jarraitu beharra daukat. Niretzat egiten dut kirola, disfrutatzeko, baina, saria lortzeko herritarrenngandik jaso dudana babesa ikusita, indar handia ematen du aurrera jarraitzeko. Modu batera edo bestera, presio txiki bat ere badago emaitzak lortzen jarraitzeko, baina ez dut presiorik sentitzen eta orain arte modu jarraituko dut.

"KIROLGUNE HOBEAK IZANGO BAGENITU, JENDE GEHIAGOK EGINGO LUKE KIROLA"

Itsasoa nahi.

OPORRETAN ZAUDE ETA

LA PALMA

8 egun / 7 gau
La Caleta apartamentuak 3*
Ostatua eta gosaria

739 € tik aurrera

AZORE UHARTEAK

8 egun / 7 gau
VIP Executive Azores 4*
Ostatua eta gosaria

729 € tik aurrera

MALTA

8 egun / 7 gau
Canifor 4*
Ostatua eta gosaria

649 € tik aurrera

UHARTEAK UDAN 2024

HEGAZKINEZ BILBOTIK

NAUTALIA
Bidaiak

Iturriotz Kalea, 17 · 843 630 839 · Arrasate · Gipuzkoa

Gela bikoitzeko prezioa pertsonako –prezio horretatik hasita–. Borne hartzen du Bilbotik zuzeneko hegaldia, lekualdaketak, hoteleko egonaldia eta adierazitako erregimena, aireportuko tasak eta bidaiako oinarizko aseguruak. Nautalian erreserbatzeagatik kudeaketa-gastuak: 25 euro.



Manex Bakero, Zigor Martinez, Andoni Arratibel eta Oxel Arriaran, Udazabal ekimenaren aurkezpenean. ENEKO AZURMENDI

Kontzertuz eta antzerkiz josita dator Udazabal

Gaur hasi eta uztailearen 30era bitartean egingo da Udazabal. Hamar emanaldik osatuko dute programa; horietatik zazpi musika kontzertuak izango dira eta gainontzeko hirurak, antzerkiak. Bailarako zein nazioarteko artistek izango dute tokia

Julen Murua Mesonero ARRASATE San Juan jaiak bukatu arren, festak jarraitu egiten du Arrasaten; izan ere, gaur abiatuko da Udazabal programa, urtero bezala, Arrasate Musikal Big Band taldearen emanaldiarekin. Monterronen egingo dute kontzertua, 22:30ean hasita, eta, hortik aurrera, uztailean beste hainbat kontzertu, antzerki eta

jaialdi egongo dira. Zigor Martinez Arrasate Big Band taldeko zuzendariak eramango du Udazabalg aurreneko kontzertuaren batuta, eta zuzendariak dio eurentzat "oso berezia" izaten dela "urtero Udazabal programari hasiera ematea". Urteroko hitzordua izan arren, ez dituzte aurreko urteetako pieza berberak joko: "Abesti ezagunen bat

egongo da, eta, beti bezala, estilo askotariko kantuak joko ditugu: funk, swing, rock, sanba eta saltsa estiloetakoak". Martinezek jakinarazi duenez, musikariekin batera, "abeslariak ere arituko dira" kontzertuan.

Hainbat musika jaialdi Uztailean sartzearekin batera hasiko dira Monterrogo bi

jaialdiak. Hilaren 4an, *Egurhotza* jaialdia egingo da, eta bertan izango dira bailarako urban musika estiloko artista nagusiak diren Etxepe, Mutiko Tatta eta Denso, beste hainbat artistarekin batera. Hurrengo bi egunetan, berriz, Mondra&Roll jaialdi handiak hartuko du Monterronen, eta bailarako hainbat talde igoko dira oholtzara: Larru Beltzak, Brigade Loco eta Kontralde. Bertakoen kantuez gain, nazioarteko talde handien kontzertuez gozatzeko aukera ere izango dute bertaratuek; besteak beste, Cock Sparrer, The Baboon Show eta Sham 69 taldeen kontzertuak entzungo dituzte. Musika jaialdiak amaitzeko, uztailearen 18tik 21era egingo da Arrasate Blues, eta programa osatzen duten taldeetan badaude bailarako ordezkariak; besteak beste, Diablues eta Bluezifer, The Allnighters eta Arima Soul 1 taldeetan.

Jaialdiez gain, musika kontzertuek ere osatuko dute Udazabal: Femmm taldeak emango du kontzertua hilaren 12an; Ines Osinaga arrasatearrak diskoaren aurkezpena egingo du 27an; eta Udazabal itxiko du Herbehereetako Ad Hoc Vakantieorkest taldeak uztailearen 30ean.

Antzerkiak ere bai

Musika emanaldiez gain antzerkiak ere egongo direla aurreratu du Jon Garaik, Kultura teknikariak: "Musika emanaldiez gain, antzerkiak ere izango ditugu ikusgai uztaileko hainbat egunetan. Antzerkien artean ditugu *Troia*, hiru emakume protagonista dituen; *Lanean jarraitu 75 urte arte*, ikuspegi komikotik gai hori parodiatuko duena; eta *Artilusio* ikuskizuna, maskarekin eta kalean eginiko emanaldi berezia".

Udazabal egitaraua

Honako hau da egitaraua:

Ekainak 28
22:30 Arrasate Musikal Big Band taldearen kontzertua Monterronen.

Uztailak 4
17:30-23:05 Egurhotza jaialdia Monterronen.

Uztailak 5-6
Mondra&Roll jaialdia Monterronen.

Uztailak 9
19:30 *Troia* antzerkia Seber Altuben.

Uztailak 12
20:00 Femm taldearen kontzertua Monterronen.

Uztailak 16
19:30 *Lanean jarraitu 75 urte arte* antzerkia Seber Altuben.

Uztailak 18-21
Arrasate Blues jaialdiaren baitako kontzertuak.

Uztailak 23
19:30 *Artilusio* haur antzerkia Seber Altuben.

Uztailak 27
22:00 Ines Osinagaren kontzertua Monterronen.

Uztailak 30
19:30 Ad Hoc Vakantieorkest taldearen kontzertua Monterronen.

Bi sari jaso ditu 'Punkaren beste alde' dokumental laburrak

Dokumental labor onenaren eta publikoaren saria eskuratu ditu Donostiako Dock Of The Bay jaialdian

J.M.M. ARRASATE Perlata taldeko Jaione Martinez, Ane Garai eta Maialen Oleaga arrasatearrek Bergarako The Badass Project proiektuko kideekin egindako *Punkaren beste alde* lana dokumental labor

onenaren izan da, epaimahaiaren erabakiz, Dock Of The Bay, Donostiako Musika Dokumentalen jaialdian; publikoaren saria ere jaso du.

Ikus-entzunezkoaren protagonista Jesusi Etxebarria da, 50

urtez arrasatear askori musika irakatsi dien emakumea. Sail Ofizialeko epaimahaia Antonio Ariasek, Jorge Turrek eta Virginia Garcia del Pinok osatu dute eta horrela arrazoitu dute saria eman izana: "Sari hau aho batez eman diogu, zuzendarien begirada erneagatik eta entzuteko gaitasunagatik nabarmen izan den filma delako. Lortu dute, lehen planoan erabili gabe, umiltasun ariketa bat egitea, eta, bide batez, ikuslearengan arrastoa uzten duen istorio bat

kontakatzea. Eta hori guztia egiteko modu onena erabili dute: estetika zinematografikoaren erabilera adierazgarriaren bidez, bisuala, soinuari dagokionez eta baita muntaketa lanagatik. Laburbilduz, sari hau ez diogu eman umorezko pelikula bat eman dezakeen lan bati; izan ere, maitasunezko lan bat da. Erabateko maitasuna duena".

Ekileak "pozik" daude

Perlatako kide Jaione Martinezek aitortu du proiektuarekin

hasi zirenean begiz jota zutela Dock Of The Bay jaialdia: "Lanean hasi ginenean buruan genuen zerbait da; asko baloratzen dugun jaialdia da, eta jakinda musikarekin lotutako dokumental bat egin behar genuela, bereziki egon nahi genuen festival bat da. Aukeratuak ginenela jakin genuenean asko poztu ginen". Hori dela eta, Martinezek dio "oso pozik" hartu zizutela sariak, eta nabarmendu du euren proiektuak kultur espazioetatik jasotako babesa.

Eskola txikietako 200 irakasle Aramaion

Euskadiko Eskola Txikietako 200 ikasletik gora elkartu ziren eguazten goizean Aramaion egin zuten herri topaketan, eta hitzaldiak entzun eta hausnartzeko tartea izan zuten. Duela bi urte ere Aramaion egin zuten bi urtetik behin egiten duten topaketa

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO

Euskadiko Eskola Txikietako irakasleen XIV. topaketa egin zuten eguazten goizean Aramaion, eta 200 irakasletik gora elkartu ziren bertan. Aldi bakoitzean gai bat izaten da ardatz, eta oraingo honetan arte garai-kidearen ikuspegia landu zuten. Lanketa horri lotuta, Estibaliz Uriartek eta Ixiar Rozasek hitzaldia egin zuten topaketen lehen zatian, eta, atsedenaldiraren ostean, eskoletako esperientziak partekatzeko aukera izan zuten irakasleek. "Artea lantzen den azkenengo gauzetako bat izaten da, ostiral arratsaldeetan egiten dena, eta garrantzi gutxi duena; hala ere, gaur ikusi dugu zer garrantzi duen, errealitateaz lotzeko beste modu bat delako", adierazi zuen goizean bertan Aramaio Herri Eskolako zuzendari Saioa Uriartek.

Dueta lau urtetik eskola txiki

Aramaio Herri Eskola 2020-2021eko ikasturtean sartu zen eskola txikien barruan. Alabaina, talde horren barruan eskola handienetakoa dela aurreratu zuten eskolako zuzendariak. Hala, talde horretan eskola handienetakoa bada ere, 90 ikaslerekin, azken urteetan jarduna aldatu behar izan dutela gaineratu zuten, eta horretan ezinbestekoa dela irakasleen arteko elkarlana eta hausnarketarako denbora hartzea. Hala ere, prozesu "aberagarria" izaten ari dela aitortu zuen: "Bilaketa bat izan da, aurkikuntza bat. Pedagogiaz eta hezkuntzaz disfrutatzeko aukera paregabe bat guretzako. Adin aniztasunean egiten dugu lan, ikasleak zikloka nahastuta egiten dugu lan, eta ez gure berritara atzera egingo ikusita pertsonengan eragiteko modu horrek nola eragiten duen bere hazkuntzan, izaeran eta identitatean".

Dueta bi urte ere Aramaion egin zuten topaketa, eta herrian



Topaketan elkartu ziren irakasleak kultur etxean hitzaldiak entzuten. IÑIGO BARRENA

egitearen garrantzia azpimarratu zuen Uriartek. "Guretzat oso pozgarria da Euskadiko eskola txiki guztietako irakasleak guregana etortzea. Politena da herri batean elkartzea. Berdin izango litzateke Gasteizen edo Bilbon elkartzea, baina esentzia galduko luke; herri txikietako irakasleak gara eta herri txikietan elkartzen gara", zioen.

Angiozarkoak ere Aramaion

Debagoienetik Aramaion egon zen beste eskola bat Angiozarkoa izan zen. Haien kasuan, Haur

Hezkuntzako gela bat eta Lehen Hezkuntzako bi dituzte. Lehen aldia zuten topaketan, eta hango irakasle Idoia Zabalegi adierazi zuen "elkarreraginean txikiek handienetatik" ikasten dutela.

"Hamalagarren aldia da hau aurrera eramaten dena, eta oso aberatsa izaten da; azken batean, aukera izaten dugu beste eskola txikietako irakasle batzuekin egoteko eta, era berean, besteen jardunetatik ikasteko. Orain, hemen ikasitakoa gure klustrora eraman eta hausnarketa bidea irekiko da", adierazi zuen.



SAIOA URIARTE ARAMAIO
HERRI ESKOLAKO ZUZENDARIA

"Adin aniztasunean egiten dugu lan eta ez gure berritara atzera egingo ikusita pertsonengan eragiteko moduak nola eragiten duen".



IDOIA ZABALEGI ANGIOZARKO
ESKOLAKO IRAKASLEA

"Aukera daukagu besteen jardunetik ikasteko; orain, topaketan ikasitakoa klustrora eraman eta hausnarketa bidea irekiko dugu".

Statkraften eguraldi neurgailua, Itsaraz proiektuko lurretan

Haizea neurtzeko antena bat jarri zuen Statkraftek San Adriandik Asentziorako bidean duela hamar egun

I.A.A. ARAMAIO

Statkraft enpresak haizea neurtzeko antena instalatu du San Adriandik Asentziorako bidean. Aramaio Udalak adierazi du alegazioa jarri zuela, baina Arabako Foru Aldundiak eman duela baimena antena jartzeko, "interes publiko" izendatuta: "Etxea teilatutik hasi dute. Proiektua aurkezterako neurketak egin behar izaten dituzte, eta orain egingo dituzte".



Haizea neurtzeko antena. A.U.

Alegazioak aurkeztuta

Aramaio Udalak Statkraften proiektuari egindako alegazioen ondoren, "proiektu aldatua" bidali zuen Statkraftek. Han zeuden jasota San Kristobal ermita inguruko aerosorgailua eta bigarren dorre bat metro batzuk lekuz mugitzea eta Kruzetatik Legutiorako errepidean garraioa eratzeko lanak egiteko propo-

samena. Proiektu horri ere aste honetan alegazioak aurkeztu dizkiotela jakinarazi dute.

Herriko eragileek lanean jarraitzen dute, eta horren adibide da joan den astean Arrasaten egin zuten lurraren aurkako erasoei buruzko hitzaldia.

Salgai daude sanmartinetako herri afarirako txartelak

Uztailaren 5etik 8ra ospatuko dira San Martin jaiak eta azken egun horretan egingo dute herri afaria

I.A.A. ARAMAIO

Dagoeneko salgai daude uztailaren 8an 21:30ean herriko jaietan egingo den herri afarirako txartelak. Hain zuzen, *labur.eus/44MPC* atarian eta udaletxean eros daitezke txartelak.

Helduendako txartelen prezioa hogeieurokoa da eta menu vegetarianoa ere aukeratu daiteke. 10 urtetik beherakoen txartelen prezioa hamar eurokoa da.

Plaza kopurua mugatua da eta uztailaren 3a izango da txartelak erosteko azken eguna.

Lau eguneko egitaraua

Uztailaren 5ean 19:00etan emango zaie hasiera sanmartinei, Anbotoko Mariren etorrerarekin, txupinazoarekin eta bertso-eskolako kideen pregoiarekin. Anbotoko Mari uztailaren 8an agurtuko dute, 23:30ean. Hala, bitarte horretan guztiorretan

egingo dituzte, besteak beste, herriko taldeek kalejirak, hainbat txapelketa, jaioberriei ongi-torria eta kuadrillen arteko desafioa.

Gaueko kontzertuei dagokienez, Bele, Raimundo El Canastero, Sukena, Hankaz Gora, The Clayton eta DJ Ynoxek girotuko dute txosnagunea. Plazan mariatxien emanaldia izango da.

Halaber, Aramaio Udalak Gazte Asanbladak Gazte Eguna antolatuko du uztailaren 4rako. 16:30ean hitzaldia egingo dute, eta, ondoren, grafiti tailerra. 18:30ean, berriz, urrezko gibelaren igoera egingo dute. 20:00etan izango da txosna irekiera, eta DJ Atzuk jarriko du musika.



Egitaraua
ikusteko, eskaneatu
QR kode hau poltsikoko
telefonotik

Lohixak talde berria lanerako gogotsu dator

Herriko hainbat transmaribollok elkartzea erabaki dute, eta izena jartzea taldeari; LGTBI Komunitatearen Nazioarteko Egunean, mobilizatzaera deitu dituzte herritarrak, Atxabalta Harrorekin batera, 'Kolektibo bat, borroka bat' leloarekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Izena duena bada, eta horregatik izena jartzea erabaki dute azken urteetan ere lanean jardun duten hainbat transmaribollo gaztek: Lohixak. Hala, gaur, ekainaren 28a, ekingo dio ibilbideari, jendaurrean aurkeztuta eta taldera batzeko gonbidapena zabaldua.

Batzeko gonbidapena gazteei

LGTBI Komunitatearen Nazioarteko Eguna mugarri izan dute. "Ekainaren 28aren bueltan elkartu izan gara azken hiru-lau urteotan, baina bagenuen hori baino gehiago antolatzeke erronka, herriko jaietan edo urteko bestelako egunetan. Hortaz, urteroko data bazetorrela ikusita izen bat pentsatzen hasi ginen, norabidea finkatzen, izena zehazten..." azaldu dute kideek. Eta hortik etorri da Lohixak: "Historian zehar esanguratsua izan da adjektibo hori kolektiboko jendearendako;



Maider Triviño, Maider eta Ion Ander Urrutia eta Izaro Hernandez. MIRARI ALTUBE

zikinak izan garelako, erlijioak esandakoa ez dugulako jarraitu".

Zortzi-bederatzi lagun elkartu dira, oraingoan, eta haien helburuen artean dago transmaribollo gazteengana gerturatzea: "Mugimendu honen bueltako

talderik ez da izan Aretxabaletan historikoki, ez dugu erreferenterik izan. Horregatik, taldea sortu gura izan dugu oraina zehaztu eta etorkizuna irudikatzeke. Gazteon interesak jarri gura ditugu erdigunean eta he-

rrira zabaldu gure borroka eta interesak, gure ekimenek arrera egin dezaten". Taldea irekia da, edonor gertura daiteke: "Eta horretara gonbidatuko ditugu ekainaren 28aren bueltako ekitaldiekin".

Borroka eta ospakizuna

Kolektibo bat, borroka bat leloarekin mobilizazioa deitu dute Atxabalta Harro elkartearekin batera gaurko; 18:30ean abiatuko da manifestazio hori, Herriko Plazatik.

"Kolektiboko jendeak bai edo bai borrokatu behar dugun arren, gainerakoei ere ardura hartzeko dei egiten diegu; adierazi gura dugu aretxabaletar guztion erantzukizuna dela herri bizigarriagoa eraikitzea. Horretarako aliatuak lortzea da gure helburua", diote Lohixak taldeko kideek, eta gaineratu dute manifestazio ahalik eta jendetsuena gurako luketela: "Erakutsi dezagun mugimendua garrantzitsua dela, herrian ere badagoela horrekin bat egiten duen jendea". Aurrerapausoak eman badira ere oraindik asko dagoela lortzeko diote: "Erasoak eta jarrera homofoboak ez dira desagertu, ezta murriztu ere".

Aldarrikapenak kaleratzeko eguna da ekainaren 28a, baina ospatzeko eguna ere bai: "Urtean zehar egindako gure lanaren berri eman eta hori ospatzea dagokigu". Hala, mobilizazioa bukatutakoan, 21:00 bueltan, jai

giroari ekingo diote Urbaltzen. "Pintxadrag! izenarekin musika jarriko dugu, pikoteoarekin, eta itxuraldatzeko aukera ere emango dugu, gura izanez gero. Mistoa izango da; hau da, kolektibokoak ez den jendearekin ere irekia, baina errespetuz jokatzeko eskatuko dugu, eta ez dira onartuko edozelako jarrerak".

Gaurko ekitaldia mugarri izango da: taldearen sorrera, hain zuzen ere; haien helburua da hasitako ibilbideari urtean zehar ere jarraipena ematea.

Eguneko ekitaldiak

• **18:30** Mobilizazioa: *Kolektibo bat, borroka bat*. Herriko Plazatik abiatuta, kaleetan. Antolatzailea: Lohixak eta Atxabalta Harro taldeak.

• **21:00** *Pintxadrag!* eta pikoteoa*. Urbaltzen. Makillatzeko eta janzteko materiala eraman daiteke. Antolatzailea: Lohixak.

*Ekitaldia mistoa izango da, kolektibokoak ez diren irekia, baina ez dute onartuko inolako jarrera erasokorrik.

Basotxoko presidente jarraituko du Migel Elortzak irailera arte

Zuzendaritzako kide berriak dira Jaime Mujika eta Fermin Arnaiz, eta gidaritzara hartuko duenaren bila dabilta

M.A. ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteak batzar orokorra egin zuen ekainaren 17an, eta 25 batzake elkartu ziren azken berriak jasotzeko. 942 bazkide ditu elkarteak –572 emakume eta 370 gizon–, eta azken urtean 130 bat berri egin dira. Zuzendaritzaren gidaritzaren buru izateko, baina, ez da inor aurkeztu eta Migel Elortza presidentea, bi urte bete arren karguan, irailaren 15a arte jarraituko du. "Orduan bukatuko dut nire jarduna, eta ordezkorik ez badago zuzenda-

ritza batzordeak erabaki behar du zer egin", azaldu du Elortzak berak. Batzordea utzi dutenak Nieves Gonzalo eta Jose Ramon Prieto dira eta haien ordez Jaime Mujika eta Fermin Arnaiz sartu dira. Haiekin batera batzordean geratuko dira kide hauek: Ramiro Gomez, Juan Cruz Diez, Conchi Romano, Emilio Inda, Mari Carmen Corres eta Juan Tomas Zabala.

Egoitza berria, urrirako

Egoitza berriaren lanak uste baino gehiago luzatu dira, baina



Basotxoko zuzendaritzako kideak azalpenak ematen bazkideei batzarrean. M.A.

urrirako gertu izango dutela adierazi zuen Elortzak: "Lanak bukatzeaz daude, eta gero, hornitu egin behar da guztia. Hala ere, Garikoitz Iturbe alkateak esan digu urrirako izango dugula". Egoitza berrian kokatu-

tako erabilera askotariko aretoak "aukera handiak" emango dituela uste du eta azken urtean egin ezin izan diren hainbat ekintza berreskuratuko dituzte: "Ea ordurako zuzendaritza berria osatuta dagoen eta lanari ekinda".

Aretxarteren jaiko bazkarirako txartelak salgai daude

Aretxarte Jaia antolatu du merkatarien elkarteak uztailaren 5erako eta 6rako. Umeendako jolasek –puzgarriak eta apar-festa–, musikak –Danbayan eta Suthai batukadak, Zerendepya taldea eta DJ Txurru– eta jatekoak bat egingo dute, herria jai giroan murgiltzeko.

Zapatuan sagardo kupela jarriko dute Herriko Plazan eta herri bazkaria egingo dute, iaz legez. Herriko sukaldari ezagunek paella prestatuko dute eta txartelak dagoeneko salgai daukate, 4 euroren truke, honako saltoki hauetan: Bedarreta taberna, Tak zapata-denda, Buket, Txillarra, Obeki harategia, Belar Meta eta Dagda taberna.



Mati Garcia baxu-jolea eta abeslaria, Iban Peñacoba bateria-jolea eta Txus Gutierrez gitarra-jolea. ZERENDEPYA

Zerendepya: pausoz pauso bidean aurrera

Aretxabaletako talde instrumentalak girotuko du uztaillaren 5eko iluntzea, Aretxarte merkatarien elkarteak antolatutako jaiaren baitan. Ibilbide luzea duten musikariek hard-rockaren bueltako doinuekin beteko dute Mitarte kalea

Mirari Altube ARETXABAETA

Duela hamar urte elkartu ziren Iban Peñacoba bateria-jolea eta Txus Gutierrez gitarra-jolea Zerendepya izenaren babespean. Ez ziren hutsetik hasi; izenik gabeko proiektu pertsonalak lantzen aurretik zeuden hasita. 2019an, berriz, Mati Garcia baxua eta abeslaria batu zitzairen.

Izena *serendepya* berbatik dator: "Hitz horrek esan nahi du nahi gabe edo kasualitatez egiten den ustekabeko aurkikuntza. Suertatzen da beste zerbaiten bila gabiltzala balio handiko zerbaitekin topo egitea. Hori oinarri hartu eta buelta bat emanda asmatu genuen Zerendepya".

Hard-rockaren bueltan

Talde instrumentala da eta hard-rocketik gertu kokatzen dira: "Estilo asko nahasten ditugu: rocka, funka, folka...". Gitarra-jole eta talde askoren eragina izan dute: bereziki 70eko, 80ko eta 90eko hamarkadetako rock taldeena.

Musikari ematen diote garrantzia: "Oraingoz, musika jarri dugu erdigunean. Eta gure indarrak bideratu ditugu oholtza gainean esperientzia hartzerantz, egiten gabiltzanaz disfrutatzerantz eta ikus-entzuleak disfrutazterantz". Zuzenekoetan abesti propioak eta bertsoak nahasten dituzte: "Guretzat garrantzitsuak izan diren rock abesti klasikoak sartzen ditugu, talde handien abesti ezagunak: Thin Lizzy, Creedence, Gary Moore eta Joe Bonamassa musikariek, adibidez".

Arrasate Blues eta andramaixak

Uztaillaren 5ean Mitarte kalean emango dute kontzertua, 20:00etan, Aretxarte jaiaren barruan. Etxeko emanaldiak beti direla bere-

UZTAILAREN 19AN ARRASATE BLUES JAIALDIAN IZANGO DIRA; ABUZZUAN, ANDRAMAIXETAN

ziak diote: "Batetik, presioa eta erantzukizuna daude; eta, bestetik, gertuko eta zaleen babesa". Eta Aretxarterekin esker oneko agertu dira. Ez da izango etxean emango duten kontzertu bakarra, andramaixetan abuztuaren 16an ere joko dute eta: "Aretxabaletarrak izanik, oso kontzertu berezia izango da".

Hori baino lehen, uztaillaren 19an Arrasate Blues jaialdian izango dira: "Mugarri izango da jaialdi hori etorkizunera begira guretzat, seguru; ezagutzea emateko garrantzitsua izango delako eta jasoko dugun esperientziagatik, zentzu guztietan".

Oraindik ez dute diskorik argitaratu, baina ez dute baztertuta: "Mugak abestia grabatu dugu estudioan eta esperientzia polita izan da. *Kuartela* diskoan dago jasota hori eta hainbat plataformatan entzun daiteke. Materiala badugu sortuta eta etorkizunean album batean jaso gurako genuke, baina, oraingoz, ez da lehentasuna".



NIRE USTEZ

PALOMA MARTINEZ PEREZ

Ikusten nauzunean

Ispiluari begira emakume bat ikusten dut. Egun batzuetan emakume ederra, alaia, zoriontsua; beste batzuetan emakume nekatua, tristea, bakartia, pentsakorra... Baina beti emakume bat. Ispiluak ematen didan islan amatasunaren pisua, denboraren arrastoak argi ikusten ditut. Mexikotik irten nintzenean, isla horretan nire itxuraren berezitasunaz ohartu nintzen. Dena den, oraindik, ispiluaren aurrean lehenengo ikusten dudana emakume bat da. Horregatik harritzen nau hainbeste gizartearen begiradapean etorkina ikusteak lehenengo eta gero... emakumea. Ulertzen dut guztiz lehenengo begiradan aretxabaletarra edo euskalduna edo feminista edo ama edo mendizalea ez identifikatzea edo sailkapen horiek ez izatea nagusiak. Baina emakumearen aurretik kanpotarra ikusteak bai larritzen nau; izan ere, horrek harreman horizontala oztopatzen du. Zeren, orduan, egiten dudana guztia edo ez dudana egiten kanpotar batek egindakoa baita, eta ez emakume batek. Jakin badakit kanpotarra izateari inoiz ez diodala utziko, baina kanpotarra baino lehen, emakumea izan nahi dut. Eta zuk, begiratzen nauzunean, zer ikusten duzu?

San Juan bezperako ekintza batzuk salatu ditu Udalak

"Udal langileen aurkako irainak" eta plaza inguruko bi balkoitan sortutako "arrisku egoerak" aztertuko dituzte

M.A. ARETXABAETA

Ekainaren 23 gauean, Kurtzebarri institutuaren alde batean dagoen "balkoitik jaurtitako irainak" salatu ditu Udalak. "Hainbat momentutan, udal langile horiekiko errespetu falta adierazten zuten hitz eta irainak esan zituzten han zeuden pertsona batzuek", adierazi dute prentsa-ohar bidez, eta gaineratu: "Jarrera hauek onartezinak dira eta herritarren arteko elkarbizitza oztopatzen dute".

Era berean, institutuaren bi alboetako balkoietan sortzen

diren "arrisku egoerak" aztertzen dabilta eta erabaki dute horietara sarrera oztopatzea: "Balkoietako batean baranda bultzatzen ibili ziren. Aurrerantzean, balkoi horietarako sarbidea oztopatu egingo da".

Plaza inguruan sor daitekeen "arrisku egoera oro" aztertu eta lantzeko konpromisoa hartu du Udalak, eta "modu kolektiboan" landu gura dituela adierazi: "Ardura eta konponbideak modu kolektiboan aztertzekeo beharra nabarmentzen dugu, egoera horiek zuzentze aldera".

Kultura emanaldiekin beteko dira kaleak uztaileko eguaztentean

Uztailean kaleko antzezlanek eta dantza eta musika emanaldiek jarraipena izango dute. Datorren eguaztentean, hilak 3, ekingo diete, eta zirkuko akrobaziak eta umorea protagonista dituen *Mute* ikuskizuna eroango du Orain-Bi konpainiak Herriko Plazara, 19:00etan.

Datorren astean, hilaren 10ean, Kamikaz Kolektiboak *Troia* an-

tzezlan egingo du Kurtzebarri eskolako kantuan. Hiru superheroi herrian agertutako objektu misterioitsu bat ikertuko dute orduan. Uztaillaren 17an, ibilbide luzea duen Kresala dantza taldea *Hitaz orhoit* ikuskizunarekin joango da Herriko Plazara, 20:00etan.

Eta uztaileko emanaldiak agurtzeko, Nerea Quincoces buru duen Kuttune folk taldeak *Zerote da?* proiektua aurkeztuko du; hilaren 20an izango da, domeka, 19:30ean, Herriko Plazan.

SANPEDROAK 2024



Eskoriatzako Txoko Feminista inauguratu zuten egunean, herritarrak informazio-gunean. IMANOL BELOKI

Puntu more barik, baina laguntza emateko prest

Aurten ez da puntu more edo arreta punturik egongo San Pedro jaietan. Hala ere, festetarako, erasoen aurkako protokoloa martxan jarri dute herriko talde feministek. Horrekin batera, Eskoriatzako Udalak zenbait ohar jakinarazi ditu jaien ekintzen baitan

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** San Pedro jaiak irauin bitartean, hau da, ekainaren 28tik (18:00) jaiak amaitu arte, eskura egongo da arretarako telefono-zenbakia (666 72 34 33), 24 orduz; herriko feminista taldeek gestioatuko dute.

Laguntza emateko prest

Jaietan erasoren bat gertatzen bada, lehenengo arreta eta laguntza, informazioa eta aholkularitza emango dutela jakinarazi dute Eskoriatzako talde feministetako ordezkariak. Horrez gain, beharrezkoa bada larraldietako telefonora deitzea (112) eta informazio gehiago behar izanez gero ere, emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako informazio eta arreta zerbitzura deitu (900-84 01 11) daitekeela jakinarazi dute. Azpimarratu dutenez, jaietako egitarauarekin batera, erasoen aurkako protokoloa laburbiltzen duen diptikoa bidali dute etxe guztietara, herritarren

eskura egoteko. Horrekin batera, informazioa emateko kartelak jarriko dituzte herrian.

Jakinarazpenak, webgunean

Eskoriatzako Udalak jakinarazi duenez, egitarauan egon daitezkeen aldaketa guztiak *Eskoriatza.eus* webgunean iragarriko dituzte, edo *Eskoriatza* aplikazioan. Eguraldiagatik edo bestelako arrazoiren batetatik egitarauan aldaketaren bat egin ez gero, udal webgunean iragarriko dute, eta aplikazioa instalatuta eta mezuak jasotzeko aukera aktibatuta dutenek aldaketa horren berri ematen duen ohar txoa jasoko dute. Baina horretarako, beharrezkoa da aplikazioaren ezarpenen eremuan

TALDE FEMINISTEK ERASOEN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA JARRI DUTE MARTXAN

Jakinarazpenak jasotzea onartzen dut klikatuta izatea.

Udalaren oharrak

"Autobus zerbitzu berezirik ez da izango; Jose Arana kalea, berriz, gaur 12:00etan itxiko dute eta jaiak bukatu arte, uztailaren 2ko 09:30ak arte, itxita mantenduko dugu; azpimarratu behar da Euskal Jai Eguneko bazkaria plazan egin beharrean errepidean egingo dugula, Jose Arana kalea itxita dugula aprobetxatuz. Bereztasunei dagokienez, umeen danborrada 12:00etan egingo dugu, eta ez arratsalde, orain arte moduan...", adierazi du Arantza Unzuetak, Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikariak.

Zarimutzen ospakizuna

Urtero moduan, Zarimutz elizatean San Pedro eguna ospatuko dute hilaren 29an. 12:00etan meza izango dute, Gesalibarko eta Garagartzako koruak lagunduta, eta ostean luntxa izango dute, trikitilariak lagunduta.

Zuzeneko saioa egingo du Goienak Euskal Jai Egunean

Uztailaren 3a, eguaztena, sanpedroetan jasotakoaren gaineko saio berezia Goiena telebistan

I.B. ESKORIATZA

Gaur emango diete hasiera eskoriatzarrek San Pedro jaiak. Goizean egongo dira ekintzak, baina txupinazoa eta pregoia izango dira ekintza ofizialak sanpedroak hasteko. Hori horrela, Goienak une hori jasoko du balkoitik, eta zuzenean ikusi ahal izango da *Goiena.eus* atarian.

Txupinazoko unea jasotzeaz batera, asteburuan ekitaldi ugari jasoko dituzte. Uztailaren leian, berriz, zuzeneko saioa egingo dute, Amaia Txintxurreta eta

Aitor Agiriano kazetarien eskutik. Biak arituko dira, kamerariak lagunduta, talogileak, herritarrek eta, bereziki, dantza taldekoak elkarrizketatzen. Izan ere, zuzenekoak 13:00etan izango da, musika eskolako dantza taldeko txikienen saioa hasitakoan. Grabatutako irudi eta elkarrizketek gain, garabia jarriko dute, irudi ederragoak lortzeko asmoz. Eskoriatzako jaietan jasotako bilduma osoa uztailaren 3an, eguaztena, emitituko dute, 19:00etan, 21:00etan eta 23:00etan, Goiena telebistan.

GORA ETA BEHERA



Teilatu-hodiak txukuntzeko lanak egin dituzte

Joan den astean, kultura etxeko eraikinaren bueltako teilatu-hodiak garbitu eta horietakoren batek aldatzeko beharra bazuen aldatzen izan ziren zenbait langile. Aspalditik hodiak aldatu gabe, belarrez eta hostoz beteta zeuden, eta, aldarnioak jarrita, fin-fin aritu ziren.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo ☎ 688 69 00 07.



Frutería MARTIN Frutateria

FRUTAN ETA TXARKUTERIAN ESPEZIALISTA

San Juan kalea 12, behea Tel. 652 77 53 58

30 domina irabazi dituzte Euskadiko txapelketan

Atama Eskoriatza Taldeko kideek ikasturtea amaitzeko Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketak jokatu dituzte, eta emaitza bikainak lortu. Horrekin batera, Open Axtroki borroka txapelketarako izen-ematea irekita dagoela gogorarazi dute

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Euskadiko eta Gipuzkoako borroka txapelketak jokatu ziren ekainaren 16an Hondarribian, eta bertan izan ziren Atama Eskoriatza taldeko kideak. Gainera, emaitza bikainekin bueltatu dira; izan ere, kadete, gazte eta senior mailetakoa aritu ziren parte hartzen, eta urrezko hamahiru domina, zilarrezko hamaika domina eta brontzezko sei domina lortu zituzten, kata, kobudo, goshin eta semikenpo modalitateetan.

Erreleboa, bermatuta

Atama Eskoriatza Kenpo klubeko hamalau kirolari aritu ziren bertan, guztira, eta, haiekin batera, Atama Eskoriatza taldeko Arienne Piñero, Jose Luis Carrero, Joseba Izurragi eta Rafa Carriet epaile lanetan aritu ziren.

"Atama Eskoriatza klubeko kirolari guztiek txapelketa ederra egin zuten Hondarribian, eta horren frogara da guztiek lortu zutela podiumera igozea; egindako lan ona adierazgarria da, eta belaunaldien arteko erreleboa bermatuta dagoela eta etorkizunerako proiektio handia dutela erakutsi zuten borrokalariek", adierazi du Rafa Carrietek, Atama Esko-



Atama Eskoriatza taldekoak, Euskadiko txapelketa amaitu ostean. RAFA CARRIET

riatza Kenpo taldeko entrenatzaileak.

Open Axtroki txapelketa

Hurrengo hitzorduari dago kienez, uztailaren 6an lehenengoz jokatu da kenpo eta kenpofightmma diziplinen Axtroki opena. Esperientziarik gabeko borrokalariei zuzendutako lehiaketa izango da, Manuel Muñoz kiroldegian jokatu dena, 10:00etan hasita. "Txapelketa horretan kenpo tradizionalaren, katen, kobudoaren eta goshinaren -defentsa pertsonala-

lehiaketak egingo dira, baita borroka, semikenpo, submission eta kenpofightmma modalitateak ere", dio Carrietek. Gaineratu duenez, txapelketan 100 lehiakidetik gora batuko dira: "Asturias, Andaluzia, Aragoi, Katalunia, Galizia, Euskadi, Madril eta Nafarroako lehiakide-taldeak ditugu; guztira, 100 lehiakide baino gehiago". Sarrerak salgai daude eta eskuratu nahi dituenak kenpofulldefense@gmail.com helbidera idatzi edo [whatsapp](https://www.whatsapp.com)-a bidali dezake 627 442 142 telefono-zenbakira.



Gatzagako antzerki taldekoak ikasturte amaierako emanaldian. EIDER SANZ

Antzerki eskolarako matrikula ireki dute DAPeko kideek

Antzerki taldean parte hartzeko interesa duenak 'dantzerkiplat@gmail.com' helbidera idatzi dezake

Imanol Beloki GATZAGA

Debagoieneko Antzerki Plataformak Gatzagako antzerki eskolarako matrikula ireki du 2024-2025eko ikasturtera begira. Urritik ekainera arte izango da ikasturtea, eta haurrei zuzenduta egongo dira saioak.

Aurten osatu da antzerki taldea eta gustura aritu dira haurrak ikastaroan. Gainera, herri-tarren aurrean ere egin dute ikasturte amaierako ekitaldia. Hala, aurten bezala, egubakoitzetan 17:30etik 18:45era batzea da asmoa, erabilera askotariko espazioan.

Izena emateko bidea

Antzerki taldea osatzeko, sei pertsonak egon beharko dute gutxienez, eta gehienez hamaiki laguneko taldeak osatu nahi dituzte DAP plataformako kideek. Gaineratu dutenez, taldeko ezaugarrien arabera adin-muga aldatu daiteke, eta ordutegia aldatzeko aukera ere egon liteke, behin taldea osatuta; horrekin batera, ez da derrigorrezkoa antzerkian esperientzia izatea. Interesa duenak dantzerkiplat@gmail.com helbide elektronikora idatzi dezake.

Tantaia igota eta sua piztuta

Aurtengo San Juan sua 2007. urtean jaiotako eskoriatzarrek piztu dute Fernando Eskoriatza plazan. Urte hartan jaiotako 49 lagun inguru batu ziren atzo, eta 22:00etan tantaia jaso ostean, 22:30ean piztu zuten sua. Ekitaldia Eskoriatzako txistulariek egin zuten erromeriarekin eta suaren bueltan egindako San Juan dantzarekin amaitu zen.



ALAZNE URKIA



JUAN LUIS ZABALA

Usadioari eutsiz, su ederra piztu

San Juan sua piztu zuten domekan gatzagarrek San Migel enparantzan. Bola txapelketa herrikoia jokatu zuten, lehenbizi, Eugenio Otsoa bolatokian; jatekoa eta edatekoa mahai gainera atera, eta gero su ederra piztu zuten, espiritu txarrak uxatzeko. Juan Luis Zabala Mallabi herritarra aritu zen erretratuak ateratzen.

Tradizio eguneratuaren ondorio den festa berezia

San Martzial eguna da domekan, aspaldiko ohiturari jarraiki bergarar askok oso modu berezian bizi duten erromeria kutuna eta garai berrietara egokitzen jakin duena. Udalak 128 mahai eta 981 aulki alokatu ditu, eta eguna "errespetuz gozatzeko" dei egin dute

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA San Martzial egunean bertan, ekainaren 30ean, ospatuko da aurten urteko erromeriarik kutunena San Martzialgo ermita azpiko zelaietan. Bergarar askok egutegian gorritz markatuta duten eguna da domekakoa, eta Udalak mahaiak eta aulkiei dagokienez jaso duen eskaria ikusita ondoriozta daiteke aurten ere giro ederra egongo dela San Martzialen. Izan ere, herritarrek 128 mahai eta 981 aulki alokatu dituzte erromeria bereziaz gozatzeko.

Inguru zaintzeko eskaera

Azken urteetan erromeria amaitu ostean San Martzialgo inguruak oro har txukun geratu izan bada ere, Udalak gogora ekarri du "denona" den naturagunea errespetatu beharra dagoela. Horregatik, honako gomendio edo eskaera zehatz hauek egin dituzte. Hasteko, eremuko landaretza zaindu behar dela gogoratu dute: "Ez ezazu zuhaitz adarrik edo hostorik apurtu eta gogoratu enborretan ezin dela elementu arrotzik erabili -iltzeak eta bestelakoak-. Zuhaitz hilei bizitza darie; beraz, zuhaitz horiek ere daudenetan laga". Horrez gain, gogora ekarri dute ezin dela lurra leunduz terra-

zarik egin, ezin dela lurtean surik piztu eta iturrian ezingo dela harrikorik egin. Gainera, sortutako hondakin guztiak dagozkion edukiontzietan batzeaz gain kuadrilla bakoitzak erabiliko duen gunea ere txukun uzteko eskatu dute, aulkia, mahaiak, tresneria edota eremua mugatzeko zintak jasoz.

Oinez edo herribusean igo

Domekarako San Martzialerako herribus zerbitzua jarriko dute egunean zehar 09:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30era. Geltokiak Oxirondo plazan eta San Martzialen egongo dira. Zerbitzuaren prezioa 1,10 eurokoa izango da bidaiako; bonuarekin, aldiz, hamar bidaiak sei eurotan



Zaborrontzia, zelai nagusian; zintak jarri daitezke gaur, 15:00etatik aurrera. EA.

Lekua gorde daiteke gaurtik (15:00)

Erromeria egunaren aurretik kuadrillek ohitura dute eremua zintekin gordetzeko, baina hori ere arautu behar izan du Udalak: "Erreserbazintak ezingo dira jarri ekainaren 28ko 15:00ak baino lehen. Ordura artekoak kendu egingo dira mantentze-lanek eskatzen duten heinean".



Iazko ospakizunaren une berezietako bat, eguerdiko dantza emanaldia. MIREN

erosi ahalko dira. Horrek esan nahi du San Martzialerako bidea trafikorako itxita egongo dela 10:00etatik 11:00etara eta 21:00etatik 22:00etara. Gainera, egun horretan ezingo da zelaira aurtorik sartu, bertara jeneroa daramatanak izan ezik; izan ere, deskargatu eta berehala atera beharko dituzte ibilgailuak.

"Errespetuz gozatzeko" deia

Udalak, bestalde, erromeria "errespetuz gozatzeko" dei egin du: "Jai eredu osasungarriaren alde, bizi ditzagun jaiak aske eta elkartasunean, kontsumo arriskuak alde batera utziz. Errespetu ditzagun geure burua, besteak eta ingurua". Era berean, aurtengo Pentekosteetan martxan jarri dute *Aske maite haut* kanpaina ere presente egongo da sanmartzialerako, eraso matxistei aurre egiteko protokoloarekin.

Bestalde, aurten Palestinaren alde aterako dute elkartasun argazkia dantzen ostean (13:00), *Israelgo estatua hiltzailea, Palestina askatu!* lelopean.

Meza erromeria egunean

Udalak aurten San Martzial jaietarako bideratu duen aurrekontua 27.000 eurokoa da. Egitarauari dagokionez, aurten San Martzial eguna erromeria egun berean izango dela aintzat hartuta, Santa Marina parrokiako kanpai-jotzearen ostean, 07:30ean, fededunak letania errezetatuz igoko dira ermitara. Ermitan meza entzun ostean, txokolate-jana izango dute San Joxepe elkartearen eskutik.

Egitarauan ez dago nobedaderik, baina jakinarazi dute suziariak honako ordu honetan botako dituztela: 10:00etan, 11:45ean, 12:00etan eta 21:00etan. Bolatokia 11:00etatik aurrera egongo da zabalik, eta txapelketa 17:00etan jokatu da -izena bertan eman behar da, bost euro ordainduta-. Hiru sari egongo dira, eta ezusteko laugarren sari bat.



San Martzial jaietako egitaraua ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.



NIRE USTEZ

ALEX ARTEAGA

Zer da nortasuna?

Bizia zainetatik ziztu bizian doan sententzia daukat azkenaldi honetan. Abiadura bizian bizi garela eta bidean bizitako hainbat istorio lausotuta gogorarazten ditugula. Gogotsu bizi nahi izan eta dena egin nahi izatearen egarriagatik, akaso? Gure izatea ahalik eta elikatuen mantentzeko? Ausartuko nintzateke esaten izate aseezinak garela.

Etengabeko gosete batek jaten gaituela. Baina badakigu nortzuk garen? Zer ikasi dugun bidean? Oroitzen gara?

Azken bolada honetan galdera hauei erantzun bat topatzen saiatu izan naiz. Ene izatetik, bidean emandako pausoetatik.

Izan ere, bidean garatu dugu gure nortasuna, gure izaera. Bideak egin

gaitu, bidaiak eratu gaitu. Eroriz eta jaikiz. Ahantziz, erratuz. Etengabe pauso berak emanaz. Errepikatuz. Eta hala beharko luke, nahiz eta bidezidorretan galduko garen tentazioa izan.

Izan ginenaren eta izango garenaren arteko disonantzia bada bidea, jan dezagun lasai eta elikatu gaitetzen tinko eta fermuki.

Margolanez osatutako 'Sinkroniak' izeneko erakusketa Aroztegin

Juan Manuel Arruabarrena margolariak *Sinkroniak* erakusketa irekiko du gaur Aroztegi aretoan (19:00), eta uztaillaren 14ra arte egongo da ikusgai; askotariko margolanak dira. Honela azaldu du egileak erakusketaren funtsa zein den: "Helburu nagusia da ikuslearekin lotura esanguratsua ezartzea nire adierazpen artistikoaren bitartez".

Euskadiko Orkestra ere, organoaren alde lanean

1889ko Stoltz Freres organoaren mantentze-gastuetan laguntzeko, kontzertua emango du Euskadiko Orkestrak irailaren 6an San Pedro elizan (19:30). Orkestrako zuzendari Oriol Rochen arabera, "plazera eta betebeharra" izango da Bergaran seigarren aldiz jotzea

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Euskadiko Orkestrak kontzertu berezia emango du irailaren 6an San Pedro elizan, 19:30ean hasita, Stoltz Freres organoarentzat dirua batzeko. Sarrerak laster jarriko dituzte salgai, hamar eurotan; seminarixoa.eus webgunean erosi ahalko dira eta egunean bertan eliza atarian ere egongo dira salgai sarrera batzuk.

Organoaren mantentzerako

Euskadiko Orkestra Bergarara etorriko den seigarren aldia izango da irailaren 6koa, eta, esandako moduan, oraingoan helburu oso zehatz baten bueltan emango dute kontzertua San Pedro elizan: kontzertuan batuko den diru guztia bideratuko dute Stoltz Freres organoaren mantentzera. Baina ze mantentze-lan dira, zehazki? Honako hau erantzun du Stoltz Freres Organoaren Lagunak Elkarteak kide Iñigo Alberdik asteon egindako prentsa agerraldian: "Organoaren zaharberritzea bidean dago, eta ordainduta. Mantentzera begira konponketa txiki batzuk falta dira, eta behin organoa guztiz zaharberritzen denean elizako koruari pipiaren aurkako tratamendua ere eman zehar zaio; izan ere, arriskua dago denboraren poderioz pipiak organoari eraso egiteko".

Organoaren inaugurazioa, azaroko Organoa, bi urte eta erdiz Frantzian modu artisauan konpontzen eta berritzen egon ostean, 2024ko apiril hasieran heldu zen San Pedro elizara. Hain zuzen ere, bihar Bergarako Orfeoia Ganbera orkestrarekin batera emango duen *Adoro Te Devote* izeneko kontzertuan Mozarten *Ave Verum* pieza joko du Aitor Olea organo-jole titullarrak, aurrerapen moduan, baina oraindik ez dago erabat zaharberrituta. Hortaz, noiz inauguratuko dute organoa



Organoaren aldeko Euskadiko Orkestraren kontzertua iragartzeko agerraldia. J.B.L.

%100eko sonoritatearekin? 2024ko azaroko izango dela zehaztu du Alberdik: "Organoaren %20 dago muntatuta orain bertan. Aurreikusten dugu azaroko inauguratu ahalko dugula organoa; bitartean, San Pedro eta San Martin egunak data bereziak izango dira, motzean bada ere organoa entzun ahalko delako. Aitor Olea gure organista titullarrak ia egunero jotzen du".

Hain zuzen ere, 2014a ezkerko Euskadiko Orkestrako zuzendari nagusi den Oriol Roch jarri zen harremanetan lagun duen Iñigo Alberdik ere Euskadiko Orkestrako zuzendari izan zela, komunikabideetan ikusi ostean Stoltz Freres organoa berritzen ari zirela, eta euren burua eskaini zuten organoaren aldeko kontzertu hori emateko. Rochek badaki-eta Bergarako bereziki musika-zalea den pu-

'SEMINARIXOA.EUS' ATARIAN JARRIKO DITUZTE SARRERAK; EGUNEAN ERE ELIZAN EGONGO DIRA SALGAI

blikoa dela: "Bergarako publikoa oso musika-zalea da; hor dago euren Stoltz organoarekiko erakusten duten maitasuna eta debozioa. Bergarako musikarekin duen tradizioa oso berezia da, eta hori historian zehar erakutsi dute hainbat ekitaldirekin eta herrian dauden askotariko eragileekin. Horregatik, Bergaran egotea eta Bergarako publikoa asebate ahal izatea plazer handia da guretzat; plazera, eta betebeharra".

Artola: "Sekulako aukera da"

Astelehen goizean Bergarako udaletxean egindako prentsa agerraldian, Gorka Artola alkateak esker ona adierazi zion orkestrari eta organoaren berreskurapenaren alde lanean diharduen herriko elkarteari, eta nabarmendu du gauzak egiteko beste modu batek ahalbidetu duela elkarlana: "Organoaren berreskurapen lanak elkarlanean abiatu ziren eta orain Euskadiko Orkestrak beste aletxo bat jarriko du elkarlan horretan. Sekulako aukera da Euskadiko Orkestra Bergaran izatea; are gehiago, herriko ondarearen babeserako bada".



EAJk aurkeztutako adierazpenaren irakurketa, asteleheneko osoko bilkuran. J.B.L.

LGTBI kolektiboaren eskaerak bere egin ditu udalbatzak

Gaurko Harrotasunaren Egunaren bueltan adierazpena onartu zuten aho batez asteleheneko osoko bilkuran

J.B.L. BERGARA

Gaur, ekainak 28, LGTBI kolektiboaren, Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren Aldeko Nazioarteko Eguna dela-eta, Jaurlaritzako Berdindu! zerbitzuaren adierazpena aurkeztu zuen EAJk asteleheneko osoko bilkuran, eta udalbatzak aho batez onartu zuten. Besteak beste, adierazpenak azpimarratzen du LGTBI kolektiboaren borroka "guztion" borroka dela: "Ezin dugu onartu gorrotoa eta intolerantzia nagusitzea. Gaur, inoiz baino gehiago, gure aniztasunean bat egin behar dugu, pertsona guz-

tiok duintasunez, errespetuz eta askatasunez bizi ahal izango garen etorkizuna eraikitzeko".

"Atzerapausorik ez"

Era berean, LGTBI kolektiboak argi utzi du atzerapausorik ez dutela onartuko: "Sexu eta genero-aniztasunak gizarte moduan aurrera egiteko aukera ematen digu. Aniztasun hori ospatzea, justizia-ekintza izateaz gain, komunitate gisa aberas-teko aukera ere bada. Ez dugu atzerapausorik onartuko ehunka lagun ahaleginari esker lortutako eskubideetan".

Bidegorrirako obren ondorioz, bide zati bat itxita lau hilabetez

Ibargarai eta San Antonio lotzen dituen bidean bidegorri zati berrirako obrak direla eta, errei bat guztiz moztuta egongo da obrek iraungo duten lau hilabeteetan. Itxita egongo den noranzkoa herri barrurakoa denez, lanak hasitakoan, Antzuolatik datozen autobusek saihesbidetik joan beharko dute, eta Ibargarai bide berrirako bide zati hori barrurakoa denez, ingurabidea egongo da Mintegi kaleetik igota, eta palmerako biribilgunera joan beharko dute Antzuolatik Bergararantz sartzen diren ibilgailuek, gehienez hogeitona dituztenek. Dena seinaleztatuta egongo da eta udaltzainen presentzia indartu egingo da.

OHARRAK

Zinegoak proiektzioa

LGTBIQ+ Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoaren Zinegoak jaialdia Seminarixora helduko da gaur, 20:00etan. Sei film labur ikusi ahalko dira; sarrera doakoa da.

Laboratorium museoa

Uztailaren 1etik urriaren 11ra, *Automatak: mekanismo magikoak* izeneko erakusketa bisitatu ahalko da, eta bisita gidatuak ere prestatu dituzte: www.laboratorium.eus.

Dirulaguntza: euskara

Udan euskara ikasi edo ikasketa osagarriak euskaraz egiteko laguntza eskatu daiteke, irailaren 15era arte: www.bergara.eus.



Euskal Herriko Txapelketan parte hartu zuten igerilariak. ASIER PEREZ

Maila ona erakusten ari dira igerilari gazteak

Gipuzkoako alebin eta infantil txapelketetan banakako hamalau domina lortu dituzte bergararrek, eta Euskal Herriko alebinen txapelketan urrezko domina bat. Ane Alberdi, berriz, Espainiako Open Trials txapelketan lehiatu da eta emaitza onak lortu ditu

Gontzal Belategi Zubia BERGARA

Igeriketa goranzko joera hartzen ari da Bergaran. Urte txarrak atzean utzita, indarra hartu du berriro herriko igeriketa taldeak. Indar horren erakustaldi nabarmentzen ekainean jokatu dituzten txapelketetan igerilari bergararrek lortu dituzten emaitzak dira.

Gipuzkoako Txapelketa

Ekainaren 15ean eta 16an jokatu zen Gipuzkoako alebin eta infantil txapelketetan izan ziren Bergara Igeri Elkarteko kideak, eta, guztira, banakako hamalau domina lortu zituzten. Horieta-rik bi domina urrezkoak izan ziren, bost zilarrezkoak eta gaintzako zazpiak, brontzezkoak.

Olinpiar Jokoetatik gertu

Bergarako igeriketaren egonkortzea talde-lana izan dela gauza jakina da, baina trebakuntza horrek izen propiorik badu, hori Ane Alberdirena da. Igeri Elkarteko kidea Mallorcan jokatu zen Espainiako Open Trials Astralpool txapelketan izan zen ekainaren 17 eta 22 artean; txapelketa har-

tan erabaki zen ze igerilarik parte hartuko duten Parisen jokatu diren Olinpiar Jokoetan.

Lau modalitatetan lehiatu zen Alberdi: tximeleta estiloko 50 metrokoan, estilo libreko 50 metrokoan, estilo libreko 100 metrokoan eta bizkar estiloko 50 metrokoan. Emaitza eta denbora onak lortu zituen bergararrak. Bereziki nabarmentzekoa da tximeleta estiloko 50 metrokoan eta estilo libreko 50 metrokoan eskuratutako emaitza: 2008koen artean seigarren geratu zen lehenen; eta laugarren bigarrenen. Asier Perez entrenatzailea oso pozik dago emaitzekin: "Entrenatzaileontzat zein taldearentzat ikaragarria izan da".

Euskal Herriko txapelketa

Ekainean izandako azken txapelketa Euskal Herrikoa izan da; alebin mailakoa, zehazki. Ekainaren 22an eta 23an jokatu zen, eta bertan bakarkako domina bat eskuratu zuen Igeri Elkarteko kide batek.

Hurrengo txapelketak

Bihar eta etzi jokatu dute taldeko kideek infantilen Euskal Herriko Txapelketa, Galdakaon. Uztailaren 6an eta 7an, berriz, Gipuzkoako junior eta absolutu txapelketak jokatu dituzte, Tolosan. Denboraldia amaitzeko, junior eta absolutu mailetako txapelketak jokatu dituzte, uztailaren 20ean eta 21ean, Ordizian. Hala ere, Perezen arabe-

ra, baliteke tartean beste lehiaketa bat ere izatea: "Asteburu honetan, taldeko bi kide Espainiako Txapelketara pasatzeko gutxiengotik gertu daude, eta lortzen badute uztailaren 16an Sabadellera ere joango ginatete".

Taldearen biziberritzea

Perezek "dominak baino gehiago urtean zehar egindako lana" baloratzen du. Ez da gutxiagorako, elkartearen eta igerilarien esfortzuarri esker taldea biziberritzea lortu dute eta. "Urte askoan Bergarak ez du maila onik izan. Azkenaldian lana ondo egiten gabilta eta horrek emaitzak ekarri ditu". Urte haietan taldea "kili-kolo" egon zela dio entrenatzaileak, baina egindako esfortzuarri esker "elkartean 105 pertsona egotea" lortu dutela.

Taldearen egonkortzea funtsezkoa izan da emaitzak hobetzeko, igerilariak elkarri laguntzen direlako: "Jende gabe zaila da emaitza onak izatea". Hala ere, fase berri honetan arazo bat antzeman dute: gizonezkoen falta. "Gizonezko askok futbola eta igeriketa egiten dituzte batera, eta DBHra heltzen direnean futbola aukeratzen dute".

GAUR EGUN, 105 IGERILARI INGURU DAUDE ELKARTEAN SARTUTA; GEHIENAK, EMAKUMEZKOAK



UDAKO FUTBOL CAMPUSA

Martxan da futbol campusa

Astean eman diote hasiera udako futbol campusari; zehazki, ekainaren 24an. Uztailaren 19ra arte iraungo du ekimenaren seigarren edizio honek. Ohiko udalekuetatik aldentuta, gazteek udako aisialdian futbolarekin eta futbolaz gozatzeko aukera izateko

helburuarekin sortu zuten campusa, eta urtez urte geror eta arrakasta handiagoa du. Aurten, 2009 eta 2015 artean jaiotako 230 umek eman dute izena. Edozelan ere, astez aste kopuruak aldatuz joango dira, ume guztiek ez dituzte-eta lau asteak egingo.

Guztia prest dago Udako Futbol Txapelketako finalak jokatzeko

Gaur jokatu dituzte final guztiak: emakumezkoen ligakoa, liga mistokoa eta kopa mistokoa

G.B.Z. BERGARA

Gaur jokatu dituzte, Agorrosinen, Udako Futbol Txapelketako hiru finalak: 18:00etan izango da Txutxufletas eta Amama & Co aurrez aurre jarriko dituen emakumezkoen ligako finala; ordu berean kopa mistoko finala jokatu da, LH Artaldea eta Leones de Montepinar taldeen artean; 19:00etan, berriz, liga mistoko finala izango da, Arabes eta Txepetxak taldeek jokatu dutena.

Finalen ostean sari banaketa egingo dute. Bakarkako sariak

banatuko dituzte lehenengo: atezain onena, gol gehien sartu dituen jokalaria eta jokalaria onena. Ostean, bi liga eta kopako txapeldun eta txapeldunordentzako sariak banatuko dituzte.

Finalerako gogotsu

Finalak jokatzeko gogotsu daukela adierazi du Andoni Breña antolakuntza taldeko kideak. Horrekin batera, txapelketa antolatzeak dakarren lana azpimarratu du: "Lana da. Egunero 17:30etik 20:00ak arte egoten gara bertan".

Okinaren artelanak katalogatzeko lanean

Miguel Okinaren jaiotzaren mendeurrenarekin lotuta ekintzak antolatu dituzte, eta bat da haren lanen artxibo digitala osatzea; aurrez, lanak biltzeko lanean dabilta Beart elkarte kide Josu Okina, Bingen de Pedro, Antton Arrillaga eta Xabier Agirre

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Miguel Okinaren (Bergara, 1924-2021) koadroak biltzeko lanean jarraitzen du bergararraren obrak katalogatzen dabiren batzordeak; Bearteko kide Josu Okina, Bingen de Pedro, Antton Arrillaga eta Xabier Agirre dira batzordekideak dira horiek, eta Miguel Okinaren lanen bat etxean dutenei eskatu diete eurekin harremanetan jartzeko.

Miguel Okinaren iloba Josu Okinak esan du osabaren artelanen 2.000 argazki baino gehiago dituela –osabak 4.000tik gora lan egingo zituela uste du—. Gabonen bueltan hasi ziren bilketarekin, eta, dagoeneko 950



Josu Okina, Miguel Okinaren 1983ko autorretratuarekin. JOKIN BEREZIARTUA

lokalizatuta badituzte ere, uste baino jende gutxiagoren lanak jaso dituztela dio Okinak: "Materiala badaukat, baina horietako asko ez dakit nork dauzkan. Horregatik gabiltza eskatzen jendeari etxean dituen lanak bidaltzeko", dio Josu Okinak. Lan gehienak Eibartik hasi eta Eskoriatzara bitartean egongo direla gaineratu du. Obra gehienak sinatuta daude.

Mendeurrenean omenaldia

Katalogatutako obrak Bergarako udal artxiboan jasotzea dutela helburu azaldu du Xabier Agirrek: "Gordeta gera dadila bizitzan zehar ze lan egin ziten". Hala, obrak bidaltzeko epemugarik ez dago: "Katalogazioaren lana ez da amaitzen. Ez dakizu non eta noiz aurkituko diren".

2021eko ekainaren 5ean zendu zen Miguel Okina, eta Bearteko kide Agirrek azaldu du orduko koronabirus neurriekin ezin izan zutela hileta "duinik" egin, eta irailaren amaieran, haren jaiotza-dataren mendeurrenean, hasiko dira bergararra omentzeko ekintzak.

Batzordekoen kontaktuak

Miguel Okinaren lanak dituztenei batzordearekin harremanetan jartzeko eskatu dute; hasiera batean nahikoa izan daiteke mugikorarekin argazki bat ateratzea, baina, koadro ezezagunen kasuan, jabeekin harremanetan jarriko dira katalogaziorako datuak osatzeko: formatua, teknika, urtea, kontserbazio-egoera...

Harremanetarako datuak

- **Josu Okina**
676 67 82 43
josuokina@gmail.com
- **Bingen de Pedro**
670 60 70 26
bingendepedro@gmail.com
- **Antton Arrillaga**
646 90 68 85
a.arrillaga@telefonica.net
- **Xabier Agirre**
615 79 72 62
agirreunamuno@gmail.com

RPS: 73/23



Presta zaitez udarako!



Eguzkitako betaurrekoak %30eko deskontua

 **Manso Optika**

www.opticamanso.com • 943 76 27 86 • Irizar pasealekua 2 • Bergara

Lizarraga eta Kalebarren, desafioan San Martzialen

Bospasei pertsonako taldeak osatuko dituzte bi auzoetan, eta domeka arratsaldean arituko dira jokoan, San Martzialgo jaietan; auzoen arteko harremana bultzatzea da helburua. Bestelako ekintzei dagokienez, ohikoak diren ekintzak antolatu dituzte

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

San Martzialgo jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan, bihar eta etzi, Lizarragako auzotarrek, eta berritasun bat izango dute aurten, bi auzoren arteko desafioa egingo baitute domeka arratsaldean, 18:00etan hasita. "Zerbait antolatu behar genuen, gauza ezberdinak egin ohi direlako domeka arratsaldean, eta auzoen arteko desafioa egitea otu zitzaigun. Kalebarrengogana jo genuen, antolatuta baitaude; gainera, gainontzeko baserri-auzoetakoekin egitea ia-ia ezinezkoa da, ez dagoelako jende askorik parte hartzeko eran", azaldu du Onintza Legoburuk, San Martzialgo Jai Batzordeko kideak.

Hain justu, bospasei auzotar elkartuko dira auzo bakoitzetik elkarren aurka egiteko desafioan; gehienak gazteak izango dira, baina zaharragoek ere parte hartu nahi izanez gero ez dago arazorik, Legorbururen hitzetan. Elkarrekin bazkalduko dute, lehendabizi, San Martzialen, eta, ondoren, jokoan hasiko dira. "Hiruzpalau egingo ditugu, zehaztu gabe dauden arren: kaskara batzea, aulki jokoak, zaku lasterketa, zapia batzera...". Hala, auzoen -eta auzotarren-



Sanmartzialetako afaria iaz. GOIENA

HIRUZPALAU JOKO EGINGO DITUZTE: AULKI JOKOA, KASKARA BATZEA, ZAKU LASTERKETA...

arteko harremana bultzatzea dute asmoetako bat.

Bestelako ekintzak

Jaietan izango diren gainontzeko ekintzei dagokienez, ez da apartekorik izango, ohi direne-

kin osatu baitute egitaraua. Plater jaurtiketako probekin ekingo diete festei bihar goizean, arratsaldean izaten baita lehia-keta, eta umeen krosa, txokolate-jana, herri afaria, erromeria eta su artifizialak izango dira ondoren.

Etzi ere ohiko ekintzak izango dira jaietan, desafioaz harago: egunsentikoa txistulariekin, San Martzialgo txirringularitza igoe-ra, meza eta salda, dantza saioa, herri bazkaria, erromeria, urdaiazpikoaren zozketa eta jaien amaiera suziriekin.

Alardeko entseguak egingen hasiko dira datorren astean

Uztailaren 20an, zapatuan, egingo da aurten Mairuaren Alardea, eta datorren astean hasiko dira entseguekin: uztailaren 2an, martitzenean, danbor-joleen txanda izango da, Torresoroa aretoan, 18:00etan. Uztailaren 10ean, berriz, danbor-joleek eta txistulariek ez ezik entseguak izango dituzte mairuaren musikariek eta buruzagiak, mairu erregeak, mairuaren guardiek, estandartedunek eta banderadunek. 18:00etan izango dira saio horiek, Torresoroan eta Olananen, eta 19:00etan entsegu orokorra egingo dute, Herriko Plazan. Uztailaren 17an ere, eguaztena, beste entsegu orokor bat egingo dute, 19:00etan.

Laguntza eske 'Gerra zibila Antzuolan' ikerketa osatzeko

Gerra zibila Antzuolan lana oztzen ari da Iñigo Ramirez de Okariz historialaria, eta dokumentazioa biltzeko laguntza eskatu die herritarrei. Hala, etxean materialik -dokumentuak, argazkiak, ahozko testigantza...- izanez gero, harekin harremanetan jartzeko aukera dago: antzuokariz@gmail.com edo 615 73 16 19 telefono-zenbakia.

Jubilatuaren bazkarian izena eman daiteke hilaren 4an eta 5ean

Landatxo jubilatuta eta pentsiodunen elkarrekin antolatuta, bazkaria egingo dute uztailaren 14an, domeka, eskolako patioan. Izena eman behar da aurrez, eta uztailaren 4an eta 5ean egongo da horretarako aukera, elkarrekin lokalean, 16:30etik 18:00etara. Hamar euroko prezioa du eta 14:15ean izango da otordua. Menuari dagokionez, honako hau da: entremesak, hegaluzea eta txerri-saiheskia parrillan eta postrea, edariak eta kafea barne. Horrez gain, bi ekintza egingo dituzte bazkalostean: batetik, ohioka den moduan, zapia jarriko diete bazkaltzen dauden bi pertsona nagusienei; bestetik, dantza saioa izango da.

Txirringulari proba dela-eta, kale batzuk itxiko dituzte bihar

Lokatza txirringularitza elkarrekin antolatuta, eskolarteko txirringularitza proba jokatu da bihar, ekainak 29, Antzuolan. Ondorioz, lasterketak iraun artean, 16:00etatik 17:30era, itxita egingo dira ibilbideko kaleak: Herriko Plaza, Buztinuzuri, Kalegoiko bidegurutzeta, Sagastiko biribilgunea, Sagasti, Aiherra eta Kalebarren.

NIRE USTEZ



IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA

'Hablame en cristiano'

Elkar ulertzeko moduan hitz egitea edo denek ulertzen duten hizkuntzan aritzea adierazi nahi du izenburuko adierazpenak. Gaztelaniaz hitz egitea ere esan nahi du, Espainiako Errege Akademiaren (RAE) arabera, nahiz eta niretzat, behintzat, gaztelaniaz hitz egitea espainolez hitz egitearen sinonimoa ere izan.

Frankistek eragindako errepresio mota askotarikoen artean, kulturala bereziki krudela izan zen, euskararen ezagutza eta erabileraren kalterako eta euskaraz bizi nahi dugunon bazterketarako.

Esku artean dut, hain justu, Antzuolak euskararen erabileran izan duen jaitsieraren datua. Arrazoiak eta errudunak anitzak izanik, gaitza, zoritxarrez, gu bezalako arnagune edo herri txikietan ere hedatu da, eta egoerari irteeraren bat aurkitu beharrean gaudela uste dut; izan ere, auziari heldu ezean, beldur naiz ez ote diren garai bateko kezak azaleratuko eta euskaldunok geurea dugun Euskal Herrian ez ote garen arrotz bihurtuko.

Bi eguneko egitaraua izango da jaietan

San Martzialgo jaiak ospatuko dituzte bihar eta etzi Lizarraga auzoan.

Ekainak 29, zapatua

- **11:00** Plater jaurtiketarako probak.
- **16:30** Herri mailako plater tiroketa.
- **17:00** Umeen kros txapelketa.
- **18:00** Txokolate-jana eta kroseko sari banaketa.

- **21:00** Herri afaria; ondoren, erromeria Astiazaran eta Narbaizarekin.
- **00:00** Suzko erruberak eta izozkia.

Ekainak 30, domeka

- **11:00** Egunsentikoa txistulariekin.
- **11:30** San Martzialgo igoe-ra.
- **12:00** Meza; ondoren, salda eta luntxa jubilatuentzat.

- **13:00** Txirringularitzako sari banaketa.
- **13:30** Dantza saioa.
- **14:30** Herri bazkaria; ondoren, erromeria Astiazaran eta Andonegirekin
- **18:00** Desafioa Lizarraga eta Kalebarren artean.
- **19:30** Urdaiazpikoaren zozketa.
- **21:00** Jaien amaiera suziriekin.



Otaingo karobia, konponduta eta ingurua txukunduta, Irimo Barrena auzoan. A.R.K.



Lausagarretako karobia; atzean, izen bera duen baserria. JOSE MARI ITURBE

Berreskuratu daitezkeen egiturak

Otaingo karobiaz gain, beste bederatzi daude berreskuratzeko moduan: Galartza auzoan, Gorritz gainekoa; Uzarragan, Lausagarreta eta Elutza; Lizarragan, Udala, Aranburu eta Akiñao; Irimo Goenan, Igeribar eta Saraskea; eta Irimo Barrenan, Oñati bidea.

Karobietako bat, txukunduta

Hogei karobi daude Antzuolan, Jose Mari Iturberen arabera, eta horietatik hamar daude konpontzeko moduan: Otaingoa da horietako bat, eta txukuntze lanetan aritu da Juanjo Aranbururekin batera. Izan ere, ondarea mantentzeko asmoa dute

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Kareharria egosi eta karea egiteko tokiak izaten ziren karobiak. Antzuolan, esate baterako, dozenaka daude; ez, ordea, egoera oso onean. Bada, horretaz jabetuta, horietako bat txukuntzen aritu dira Jose Mari Iturbe eta Juanjo Aranburu herritarrak: Otaingo karobia, hain justu. Urteak zihonan jausita, eta hiruzpalau egunean txukundu dute haren ingurua. "Halere, ez dugu karobiaren dokumentazio zehatzik. Bada, kigu XVIII. mendean egin eta ugaritu zirela inguru hauetan, kareharria hauts bihurtu eta laborantzan erabiltzeko, baina 1940-1950 inguruan utzi zitzaion erabiltzeari. Hau ere inguru hartakoa da", azaldu du Iturbek.

Hiru metroko diametroa eta 3,5 metroko altuera du, gutxi

gorabehera, Otaingo karobiak, baita berezitasun propioak ere, guztiak ez baitira berdinak: "Honek, konkretuki, haize-sarrera bat du, haizea karobi barrura sar dadin; barnean, berriz, bodega bat zuen egin harri handiagoekin, pilota baten tamainako kareharri-koskorak jartzeko". Karobia goraino betetzen zuten harriz, eta batzuek egurra ere tartekatzen zuten; baita otea ere. "Eskura harrapatzen zuten erregai-mota guztia, alegia. Hori guztia su bizian izaten zuten sei-zazpi egunez, kareharria desegin zedin".

**OTAINGO KAROBIAK
HIRU METROKO
DIAMETROA ETA
3,5SEKO ALTUERA DU;
HARRIZ BETETZEN ZEN**

Karobi bat martxan mantentzeak, beraz, lan handia zuen, eta horretarako jendearen parte-hartzea behar izaten zen. Bada, Iturbek adierazi du auzolanean aritu ohi zirela bizpahiru baserriren artean: "Lan egin beharra zegoen. Lehenengo, harria ekarri behar izaten zuten Arrasatetik, Udalatx aldetik, eta kalkulatu da hemengo karobietako bakoitzak hamabost-hogei tona harri behar izaten zituela; bada, pentsa zenbat behar izaten zen guztia betetzeko. Egur eta ote asko ere behar izaten zen, eta hori guztia egiteko elkartzen ziren baserriak; gainera, gau eta egun zaindu beharra zegoen. Horrela aritzen ziren lanean, normalean".

Karobi gehiago
Iturbek eta Aranburuk, Otaingo karobiko txukuntza lanak

egin ondoren, Antzuolan dauden gainontzeko karobiak zenbatzeari ekin zioten, eta denera hogei kontatu zituztela nabarmendu du Iturbek: "Hogei dira, behintzat, guk lokalizatu genituenak; horietatik hamar soilik daude nahiko osorik, ordea. Garbitu egin behar dira, konpondu, baina berreskuratu daitezke. Beste hamarrak ez daude, sasoi batean pistak-eta egiteko erabili baitziren harriak –beste batzuk, berriz, obrekin-eta desagertu dira; esaterako, Abiadura Handiko Trenarenarekin–. Beraz, kokapena eta zuloa non dagoen jakinikoa da, baina ez nolakoa zen karobi osoa".

Hain justu, desagertuta dauden hamar karobieki dagokienez, bina zeuden honako auzoetako bakoitzean: Galartzan, Arantzaleku eta Gorritz azpikoa; Uzarragan, Garikatza eta Bidaurre; Lizarragan, Lamariano eta Aranguren; Irimo Barrenan, Lizardi eta Oñati bidea; eta Basalden, Olazabal eta Ipurtika-Egurribai. Aztarnak besterik ez dago leku haietan.

Ondarearen mantentzea
Konponketa horiek, ingurua txukuntzeaz harago, badute bes-

**ITURBEK USTE DU
HERRI MAILAN
BULTZADA BATEN
BEHARRA DAGOELA
ONDAREA ZAINTEKO**

te helburu bat: ondarea zaintzea; bai, behintzat, Iturberendako: "Karobi batzuk larrez-eta daude josita, hormak ukituta daude arbolak-eta sortu direlako inguruetan; ondorioz, lehertze daude; garbitu eta txukundu egin daitezke, kontserbatu nahi baldin baditugu, bederen".

Haren esanetan, ordea, "askotariko ikuspuntuak" daude ondarearen mantentzeari dagokionez: "Batzuek esaten dute gauza zaharrek ez dutela ezertarako balio, baina beste batzuek pentsatzen dugu zerbaitetarako egin zirela eta kontserbatu egin behar direla; are gehiago, azken urteetan galdu dugun ondarea gogoan izaten badugu". Erantsi duenez, hirurehun-laurehun urtean zutik mantendu diren egiturak desagertuz gero ondorengoek ez dute jakingo zer ziren eta zertarako erabiltzen ziren.

Hala, inguruetan dagoen ondarea mantendu dadin, lan egitea funtsezkoa da. Iturbek eta Aranburuk, esate baterako, ez dute proiektu handien arabera funtzionatzen, otu ahala egin ohi baitituzte lanak auzolanean; batzuetan, beste herri-tar batzuekin batera. Beste eragile batzuen beharra eta babesa, baina, funtsezkotzat jotzen dute: "Faltan igartzen da, ondareari dagokionez, herri mailan bultzada bat ematea, izan Udala zein entitateak; modu horretan, denon artean zaindu ditzakegu gauzak, ez daitezen galdu gelditzen diren apurrak".

FERIXA NAGUSIA 2024



Herri kirolak, orain bi urteko Ferixa Nagusiko jaietan. GOIENA



Bihar Elgetan izango den mariatxi taldea. MEXICO LINDO ¡SI SEÑOR!

Mariatxiak eta rantxerak zapatuan

Guanajuato eskualdekoak dira Mexikoko erreperitorio zabala ekarriko duen Mexico Lindo ¡Si Señor! taldeko kideak. Veracruz, Nuevo Leon eta Jalisco zonetako piezak eta dantzak eskainiko dituzte. Kalejira eta kontzertua egingo dituzte.

Festa giroak jarrai dezala

Umeen eta Erretiratuen Eguna da gaur Elgetan. Jolas parkea, herri kirolak, erretiratuen bazkaria eta Ai Ama, Xiberoots eta Estaka taldeen emanaldiak izango dira herrian. Gauean autobus zerbitzu berezia izango da Bergarara eta Antzuolara

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Atzo hasi ziren Ferixa Nagusiko jaiak, eta luze jo du gauak askorendako. Gaur, Umeen eta Erretiratuen Eguna da eta Ozkarbi elkarteak kuadrillei eskainitako hamaiketakoarekin eman diote hasiera askok.

Bi herri bazkari izango dira gaur. Umeen bazkarirako 70 neska-mutiko zeuden izena emanda eguaztenerako, eta azken ordukoak gehitzea aurreikusten dute antolatzaileek. Aurten Bolatoki tabernak emango du bazkaria eta, betiko moduan, Maa-la Guraso Elkartearen arduratuko da banaketa egiteaz.

Erretiratuen bazkaria da eguneko beste klasikoetako bat. 60 bat lagun elkartuko dira mahaia-aren bueltan, Espaloian. Aurretik, meza entzun eta jaietako argazkia aterako dute.

Herri kirolak

Herri kirolen erakustaldia ere izango da gaur herrian. Eguerdian hasita plaza barrenean izango dira lanean Urdax Magunazelaia, Ioritz Gisasola, Irati Astondoa eta Imanol Albizu *Goikoetxe*. Abadiñoko Magunazelaia eta Elgetako harakin *Goikoetxe* harri-jasotze lanetan arituko dira. Ioritz Gisasola eta Irati Astondoa, berriz, aizkorarekin arituko dira. Nork bere erakustaldia egingo du. Amaieran, berriz, binaka arituko dira; Gisasola eta Albizu, alde bate-

TALDE JOLASETARAKO LAU TALDEK EMAN DUTE IZENA; ZABALIK DA ORAINDIK IZEN-EMATEA

tik, eta Astondoa eta Magunazelaia, bestetik.

Magunazelaia Euskal Herriko harri handien txapelduna da, Ioritz Gisasola Bizkaiko pentatloi txapelduna eta Irati Astondoa Banakako Urrezko Aizkolarien txapela lortutakoa da 2020an eta 2022an. Elgetarrak, berriz, gogotsu daude Imanol Albizu *Goikoetxe* berritako plazako lanetan ikusteko.

Herri kirolak eguerdiko kontua izango dira. Arratsaldean, 18:00etan, herritarren txanda izango da eta talde jolasetan parte hartzeko aukera izango du nahi duen orok. Azken orduko izen-emateen zain, lau talde daude izena emanda. Jai Batzordeak parte hartzera animatu ditu herritarrak. "Jolas interesgarriak daude", esan du Ibon Unzetabarrenetxea alkateak.

Herri bazkaria zapatuan

Herri Eguneako bazkaria izan ohi da jaietako ekitaldirik jendetsuena, eta aurten ere horrela izatea aurreikusten da. 14:30ean izango da bazkaria, plazan, eta, urtero moduan, 600 errazio paella misto eta 40 errazio vegetariano prestatuko ditu Vicente Quintana paellariak. Goizean goizetik hasiko da lanean. Antzerako zeregina izango du Peio Bilbao elgetarra, hark prestatuko baititu 100 kilo saiheski. Txartelak salgai daude Lolana, Maialden eta Haizean, paella 6 eurotan eta saiheskia 4tan.

Bazkaldu aurretik, udal ordezkariak harrera egingo diete iazko jaietatik hona jaiotako hamabi neska-mutikoei eta haien gurasoei. Ekitaldia 12:00etan izango da, udaletxeko areto nagusian.

Ostean, Bergarako erraldoiak eta kilikiak herriko kaleetan ibiliko dira dantzan. Hirugarren urtez izango dira Ferixa Nagusiko jaietan eta aurten sei erraldoi *-Peru, Marisa, Poxpolin, Kriskitin, Kotoi eta Mahoi-* eta tamaina ertaineko lau *-Elhuyar anaiak eta Pastelgileak-* izango dira konpartsan.

GAUEKO AUTOBUS ZERBITZUA IZANGO DA GAUR GAUEAN, 00:00ETATIK 06:00ETARA

Ondoren, 13:00etan helduko da herriko 30 bat umek eskainitako euskal dantzen ikuskitzuna eta udalbatzaren soka dantza. Ibon Unzetabarrenetxea alkatea buru dutela herritarren aurrean egingo dute dantzan zinegotziek. Herrira iritsi berri direnek ere aukera izango dute soka dantzan parte hartzeko.

Domekan azoka

Urteroko azoka egingo dute elgetarrek Ferixa Nagusiko jaietako azken egunean, domekan. 45 bat postu izango dira base-rritarren eta artisauen azokan, eta 40 bat idi pare ganadu azokan, ardiak, ahuntzak, behorrak, astoak, behiak eta txahalak ahaztu gabe. Kanpoko jende gehien erakartzen duen ekitaldia izan ohi da, eta aurten ere gomendioa da Pagatza industrialdeko apartakalekuak erabiltzea.

Pilota jaialdia

Domeka arratsaldeko pilota jaialdia izango da jaiotako kirol hitzordu garrantzitsuenetakoa. 17:00etan emango diote hasiera, udal pilotalekuan, eta ETBk zuzeneko emankizuna egingo du. Bi norgehiagoka daude iragarrita. Jaialdiko partidu nagusia bigarrena izango da: lau eta erdiko San Fermin torneoko Baikoko finala.

Peña II.a izango da finalistetako bat *-Artola min hartuta dago-* eta Laso edo Jaka bigarrena. Bi pilotariek gaur Sestaon

Reggae doinuak Zuberoatik

Gaur, barikua, Zuberoako Xiberoots taldeak bizipoza zabalduko du herrian. "Gogotsu gaude. Ez gara Elgetan inoiz egon eta badugu gogoia jaiak eta jendea ezagutzeko", azaldu du Txomin Dhers teklatu-jotzaileak. Hirugarren diskoa prestatzen ari dira eta bizpahiru kantu ere aurreratuko dituztela esan du; "Beti Xiberoots espirtuarekin".

Gai sozialak aldarri

2014an sortu zen Xiberoots, Zuberoan. Zazpi lagunek osatzen dute taldea eta Maule dute elkargune nagusi. Hamar urteko ibilbidean bi disko argitaratu dituzte: *Maule muffin*



Xiberoots taldeko kideak Mauleko plazan. XIBEROOTS

(2018) eta *Honki jina* (2021). Fusioa dute gustuko; izan ere, hasieratik nahastu dituzte euskal erritmo tradizionalak reggae, raggamuffin, ska eta Karibeko beste hainbat erritmorekin. Gizarte gaiak

jorratzen dituzte. Bigarren diskoaren izenburuak *-Honki Jina-* ongi etorri esan gura du, Afrikako hainbat lekutatik Bidasoako mugatik Europara iristen saiatzen ari diren pertsoneri erreferentzia eginez.

jokatzea duten finalerdian erabakiko da nor sailkatzen den Elgetako finalerako.

Aldi berean, Elgetako finaleko irabazleak jokatuko du Aspeko pilotariaren kontrako final handia San Fermin egunean, Navarra Arenan. Jaialdiko lehen norgehiagoka binakakoa izango da: kantxan izango dira Lizeaga eta Ugartemendia atzelariak. Aurrelari lanetan arituko diren pilotariak erabakitzeke daude. Pilota jaialdirako sarrerak salgai daude Baikoren webgunean -25 euro- eta Bolatoki tabernan -20 euro-. Egunean bertan ere egongo dira leihatilan.

Gazte Asanbladarenak

Txosnaguneko egitarauari dagokionez, Aiama eta Estaka taldeen kontzertuak, gaupasero argazkia, bingoa, zumba saioa eta etxeko DJen emanaldiak daude aurreikusita domekara bitartean. Txosna zabalik izango da gaur eta bihar 18:00etatik aurrera eta domekan 11:30ean.

Erdigunea oinezkoendako

Atzoko mozorro jaitsiera ezke-ro, herriko erdigunea oinezkoendako da eta itxita dago

LAU ETA ERDIKO SAN FERMIN TORNEOKO BAIKOKO FINALA JOKATUKO DA DOMEKAN FRONTOIAN

zirkulazioa. Ibilgailuek Salbador kale osteko errepidea erabili behar dute Elgeta zeharkatzeko. Egoera hori izango da domeka gauera arte eta plazako autobus geltokia Berraon-dokora leku aldatuta dago.

Urtero bezala, gaueko autobus zerbitzu berezia izango da gaur gauean 00:00etatik 06:00etara; Bergararekin eta Antzuolarekin lotuko dute Elgeta. Ordu-tegiak ikusgai daude Lurraldebus.eus atarian.

"Falcon'-ak eta 'castell'-ak tradizio garrantzitsua dira gure herrian"

CARLOTA CASTELLANO ELKARTEKO PRESIDENTEA

Zapatua arratsaldean *falcon* ikuskizuna izango da Elgetan. Falcons de Vilafranca taldeko presidentea da Carlota Castellano (Vilafranca del Penedes, 1999).

Zenbat lagun zatozte?

7-50 urte arteko 50 bat lagun izango gara. Gure herrian [Vilafranca del Penedes] tradizio oso garrantzitsua da giza dorreak eraikitzea. Guk *falcon*-ak egiten ditugu.

Castell-ek egitura jakina dute; *falcon*-ak ere giza dorreak dira, baina egitura aldetik libreagoak.

Nola egiten dira giza dorreak?

Oinarri batetik abiatzen dira eta poliki-poliki eta tamainaz txikiagoak diren kideekin solairuak gehitzen dira. Goiko puntara heltzen denari *enxaneta* esaten diogu. Kaskoa



FALCONS DE VILAFRANCA

darama eta puntara heldutakoan besoak gurutze moduan zabalitzen ditu. *Falco* esaten diogu keinu horri eta adierazten du figura osatu dela. Hortik aurrera egitura guztia desmuntatzen da. **Zer erakutsiko duzue zapatuan?** Irudi horietako bakoitzaren erakustaldia egingo dugu. Figura batzuk estatikoak dira eta beste batzuk mugimenduan egiten ditugu, oinez.



NEREA VILLA

Hegazkin-maketa berria ikusgai

Intxorta 1937 kultur elkarteak Messerschmitt Bf 109 hegazkinaren maketa jarri du ikusgai Espaloiko erakusketan -irudian goikoa-. Ibon Zenekorta bilbotarrak egin du. Hirugarren Reicharen ehiza-hegazkina zen. Orduan modernoena ziren ezaugarriak zituen; tartean, metalezko kroskobakarra. Erakusketako beste bi hegazkin-maketei gehitu zaien pieza da.

GORA ETA BEHERA



Beste sute bat Torrealdean utzita dagoen eraikinean

San Juan bezperako gertaera da. Ertzainak eta suhiltzaileak bertaratu ziren eraikinetik kea irteten zela abisua jasotakoan. Ez da gertatzen den lehen aldia. Ikerketa zabalik da.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

97 erabiltzaile izango dituzte aurten udaleku irekiek

Astehenean abiatu ziren udaleku irekiak. Udalak eskaintzen duen zerbitzua da, eta bost aste iraungo du; uztailearen 24ra arte. 97 erabiltzaile izango ditu aurten zerbitzuak, eta zazpi hezitzaile ari dira neska-mutikoei arreta ematen. Gai zentrala kirola da eta ekintza berezien artean irteera, gaubeila eta ihes-gela daude (Ikus 2. orria).

Udal liburutegi zerbitzua hasita dago udako ordutegiarekin

Ekainaren 20a ezkerko udako ordutegia dute liburutegi zerbitzuan. Uztailean eta iraileko lehenengo astean ere horrela izango da. Astehenetan 14:30etik 20:30era izango da zabalik eta martitzenetatik barikuetara, 10:00etatik 13:30era. Uztailearen 31tik irailaren 2ra itxita egongo da. Uztailearen 25ean eta 26an ere itxita egongo da.

Ginea Konakryra doaz, proiektuak ikustera

Oñatiko parrokiako misio taldeak Ginea Kronakryn dituen bi eskolak ikustea, hango irakasle, ikasle eta herritarrekin egotea eta dituzten beharrak identifikatu eta erakundeen inplikazioa lortzea da udan egingo duten bidaiaren helburua

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Oñatiko parrokiako misio taldeak Ginea Konakryko Dhaguel herrian duen proiektua bertatik bertara ikustera, dituen beharrak ezagutzera eta hangoekin egotera doa udan misio taldeko kide Manu Egaña. Oñatin bizi diren Ginea Konakryko bi lagun izango ditu bidelagun: Mamadu eta Adama Bah, hain zuzen.

Bigarrena ere martxan

4 eta 12 urte bitarteko umeen Oñati eskola du martxan herriko misio taldeak han, eta 13 eta 15 urte arteko neskek jostintza eskolak jasoko dituzten eraikina ere egin dute. Orain hasiko dira han lehen eskolak ematen, eta bi proiektuen jarraipena egitea da bidaiaren asmoa. "Zein behar dituzten ikusi gura dugu, eta Oñatitik zelan lagundu dezakegun aztertu, eskola biek martxan jarraitu dezaten. Hango irakasleekin ere egon gura dugu, arlo akademikoa nola lantzen duten ikusi eta zeregin horretan ere gure laguntza eskaintzeko. Orain, gainera, eskola berri horretan irakasle gehiago beharko dira. Orain arteko guztia Oñatitik bidalitako diruarekin finantzatu da %100ean, Udalak, Ulmak eta antolatatu diren ekitaldietan he-

rritarrek emandako diruarekin. Baina gurako genuke hango erakundeak ere proiektu horietan inplikatzera, eta dagoeneko bilera pare bat lotuta ditugu hiriburura goazenerako. Horrez gain, hango herritarrekin ere egin gura dugu berba, eta Mamadu eta Adama bidelagun onak izango dira horretan", azaldu du Egañak.

Ekintzailatasuna landu

Laster martxan jarriko duten bigarren eskolan langintza bat erakutsi gura diete neskatilari,

"bizitzan aukera gehiago izan dezaten", Egañak dioenez. "Jostintza erakustearekin batera ekintzailatasuna ere landu gura dugu eurekin. Eskola ondoan merkatu bat dago eta eurek han izan ditzaketan aukerak ikusten laguntzen saiatu gura dugu. 12 urterekin ezkondu egiten dituzte neskatila asko, eta haien etorkizuna mugatu, eta eskolarekin beste aukera batzuk eman gura dizkiegu". Hogeitabat egun egingo ditu Egañak han, eta aurreratu du han ikusitakoaren berri emango duela bueltan.



Adama Bah eta Manu Egaña plaza ondoko frontoiaren harmailetan. O.E.G.

la 200 umek ikasten dute Oñati eskolan

Oñatiko diruarekin finantzatuta dago, erabat, Dhagel herrian dagoen Oñati eskola. Duela urte eta erdi inguru hasi ziren han eskolak ematen bi irakasle, eta 4 eta 12 urte bitarteko ia 200 ume joaten dira hara ikastera; bertan eta inguruko herrietan bizi diren gaztetxoak. Hango ume askorendako Oñatiri esker izan da posible eskolara joateko aukera izatea.



Ginea Konakryn dagoen Oñati eskola. M.E.

Eskola publikorako sarbidea eskatu du Urgain komunitateak

Eskola publikoan ez dagoela inor soberan eta sarbideak bermatuta egon behar duela esan dio Hezkuntza Sailari

O.E.G. OÑATI

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak iaz onartutako matrikulazio sistemaren dekretuak aurten ere zeresana eman du Oñatin, herriko bi familiari Urgain Eskola Publikorako sarbidea "ukatu" egin dietelako. Egoera salatzeko, Oñatiko Urgain Eskolako ikasturte amaierako ekitaldien ostean Institutuaren aurrean elkartu dira guraso elkarteko kideak, irakasleak, gurasoak eta ikasleak, herriko bi familia horiek babesteko, joan den ikasturtean Txantxiku

Ikastolak egin zuen moduan. Urgainek azaldu duenez, iazko onarpen prozesuan bi familiari Urgain Eskola Publikorako sarbidea ukatu zitzaizen. "2024-2025eko ikasturterako onarpen prozesuan Urgain Herri Eskolan hiru urteko gelan familia hauek matrikula eskaera egin dute eta berriz ere Hezkuntza Sailak eskola publikorako sarbidea ukatu die". Azpimarratu dute euskal eskola publikoan ez dagoela inor soberan eta eskola publikorako sarbideak bermatuta egon behar duela.

'Kalibre'-ri emango diote Gurutze Gorriko zilarrezko domina

İnigo Guridi *Kalibre*-ri zilarrezko domina emango dio Gurutze Gorriak, egindako lanagatik. Elkarte horren Debagoieneko egoitzaren 40. urteurrena ospatzeko ekitaldia egingo dute bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, eta horren barruan omenduko dute *Kalibre*. Duela bost urte hil zen hura, eta haren senideek jasoko dute domina. Zazpi lagu-

nek osatutako musikari taldetxo batek –alaba tartean– hari gustatzen zitzaizkion kantuak joko ditu, hala nola Bruce Springsteen, Hertzainak eta Itoiz taldeen kantuak entzungo dira. "Pozgarria da oso domina hau İnigori eman izana. Hark egindako lana oraindik ere erabiltzen dute Gurutze Gorrian, eta harro gaudete. Bizirik jarraitzen duela ikusten dugu", dio Irene Olalde alargunak. Bailarako, Gipuzkoako eta Euskadiko Gurutze Gorriok egongo dira ekitaldian.

Hiruko lagunartekoa egongo da zapatuan Olakuako kantxan

Hirugarrenez egingo dute, zapatu arratsaldean, lagunarteko hiruko saskibaloitxapelketa Olakua auzoko kirol kantxan. Umeek –2010etik gorakoak– zein helduek parte hartu ahal izango dute Parisen 2024an berriro olinpikoa izango den kirol horretan. Hain zuzen ere, kirol hori ikusaraztea, saskibaloiaz gozatzea eta "arratsalde ona" pasatzea da antolatzaileen asmoa.

Hemezortzi taldek hartuko dute parte. Talde-fase bat egongo da lehendabizi, eta ondoren, final-laurdenak, finalurrekoak eta finalak jokatu dituzte. 16:00etatik 20:00etara izango da txapelketa, Olakuan; eguraldi txarra egiten badu, Zubikoan.

OHARRAK

Izen ematea bukatu

Gaur da azken eguna uztailleko kirol ikastaroetan izena emateko, kiroldegian.

Herrixa Kantuan

Ikasturteko azken Herrixa Kantuan gaur izango da, kontzejupean, 18:30ean.

Ikatza ateratzea

Zapatuan eta domekan arituko dira, ateri bada, txondor barruko ikatza ateratzen. Bertara joan eta ikusi daiteke.

Orientazio jolasa

Familian egiteko orientazio jolasa Arantzazuko parketxean domekan, 11:00etan.

"Film baterako castinga egiten gabiltza"

ITSASO POL ZINEMAGILEA ETA CASTING-EGILEA

Casting laguntzaile lanetan dabil oñatiarra, eta urrian David Perez Sañudo zuzendariak Bizkai aldean grabatuko duen pelikula baterako jende bila dabilta orain

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Itsaso Pol (Oñati, 1993), zinemagilea eta casting-egilea da. 18 urterekin joan zen Madrilerantz bizitzera eta ikus-entzunezkoen munduko hainbat lanetan jardun du. Azkenaldian, casting laguntzaile ibili da *As Bestas* (2022) eta *Cerdita* (2022) pelikuletan eta *Hasta el cielo* (2023) telesailan. Orain, Txabe Atxaren eta Florencia Ines Gonzalez-en Flor eta Txabe Casting-en dabil lanean, casting laguntzaile, eta urrian Euskal Herrian grabatuko duten pelikula baterako casting deialdiaren berri eman du.

Zein lanetan zabilta gaur egun?

Iazko martxoan hasi nintzen Madrilen eta Euskal Herri mailan lan egiten duten Flor eta Txabe casting zuzendariekin lanean, casting laguntzaile. 2023an, esaterako, Pablo Urkijoren *Irati* pelikula egin zuten, eta 2022an *Cinco lobitos*.

Zer aurreratu dezakezu Euskal Herrian grabatuko duzuen pelikulari buruz?

David Perez Sañudo zuzendari bizkaitarraren hurrengo pelikula izango da. 2020an, esaterako, *Ane* pelikula zuzendu zuen eta hiru Goya sari eskuratu zituen. Urrian grabatuko da film berria, gehienbat, Bizkaia aldean, eta XIX. mendean girotuta egongo da. Latido Films-ek eta Maniac Films-ek ekoiztutakoa da.

Eta casting baterako deialdia egin duzue, ezta?

Bai, hori da. 30 eta 70 urte arteko gizonen eta emakumeen bila gabiltza. Ez da beharrezkoa esperientzia izatea, eta, batez ere, zuzendariak nahi duena da itxura konkretu bat izan dezatela; lurra lantzen duten pertsonen jarri beharko diete bizia, eta, horrenbestez, itxura gogorra daukaten pertsonen bila gabiltza. Euskaraz jakitea ere eskatuko zaie; bizkaieraz hitz egin beharko dute, baldin



Itsaso Pol, eguaztenean Madrilen ateratako argazkian. CRISTINA LIBERTAD MARTIN

"30 ETA 70 URTE ARTEKO PERTSONAK BEHAR DITUGU, ETA EZ DA ESPERIENTZIARIK BEHAR"

eta testua esan behar badute, eta euskaraz hitz egiteko zailtasunik ez izatea eskatuko zaie. Interesa dutenek mezu bat bidali beharko dute txabeyflor-casting@gmail.com-era, euren argazki bat atxikita eta non bizi diren adierazita.

Beraz, aukeratuak pelikulan hitz egin beharko dute?

Ez dira protagonista nagusiak izango, ezta figuranteak ere. Beraz, parte-hartzeren bat izan dezakete, bai. Normalean, guk bilatzen ditugun pertsonen garrantzi apur bat izango dute pelikulan. Agian, ez dute testu luzerik izango, baina *acting* apur bat bai. Eta proiekturako aukeratzaren den jendeak produktzioek esandako egunetan egon beharko luke grabazioetarako gertu.

Nolakoa izango litzateke grabazio egun bat?

Nahiko egun erraza izaten da gure castingetik aukeratzaren ditugun aktore moduan joango diren horientzako. *Set*-era eramaten dituzte, iritsitakoan nora joango diren eta zer egin beharko duten azaltzen diete, euren eszenak entseatzaren dituzte pixka bat eta grabatu egiten dute gero. Ez da konplikatu esperientziarik gabe egotea *set*-ean, aktore moduan.

Bizitakoarekin gustura irteten dira aktore lanak egiten dituzten horiek?

Normalean, bai. Adibidez, *As Bestas* filmean jende asko egon zen ez zirenak aktore profesionalak. *Cerdita* pelikulan ere egon nintzen, eta grabatu zen herrian egin genuen castinga, bertako herritarrei. Orokorrean, izena ematen dutenak oso pozik irteten dira eta asko gustatzen zaie. Gogoz gelditzen dira gehiago egiteko.

Euskal Herrian lotsatiak gara horrelakoetarako?

Bai; agian, Madrilen baino zailagoak izaten dira deialdiak. Beldurra edo ezjakintasuna izaten da, baina, animatu eta eza gutzen dutenean, oso esperientzia polita bizitzeko aukera izaten dute.



NIRE USTEZ

XABIER IGARTUA

35 urtera, agian?

Batek jakin. 34 ez dira nahiko izango, antza. Zenbat gehiago pasa beharko dira estatuaren biktima izan zirenek ere aitortza bat jaso dezaten? Bakegintzaren eta bizikidetzaren bidean aurrerapausoak eman dira, baina Irunberriko gertakari ilun haietatik 34 urtera, egia zain jarraitzen dugu.

Herriko alaba Susana Arregi Maiztegiren hilketak Oñati astindu zuen. Bertsio ofiziala hankaz gora jartzen duen ikerketa-lan bat argitaratu zen joan den urtean. Memoria, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Institutu bat badugu izan, baina herriko boluntario batzuen ekimenagatik eta beste batzuen laguntzagatik ez balitz, ikerketa-lana gauzatu gabe legoke oraindik.

Hiru hamarkada pasata, argitu gabeko gertakari ezberdinak, perspektiba egoki batetik aztertze zailtasunekin oraindik. Goizegi batzuentzat, baina, aldi berean, beranduegi, gertakariak argitze zuzeneko testigu izan zirenak gutxituz doazelako.

Orain ez bada, nekez izango da.

Bitartean, aitortza ofizialaren zain oroituko dugu Irunberriko 34. urteurrena.

San Migel jaien egitarauaren azal lehiaketa martxan da

Herri Egunean salmenta- eta artisau-postuak jartzeko izen-emateen gaineko informazioa eman dute

A.T.G. OÑATI

San Migel jaietarako guztia prest izateko, Udalak hainbat deialdi egin ditu. Batetik, egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketaren oinarriak argitaratu ditu, eta uztailearen 10era bitartean aurkeztu ahal izango dira lanak. Bidalketa helbide elektronikoa honetara egin behar da: kultura.idazkaritza@onati.eus. Mezuan honako hau jarri beharko da: *Kartel lehiaketa 2024*; eta izen-abizenak eta telefono-zenbakia eman beharko dira. Irabazleak 500 euro jasoko ditu.

Bestetik, urriaren 5ean egingo den Herri Egunean artisau azoka jarri nahi izanez gero, uztailearen 1etik 14ra eman beharko da izena, *Oñati.eus* webgunean eskuragai egongo den formularioen bidez. Uztailearen 23tik aurrera iritsiko zaie jakinarazpena izena eman dutenei. Eta Herri Egunean salmenta-postua jarri nahi izanez gero, uztailearen 17tik irailaren 16ra bitartean bete ahaliko da udal webgunean jarriko duten formularioa. Guztiei jakinaraziko zaie aukeratuak izan diren edo ez.

AUTLAN
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



lazo kroseto irteera puntuan, parte-hartzaileak lasterketa egiten hasi berri. GOIENA

250 lasterkariren langa gaindituta dator krosa

Torreazoko krosa egingo dute domekan, 25. aldiz, eta irudi berriarekin baina betiko ilusioarekin antolatu dute Abixaraneok. 250 korrikalarik baino gehiagok eman dute izena, 26 talde ere izango dira, gutxienez, eta oraindik aukera dago parte hartzeko

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Torreazoko Herri Lasterketak 25. aldia beteko du domekan. Abixaran taldeak antolatzen duen zazpigarrena izango da eta 2016an finkatu zituzten helburuei "tinko utsiz" jarraitzen dutela adierazi dute: "Lasterketaren izaera herrikoa gorde eta emakumeen partaidetza sustatzea". Horretarako, batetik,

lasterketa amaieran banatzen dituzten sariak eta zozketatzen dituzten opariak gehitzeko ahalgina egiten dute, urtetik urtera, herriko merkatari eta ostalarien laguntzarekin; bestetik, korrikalariak taldeka parte hartzera animatzen dituzte, emakume asko hala entrenatzen direlako eta ariketa fisikoari jarraipena emateko

taldearekiko konpromisoa oso lagungarria dela uste dutelako.

Irudi berria

Lasterketaren logoa eta kartela berriak egin dituzte, Torreazoko hitzorduaren "filosofia eta egungo errealitatea hobeto" irudikatze asmoz. "Familia edo lagun artean korrika egitea, gizonak eta emakumeak parez

pare eta kirolaren balio integratzailea aldarrikatu nahi dugu kartel berriarekin", diote. Lasterkari guztiek jasoko duten kamisetaren diseinua ere bereziki zaindu dute.

Oraindik izena eman daiteke

Antolatzaileek aurreratu dute dagoeneko 250 lasterkarik baino gehiagok eman dutela izena, eta 26 talde ere osatu direla parte-hartzaileen artean. Antolatzailerik taldeko Ainara Diaz de Gereñuk adierazi du "pozik eta urduri" daudela, aldi berean, zifra horiek ikusita, baina gogotsu daude domekarako.

Gainera, oraindik badago izena emateko aukera. *Herrikrosa.eus* atariaren bitartez egin behar da. Epearen arabera, prezioa aldatu egingo da: gaurko –ekainak 28– 22:00ak arte, 10 eurotan; eta etziko –domeka– 09:00ak arte, 18 eurotan. Lasterketa egunean bertan, 09:00tan itxiko dute izen-ematea. Dortsalak Torreazon jaso beharko dira goizean bertan.

Antolatzaileek taldeetan parte hartzera gonbidatu dituzte parte-hartzaileak. Ez dute federatu mailako talde bateko kide izatea eskatzen. Hiru lagun elkartu eta talde-izen berberarekin inskribatzea nahikoa da. Opari bereziak izango dira, gainera, taldeentzat eta baita emakumeentzat ere, Abixaran elkarteak lasterketaren antolakuntza hartu zuenetik urtero egiten duten bezala. Eta Diaz de Gereñuk hauxe gaineratu du: "Dagoeneko aurten gainditu dugu talde kopuruari dagokionez geneukan zifra. Izan ere, orain artean hamasei taldek hartu dute parte, gehienez, eta aurten dagoeneko 26, behintzat, apuntatu dira. Gainera, oraindik izena eman

Herriko komertzio laguntzaileak

Hauek dira: Agurtzane ile-apaindegia, Aratz fisioterapia, Bellotza loradenda, Betik, Bizipoz kafetegia, BM, Coca Cola, D'or estetika zentroa, Eratu fisioterapia, Etxe Aundi hotela, Fagor Industrial, Goiko Benta ostata, Gomiztegi, Ion Iopez ile-apaindegia, Kaiku, Kimu-Urtxin loradenda, Lana Kooperatiba, Murgialdai txakolindegia, Natra, Natxo Santos argazki denda, Odriozola harategia, Oñabike denda, Oñatiko Udala, Rural Kutxa, Torreazoko Sanprubusa, Sesifena ile-apaindegia, Txokolaterixia, Ulma Packaging, Urrats podologia, Zintzo bodega, Zuatzu klinika eta Zumeltzegi hotela.

daiteke eta bikotea osatuta duten askok seguru aukera daukatela hirugarren batekin elkartu eta taldean parte hartzeko".

Guztientzako lasterketa

Aniztasun funtzionala duten gaztetxoek eta mugikortasun mugatua duten lasterkariek ere parte hartu ahal dute, azken urteetan bezala. Handbikean eta aulki gurgildunean doazen lasterkariak eta laguntzaileak 10:00etan irtengo dira, Etxe Aundi hotelaren paretik; gainontze-koak, 10:30ean.

Ganbara Faktoriak 'Txakolinaren ospakuntza' egingo du

Gaur izango da, Upain txakolindegia kanpoaldean, eta herriko hiru txakolin-motak dastatu ahal dute

A.T.G. OÑATI

Hots abesbatzak eta Ganbara abesbatzak hartuko dute parte *Txakolinaren ospakuntza* ikuskizunean, pianoan Amaia Zipitriak lagunduta. Andoni Salame-ro olerkariak berak sortutako

poesiak eta Bitoriano Gandiagaren testuak erreztatuko ditu eta Garazi Etxaburu dantzari ondarrutarrak ere parte hartuko du. Horrez gain, Oñatiko hiru txakolindegia ere bertan izango dira: Belaskua, Murgialdai eta

Upain. Kontzertua 22:00etan izango da, eta orubete lehenago, 21:00etan, txakolina dastatzeko aukera emango dute.

Ganbara Faktoriak euren propio sortutako bi abesti estreinatuko ditu: *Bildu* eta *Agur maite* obrak, hain zuzen.

Udalaren *Kultura kalean* egitasmoaren baitan egingo du ikuskizuna faktoriak gaur; eta eguaztenean, *34 leiho afganiarrak* kontzertua izango da, Lazarraga lorategian, 19:00etan, Erei elkar-terean eskutik.

Buruhandi berria gertu

Gaur, egubakoitza, hasiko dira Zubillaga auzoko jaiak, eta asteburu osoan izango da festez gozatzeko aukera. Bihar, zapatua, esaterako, auzoko Pello basurdearen txorimalo berria aurkeztuko dute, 18:30ean, Ezpelur gaiteroek lagunduta.

Xabi Mendizabal zaharbertzaile eta artistak egin du auzoko maskotaren buruhandi berria.



XABI MENDIZABAL

Hau da hau
desastria egin dotena.
Oin, baten batek konpondu
biherko dost hau.



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

goienaOkmgida

Debagoiengan baldin badago,
hemen dago.



Goiena
Okm Gidaren
eskaintza osoa.



Burdinolako senior mailako neska, Zilarrezko Ligako norgehiagokan, aurtan. GOIENA

Seiko torneoa bihar, denboraldia agurtzeko

HOCKEYA Burdinolako lagunek antolatuta, Bergara Hiria emakumezkoen torneoa EAEko talde onenak eta Bordeleko eta Torrelavegako talde bana batuko ditu zapatuan Labegarietan. Egun osoan maila oneko hockeya egongo da ikusgai

Xabier Urtzelai BERGARA

Badator Bergara Hiria emakumezkoen hockey torneoa, eta zapatuko hitzorduak Street Hockey Gasteiz, Sumendi, Sobreruedas, Sorluzeko Marras, Bordeaux Lyons eta etxeko taldea batuko ditu, Burdinola. "Esango nuke gure taldea dela garaikurra irabazteko faborito nagusietako bat, nagusia ez bada.

Bordelekoek maila polita dute, baita Torrelavegakoek ere -Sobreruedas-, baina gure neska ez dira atzean geratzen. Espainiako mailari etsi diote aurtan, Euskadiko ligan bigarren sailkatu dira eta Kopa txapelkun izan dira, finalean Sumendiri irabazita. Oso denboraldi ona egin dute eta emaitza horiek erakusten dute Bergara Hiria

polita egin dezaketela, eta, gainera, etxean jokatzeko dute", adierazi du Burdinolako ordezkarik Agustin Oiangurennek.

Urtea agurtzeko aitzakia

Bergara Hiria torneoak emakumezkoen hockeyari ikusgarritasuna ematea du helburu, eta denboraldia agurtzeko jai moduko bat antolatzeko apro-

Zorua jartzea: la hiru orduko lana

Bergara Hiria modu egokian jokatu ahal izateko Burdinolako lagunek zorua irristakorra jarriko dute. "Aste barruan egingo dugu lan hori; dena ondo joanez gero, bi ordu eta erdi inguru behar izaten ditugu Labegarietako kantxa osoa zorua bereziarekin estali ahal izateko. Baina bai edo bai egin beharreko lana da; iaz ez genuen lan hori hartu eta gonbidatuta etorri ziren taldeek errieta egin ziguten, jokalariek ez dutelako berdin jokatzeko, eta, noski, aurtan jarri egin beharko dugu", adierazi du Agustin Oiangurennek.

Eguenean ziren lan horiek egitekoak. "Lehenengoz jarri genuenean zorua guztia bikain estali genuen. Baina, ondoren, konturatu gara dilatazioagatik-edo zorua bera aldatzen joan dela, eta horrek buruko min bat edo beste eman izan izan digu".

betxatuko dute Burdinolakoek. Zapatuan 08:30ean hasiko dituzte partidua, eta aurreikusitako finalek 20:15ean hasiko dutela. Hala, bi multzotan banatuko dituzte taldeak, partidu bakoitzak 40 minutu iraungo ditu eta eguerdian pare bat orduko etena egingo dute, atseden hartzeko eta bazkaltzeko. "Arratsaldean egongo da saltsa polita, finalerdiak eta finalak orduan jokatu dituztelako, eta ondoren egingo dugu sari banaketa ekitaldia".

Hiruko torneoa gaur

Gaur, egubakoitza, motorrak berotzen joateko, hiruko torneoa egingo dute, 18:00etatik 20:00etara. "Parte-hartze libreko saioa izango da; Burdinolako nesken taldeko jokalariek batzuk egongo dira, baina adin askotariko jokalariei dago zabaldua. Saio irekia da eta helburua da hockeya gazteen artean zabaltzen joatea".

Denboraldiaren errebasoa

Behin denboraldia amaituta, Oiangurennek denboraldiaren

errebasoa egin du GOIENAN: "Urte polita izan da, talde guztiak izan dira lehiakorak, eta, gehiago edo gutxiago, baina helburuak beteta geratu dira". Alde horretatik, duela pare bat aste Bergaran jokatu den senior mailako gizonzkoen igoera fasean etxeko taldea sailkatu ez izanak arantzatxoa utzi du: "Tira, pena izan zen, Espainiako mailara igoetzea zegoelako jokoan, eta gure jokalariek ez zuten helburua lortu. Baina Euskadiko ligan urte polita egin dute eta datorren urtera begira hori izango da etxeko mutilek izango duten helburua, osterera ere mailaz igoetzea igoera faserako sailkatzea, eta, posible bada, mailaz igoetzea".

"EMAKUMEZKOEN HOCKEYARI IKUSGARRITASUNA EMATEA DA HELBURUA"



AGUSTIN OIANGUREN
BURDINOLAKO KIDEA

Etxegarai eta Galeano daude Plazandreak torneoan

PILOTA Guztira, hamabi pilotarik jokatu dute, Bilboko Esperantza frontoian, bost aste iraungo duen torneoan

X.U ARRASATE

Emakume Master Cup zirkuitu barruan dator udako hurrengo torneoa: Plazandreak. Torneoa hamabi pilotarik jokatu dute, eta aukeratu artean daude Leire Galeano

antzuolarra eta Maddalen Etxegarai oñatiarra.

Hala, bost astez ETB1ek astelehenero emango ditu euren partidua, txapelketa taldeka jokatu den lehiaketa izango da eta talde bakoitzeko pilotariek



Aste barruan aurkeztu dute torneoa. EMAKUME MASTER CUP

binaka eta lau eta erdian jokatu beharko dute.

Txapelketa uztailean lehen hasiko dute eta ligaxkan punturik gehien batzen dituzten bikoteek abuztuaren 5eko final handia jokatu dute. Denera, lau taldeetan banatutako hamabi pilotarik jokatu dute: Arrizabalaga-Capellan eta Ibarrola, Aldai-Mendizabal eta Larrarte, Zabaleta-Gaminde eta Etxegarai eta Garai-Galeano eta Arrillaga; hau da, egungo espezialistarik onenak batu ditu Plazandreak.



Pilotu bat, duela bi urteko lasterketan, zatieta batean. GOIENA

"Enduro zirkuituak gora egin du kalitate aldetik"

ENDUROA Domekan egingo dute, 08:30ean hasita, Arrasateko enduro txapelketaren seigarren edizioa. Aurtengoa, gainera, Sustrails Openerako puntuagarria izango da. "Lan handia egin dugu tramuetako bidezidorretan", adierazi du Asier Rosadok

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Domekako lasterketa Sustrails enduro txapelketako hirugarren proba puntuagarria izango da. "Openeko antolatzaileekin harremana dugu, eta orain arte Nafarroan egiten zuten txapelketa Euskal Herriko hainbat puntutara zabaldu dute. Hala, gurea txapelketaren hirugarren lasterketa izango da eta Openari oihartzun handiagoa emateko helburuarekin sartu gara bertan", adierazi du Arrasateko enduro proba antolatzeko lanetan dabilen Asier Rosadok. "Berez, 21 lagunek eman dute izena Opena osorik egiteko, eta beste asko lasterketaz lasterketa dabilza izena ematen. Esaterako, Markel Uriarte aurreko probetan egon da, baina aurrez ez dago Opena osorik egingo dutenen artean".

Orain arteko lasterketak Lesakan –maiatzaren 12an– eta Larra eta Belaguan –ekainaren 1ean eta 2an– egin dituzte, eta Arrasatekoarekin Openaren erdia beteta izango dute. Izan

ere, aurtengo zirkuitua mimos prestatu dutela nabarmendu du Rosadok: "Esango nuke kalitate aldetik zirkuituko bidezidorretan koska bat egin dugu eta jaitsierak mimos prestatu ditugu. Aurreko urteotan ere asko zaindu izan dugun kontua izan da, baina aurtun beste pauso bat eman dugu. Zirkuituak, guztira, 25 kilometro inguru ditu, eta 1.300 metroko desnibel positiboa. Hala, aurreko urteotan lau bidezidorretatik bat edo bi izan dira sekretupekoak. Oraingoz aurreratu dezakeguna da laurak gordeko ditugula isilpean, eta lautik bi direla erabat berriak. Beste bi jaitsierak aurreko bost

DOMEKAKO LAU ZATIETAKO BI ERABAT BERRIAK DIRA, ETA LAURAK DAUDE SEKRETUPEAN

edizioetakoren batean sartu izan ditugunak dira".

Eguraldi iragarpena

Ikusteko dago asteburuan eguraldiak zenbateraino baldintzatu duen lasterketa; alegia, zirkuitua siku edo bustita egon, ez da gauza bera. "Izena emateko orduan ere eragina izaten du horrek, jendea azken ordu-ra arte egoten delako zain". Hala, astelehenean 100 bat lagunek zeukaten izena emanda, baina antolatzaileen itxaropena zen azken orduan beste koadrilla polit bat batuko dela.

Openari dagokionez, Lesakan antolatzaileek arazoak izan zituzten denborak hartzerako orduan, eta Larra eta Belaguako lasterketan zenbait debagoiendar aurrealdean ibili ziren. Esaterako, e-bike kategorian Markel Uriarte izan zen onena, eta sailkapen orokorrean Gorka Elkorobarrutia –bigarren– eta Iker Senar –hirugarren– podiumera igo ziren.

Axpe, Ruiz de Azua, Calbano eta Carrascal domina bila doaz

ATLETISMOA Asteburuan jokatu dute, La Nucia (Alacant) Espainiako aire zabaleko txapelketa

Xabier Urtzelai ARRASATE

Iritsi da Debagoieneko atletendako aire zabaleko denboraldiko hitzordu garrantzitsuenetako bat: Espainiako Txapelketa. La Nuciako (Alacant) kirol instalazioek puntako atletak batuko dituzte gaurtik domekara arte, eta tartean izango dira Debagoieneko lau atleta: Maialen Axpe eta Malen Ruiz de Azua –pertika-saltoa–, Eneko Carrascal –salto hirukoitza– eta Andoni Calbano –200 metroko proba eta 4x100eko errelebo proba–. Pista estaliko Espainiako txapelketan nabarmentzeko moduko lana egin zuten Malen Ruiz de Azuak –urrezko domina–, Eneko Carrascalek –zilarrezko domina– eta Andoni Calbanok –brontzezko domina–. Eta aire zabalean oraingo asteburuan Maialen Axpe ere batuko zaie, neguko denboraldiari muzin egin eta gero.

Calbanok bi proba

Andoni Calbano bergararra izango da txapelketa hasten lehenengoa, zapatu goizean (12:30) izango du-eta 200 metroko finala. Bergararra aire zabaleko seigarren denbora onena egingo du aurkeztuko da irteera puntura (20.96). Durangon egin zuen marka hori, joan den astean. Lehenengoa txapelketa hasten, eta azkena amaitzen, 4x100 metroko lasterketa domeka gauean izango du-eta (22:05); erreleboetako lasterketa Real Sociedad taldeko atletekin batera egingo du.

Axpe eta Ruiz de Azua, bihar

Pertika-saltoan jardungo duten Malen Ruiz de Azuak eta Maialen Axpek, berriz, zapatu arratsaldean izango dute hitzordua (19:50). Aire zabalean, aurtun, Malen Ruiz de Azua, Monica Clement eta Andrea San Jose dira 4,40ko marka egin duten bakarrak. Ruiz de Azua pista estaliko Espainiako txapelketa irabaztetik dator, baina aire zabalean ez du urrezko dominarik, eta helburu horrekin joan da. Maialen Axpek (4,30), berriz, baztertu egin zuen pista estaliko denboraldian lehiatzea, baina aire zabalean hari dagokio iaz lortutako txapela defendatzea.

Carrascal, domekan

Eneko Carrascal (16,01) urrezko domina lortzeko lehiari izan zen pista estalian, eta zapatekin ezin gozoagoa utzi zion txapelketa hark, bi urtez min hartuta egon eta gero tunelaren amaieran argia ikusten hasi zelako. Pista estalian Pablo Torrijos izan zen irabazlea, baina Castelloko atleta ez da txapelketan egongo; min hartuta dago. Hori bai, munduko errekorra ontzea helburu duen Jordan Diazen (18,18) aurrean gainontzekoak ikusle soilak izango dira.

DEBAGOIENEN LAU ATLETA IZANGO DIRA ESPAINIAKO TXAPELKETAN, ALACANTEN



Eneko Carrascal, pista estaliko Espainiako Txapelketan. SERGIO MATEO

Aitziber Aranburuzabala Juldain

BERGARA

Uztaileko egubakoitzetan xarma berezia izaten du Bergarako Espoloiak, Berumuga musika zikloa zaleen topagune bihurtuta. Orain dela gutxi arte han zegoen kioskotik eta ondoren haren lekukoa hartu zuen oholtza gainetik askotariko doinu dantzagarriak eskaini dituzte urteetan zehar Euskal Herriko zein nazioarteko eskarmentu handiko artistek. Eguaztanean aurkeztu zuten aurten hogeita laugarrenez egingo duten jaialdia. "Gure herriko programan errotuta dagoen kontzertu-sorta da Berumuga. Herriko musika eskaintza asko aberasten du, ezaugarri propio batzuk dituelako. Gaztelupeko Hotsak diskoetxeekin lankidetzan, haien bitartez maila internazionalerako zein gertuagoko taldeekin gozatzeko aukera izango dugu aurten ere", adierazi du Bergarako Udaleko Kultura zinegotzi Maitte Usabiagak.

Mimoz prestatu dute egitarau berria; hala berretsi du Gaztelupeko Hotsakeko Ubane Uzinek: "Rocka, bluesa, jazz eta musika beltzaren kolorea duen ziklo musikala da Bergarakoa. Ohikoak ez diren musika estiloak programatzea da hastapenetatik gure helburua, kalitate ardatz hartuta eta emakumeen presentziari garrantzia emanda". Orain arte moduan, kontzertu guztiak dohainik izango dira, 22:00etan hasita.

Hasteko, eskoziarrak

"Aurtengo eskaintzarekin pauso bat gorago ematen saiatu direla" gaineratu du Uzinek: "Horren erakusle da, esaterako, egitaraua zabalduko duen Eskoziako The Wynntown Marshals

**The Wynntown Marshals**

Uztailak 5, egubakoitza / Eskoziak / Pop-rocka

**Rhythm Shakers**

Uztailak 19, egubakoitza / Madril / Popa, soula eta bluesa

**John Nemeth & The Blues Dreamers**

Uztailak 12, egubakoitza / AEB/ Rhythm and bluesa

**Northagirres**

Uztailak 26, egubakoitza / Zumarraga / Garage-rocka

Espoloia, nazioarteko artistak hartzeko gertu

Bergarako Udalak Gaztelupeko Hotsak-en laguntzarekin antolatutako Berumuga musika zikloa abiatuko dute datorren egubakoitzean; ohiko formatuari fidel –talde bakarra, doako sarrera eta 22:00etan hasita–, lau kontzertu izango dira aurten

taldea. Euskal Herrian bi emandaldi egingo ditu: Donostian bat eta Bergaran bestea. 2007an Edinburgon sortutako taldeak Tom Petty, Neil Young, The Jayhawks eta Wilco artistak omentzen ditu. Euren soinu

power-poparen gakoak dituen country-rock moduan deskriba daiteke; gitarra gainjarriak eta lelo gogoangarriak maite dituzte, eta rock musikak istorioak kontatzeko duen ahalmenean sinesten dute".

Amerikarrak bigarrenenean

Ameriketako Estatu Batuetako John Nemeth-ek gidatuko du uztailearen 12ko kontzertua. "Blues munduan izen bat du Nemethek, eta, jaialdiz jaialdi dabilen arren, gurekin konpro-

misoa hartuta zuenez, bertan izango da. Idahon jaio eta Tom Moore lagunarekin murgildu zen musikagintzan. 2004an San Frantziskora joan zen musika-talde berrietan murgiltzeko, eta, harrezkero, hainbat disko sinatu ditu, baita sariak jaso ere. Gaixotasun larri bat izan zuen, eta, jada sendatuta, Europar barrena dabil bandarekin".

Tequila taldeko abeslaria

Rhythm Sheakers Madrilgo taldea izango da protagonista hirugarren egubakoitzean. "Estatuko musikari onenekin osatutako taldea da; esaterako, Tequila, Los Reyes del KO eta La Vaca Azul taldeetan ibilitakoek. Raquel Garcia kantari indartsuak gidatuta, zuzeneko indartsua eskaintzen dute, soul, jazz eta rhythm and blues musikari handiekin omenaldia eginez. Proposamen oso interesgarria izango da, aurreko emanaldiak baino lasaiagoa".

Euskal ordezkariak

Zumarragako The Northagirres taldeak borobilduko du Berumuga. "Musikari eskarmentudunak dira: Iñigo Agirrebalzategi –ahotsa eta gitarra–; Aitor Godoy –gitarra–; Ana Agirrebalzategi –pianoa, hammonda, koroak–; Julen Makazaga –bateria eta koroak– eta Borja Aranburu –baxua eta koroak–. Ameriketako eta Australiako iturrietatik edaten dute. Riffak, melodiak, erritmoa eta jarrera itzela dituzte".

POP-ROCK, RHYTHM AND BLUES, SOUL ETA GARAGE-ROCK DOINUAK ENTZUNGAI 24. BERUMUGAN

EUSKAL JAIA ESKORIATZATIK

UZTAILAREN TEAN, ASTELEHENA, 13:00ETAN

ZUZENEOA GOIENA TELEBISTA**ZUZENEOA GOIENA.EUS**

DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.



Egurhotza: musika urbanoaren jaialdi berria

Mondra&Roll-en antolatzaileek eskaintza bikoitza egin dute: datorren asteburuan punk, oi! eta rock doinuak entzungo dira Monterron parkean; eta bezperan, uztailaren 4an, musika urbanoa izango da protagonista, lehenengo Egurhotza izeneko jaialdian

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Muntaketa eta azken orduko lanak egiteke, Arrasateko Mauka Musikagintzak, Kataluniako HFMN Crewk eta Gasteizko Jimmy Jazz aretoak ia dena prest dute Arrasateko Udalaren laguntzarekin hirugarrenez egingo duten Mondra&Roll jaialdirako. "Txikitasunetik", baina urtetik urtera pauso bat harago emateko gogoz eta gazteak gonbidatzeko asmoz, Egurhotza jaialdia estreinatuko dute uztailaren 4an. "Iaz, Mondra&Roll jaialdiaren bigarren aldia, azpiegitura guztia muntatuta daukagunean beste zerbait gehiago egiteko aukera genuela konturatu ginen, eta Manu Chaoren kontzertua egin genuen. Bereziki gazteentzako zerbait berria eskaintzea izan dugu betidanik buruan, eta, modu batean esanda, gaur egungo gazteek egiten duen punka musika urbanoa dela esan daitekeenez, hala abiatuko dugu aurten egun bakarrean baina, akaso, etorkizunean luzeagoa izango den Egurhotza", azaldu du antolatzaile taldeko Iker Arronizek.

Proposamen berriak "harre-ona" izan du publikoaren eta musika industriaren aldetik. "Musika urbanoaren esparruan gero eta sortzaile gehiago dago Euskal Herrian; horren erakusle da Debagoieneko harrobia. 17:00etan zabalduko ditugu ateak, 17:30ean hasiko dira emanaldiak, eta gauerdia bitartean sei talde joango dira agertoki berean txandakatzen. Instagram plataforman dituzue 27,50 euro-

"AZPIEGITURAK BALIATUTA AUKERA BERRIAK ESKAINI GURA DITUGU"

IKER ARRONIZ, ANTOLATZAILA



Andaluziako Judeline artista izango da Monterron parkean uztailaren 4an. ANA ARDEN

tan sarrerak erosgai; eta egunean bertan leihatilan, 40 eurotan".

Euskal Herriko lau ordezkari

Egitarauan batutako sei proposamenen artean Debagoienekoak dira horietatik hiru. "Aramaioko Mutiko izango da taularen gainera igoko den lehenengoa. Trapa egiten du eta ari da musika eszena horretan tokia egiten. Eta bide arrakastatsu bereetik doaz elkarren oso gertukoak diren Arrasateko kideak eta Martin Errasti *Tata* ere. Horiek guztiek, bakoitzak bere ezaugarriekin, hitz zorrotzak kantatuko dituzte, euren gertuko lagun Denso ekoizle gazteak sortutako doinuekin lagunduta. Proposamen oso ausartak eta berritzaileak dira eskualde honetan sortutakoak, baina dagoeneko Euskal Herri mailan erreferente bihurtzen ari direnak".

Euskal Herriko musikarien zerranda J Martinak osatuko du. "Geratu barik gorantz doan taldea da. Orain dela bi hilabete inguru, *Negu gorriak* lana argitaratu zuten, eta hori aurkezten ari dira orain. Proiektzio handiko taldea dela esango nuke".

Judeline eta Ebano

Bogan dauden Espainiako Judeline eta Ebano artistek borbilduko dute egitaraua: "Judeline Caños de Mecako (Andaluzia) 21 urteko neska oso interesgarria da. Rosalia ezagunarekin konparatzen dute askok; flamenkoa eta musika urbanoa autotunearekin nahasten ditu. Valentzian jaiotako Ebano artista, berriz, hip-hop estiloan hasi zen, baina trapetik gertuago dago orain. Errespetu handiko musikaria da, eta aurrez aurkeztutako bertako artisten erreferentia. Bada, guztien artean Monterron parkean giro oso ona sortuko dela uste dugu, taularen gainean zein azpian".

Jaialdiko artistak

- 17:30 Mutiko.
- 18:30 Etxepe.
- 19:30 Ebano.
- 20:35 J Martina.
- 21:50 Judeline.
- 23:05 Tata&Denso.

Goienakideen txokoa

EKAINEKO IRABAZLEAK

KOBO NIA LIBURU-IRAKURGAILUA
Judith Ruiz de Munain Bedia (Aretxabaleta)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Carlos Lezeta Uribeetxebarria (Arrasate)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK
Jabier Lazkano Perez (Bergara)
Maite Erdabide Gardoki (Bergara)
Ander Goikoetxea Rodriguez (Bergara)

ITURRIETA SAGARDOTEGIRAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Aitor Arruti Tena (Arrasate)

BERGARAKO BATZOKIA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Maddi Osinaga Zubia (Bergara)

MAIALDE JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Mari Carmen Etxebarria-Arteun Arenaza (Aretxabaleta)

EHZ FESTIBALERAKO HIRU EGUNERAKO SARRERAK
Gorka Elortza Laspiur (Bergara)


SARIAK JASOTZEKO:

Arrikruzteko sarrerak. Goiena Klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikruzteko txarteldegian. Sarrerak hiru hilabeteko epemuga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Araotz auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Orduetgia: asteartetik igandera 10:00 - 17:00 (aurrez deitu hitzordua egiteko) **Harreman dendako otarrea.** **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Liburu-irakurgailua jasotzeko,** zatoz GOIENAREN egoitzara. Saria jasotzeko, **BAZKIDEAREN TXARTELA** erakutsi edota **BAZKIDE ZENBAKIA** aditzera eman beharko da. GOIENA Otolara Lizentziaduna 31. Arrasate. 943 25 05 05. Orduetgia: asteleheneetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00

Irabazi bi pertsonarendako otordua

HILARION JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: uztailak 2



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



'Goiena app'-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE *Jatetxea*

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 30€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN
Eskoriatza. 4 logelako pisua alokatzen da Eskoriatzako Aranburuzabala kalean. Bista ederrak ditu eta oso egoera onean dago. 618 76 34 40

104. ERRENTAN HARTU
Bergara. Igogailua duen bi edo hiru logelako etxe bila ari den familia gara. Lan kontratuarekin. Deitu 632 03 90 28 telefono zenbakira.

Bergara. Igogailua duen bi edo hiru logelako etxe bila ari den familia gara. Lanean ari gara. 645 72 92 87

3. LOKALAK

301. SALDU
Oñati. Estetikako negozioa saltzen dut erretiroagatik. Deitu mesedez hurengo telefono zenbakira: 943 78 01 46.

4. LANA

402. ESKAERAK
Antzuola-Bergara. 20 urteko neska naiz. Udan umeak zainduko nituzke. Deitu 609 32 73 39

Arrasate eta Bergara. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Etxetik kanpo bizi izaten lan egiteko prest nago. Deitu 641 97 29 77 edo 670 96 68 08 zenbakietara.

Arrasate eta Bergara. Soziosanitario titulua dut eta, orduka, pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Deitu 670 96 68 08 zenbakira.

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza. Kanpoko langile bezala edo orduka lan egiteko gertu dagoen emakumea. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. 624 69 88 81

Arrasate. Emakumea gertu, pertsona nagusiak etxean bertan zaintzeko. Garbiketa lanak egiteko ere prest, orduka. Deitu 631 79 87 75 telefono zenbakira.

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsua eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Deitu 695 73 87 95 zenbakira.

Arrasate. Umeak zaindu edo klase partikularrak emango nituzke uztailean. Lehen hezkuntza ikasten dagoen neska arrasatearra naiz. 688 86 15 00

Bergara eta Arrasate. Neska goizetan orduka garbiketa lanak egiteko prest. 642 37 01 92

Bergara. Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Erreferentziak ditut. 666 07 42 98

Bergara. Neska euskalduna, gazte eta arduratsua uztaile eta abuztua bitartean umeak zaintzeko gertu. 688 62 90 09

Bergara. Pertsona nagusiak paseatzera ateratzeko edota garbiketa lanak egiteko prest nago. Telefonoa: 642 37 01 92

Bergara. Udarako haurren zaintzaile izateko prest. 21 urte dituen neska arduratsua eta euskalduna. Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ikaslea eta lan esperientziaduna. Begirale titulua daukat, baita Habeko C1 ziurtagiria ere. Nirekin harremanetan jartzeko edota bidali Whatsapp bat: 688 62 62 76

Bergaran eta Elgetan. Neska euskalduna uztailean umeak zaintzeko gertu. 653 48 55 64 (June)

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Orduka lan egingo nuke. 643 50 56 62

Debagoiena. Emakumea orduka lan egiteko prest. Garbiketa lanetan, jatetxeetan, hoteletan, biitegietan edo sukaldari laguntzaile bezala lan egingo nuke. 643 25 01 17

Debagoiena. Emakumea orduka lan egiteko prest. Garbiketa lanetan,

jatetxeetan, hoteletan, biitegietan, harrera lanetan edo sukaldari laguntzaile bezala lan egingo nuke. Ikasketak ditut. 688 76 35 74

Debagoiena. Emakumea prest, haurrak edo nagusiak zaintzeko nahiz garbiketa lanetarako. Esperientziaduna. Deitu 602 44 48 98 telefono zenbakira.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo beste lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edota etxe zein hoteletan garbiketa lanak egingo nituzke. 623 41 18 95

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo beste lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edota etxeetako, hoteletako eta enpresetako garbiketa lanak egingo nituzke. Sukaldea ere arituko nintzateke. Deitu 612 44 06 32 telefono zenbakira.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo beste lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko gertu. 632 34 22 25

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edota gabiketa lanak egiteko gertu. 602 01 32 58

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko gertu dagoen emakume arduratsua naiz. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. 631 43 45 84

Debagoiena. Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta gomendio onak ditut zaintzan. Kobxa, soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Deitu telefono zenbaki honetara 662 43 08 54

Debagoiena. Gizonezkoa pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu.

Orduka lan egingo nuke. 647 55 43 86

Debagoiena. Goizetan orduka garbiketa edo zaintza lanak egingo nituzke. 651 96 78 69

Debagoiena. Neska arduratsua etxean bertan bizi izaten, orduka, astean zehar zein asteburuetan lan egiteko prest. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. 632 32 70 13

Debagoiena. Neska gaztea pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Orduka lan egingo nuke. 643 50 58 27

Debagoiena. Neska gaztea pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest. Aste zehar eta asteburuetan orduka lan egingo nuke. 632 63 77 38

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke pertsonen zaintzan edota garbiketan. Neska gazte eta atsegina naiz. 631 64 66 36

Debagoiena. Orduka pertsona nagusiak zainduko nituzke etxe zein baserrietan. Gidabaimena eta soziosanitario titulua. Esperientzia handia dut. 631 98 15 50

Debagoiena. Ospitale zein etxeetan nagusiak zaindu edota garbiketa

lan egingo nituzke. Astelehenerik ostiralera gauzez eta asteburuetan orduka lan egiteko gertu. Soziosanitario ikasketak eta gomendiozko gutuna ditut. 647 31 48 17

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka lan egingo nuke. Deitu 642 11 57 74 telefono zenbakira.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Aste zehar zein asteburuetan lan egiteko gertu. 5 urtetako esperientzia eta soziosanitario titulua. 699 01 66 16

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko gertu nago. Orduka lan egingo nuke astean zehar zein asteburuetan. Deitu 612 56 12 39 telefono zenbakira.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzte. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Deitu 644 78 30 45 telefono zenbakira.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen, garbiketa lanetan edo sukaldari laguntzaile bezala lan egingo nuke. Orduka

lan egiteko prest. Telefonoa: 613 11 92 98

Debagoiena. Udan klasiak emango nituzke. DBH 4 mailararteko klaseak emateko gertu dagoen 18 urteko neska naiz. Deitu 688 74 29 30 telefono zenbakira.

Haurrak zaintzeko prest. Udarako (uztaile edo/eta abuztua) ume-zaintzan lan bila nabil. Irakasle ikasketak eta haurrekin urte askotako esperientzia! Deitu eta galdetu lasai! 688 64 06 04

7. ANIMALIAK

703. EMAN
Txakurkumeak opari. Txakurkumeak oparitzen dira. Ile motza eta txikiak. Polit-politak. Telefonoa: 943 53 32 76

8. DENETARIK

806. GALDU
Urrezko kataia. Ostiral arratsaldean, 17:30-19:00 bitartean, Larragain eta Garagartza arteko bidean 24-4-1960 data daukan urrezko kataia eta domina galdu nituen. Oso berezia da niretzat. Eskertuko nuke norbaitek informazioa balu, nirekin harremanetan jartzea. 620 12 47 45

ZORION AGURRAK



ANTZUOLA
Ibai eta Maddi
Ekainaren 29an, 8 urte. Zorionak, bikote! Maite zaituztegu ilargiraino eta buelta! Muxu handi bat etxekoan partetik!



BERGARA
Irati Eraso Lete
Ekainaren 27an, 8 urte. Zorionak, maitxia! Asko disfrutau zure urtebetetze eguna. Ondo Ondo pasau. Asko maitxe zaitzugu



BERGARA
Idoia Bardeci Echarri
Ekainaren 24an, Urtebetetzea. Zorionak, Idoia! Ondo pasa zure eguna, asko maite zaitzugu!



ARRASATE
Maddi Ibarrondo Arizmendiarieta
Ekainaren 26an, 8 urte. Zorionak, bihotza! Jarraitxu zaren morukua izaten! Patxo haundi bat.



ARETXABAETA
Maddi Loiti Etxeberria
Ekainaren 20an, 7 urte. Zorionak, Maddi! 7 urte! Ondo ospatu zure eguna, familia ta lagun artien!



BERGARA
Markel Garitano Atxa
Ekainaren 27an, 12 urte. Zorionak, Markel, familia danan partetik! Ondo ondo pasau zure eguna! Patxo haundi bat danon partetik!

Korosti
Inmobiliaria

Bergara: San Pedro,
67m², 2 logela,
ganbara
etxebizitzatik
sarbidearekin.
120.000€



Bergara: Burdiñate,
65m² erabilgarri,
2 logela, igogailua,
trasteleku, bizitzera
sartzeko.
150.000€



Bergara: San Antonio,
69m² erabilgarri,
2 logela, terraza,
trasteleku eta garajea
igogailuarekin.
203.000€



Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio
gehiago:



IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguaztenezko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goienakideko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagok argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

EZKONTZA



Bihar ezkonduko dira

Ana Fernandez eta Xabi Luis oñatiarrak bihar ezkonduko dira. "Egun ederra pasa. Besarkada bana familiaren eta lagunen partetik; bereziki, Marenen eta Unairen partetik".

HILDAKOAK

Bito Alday Oruna. Aramaion, ekainaren 24an. 60 urte.

Isabel Silva Estevez. Aretxabaletan, ekainaren 24an. 91 urte.

Julia Irasuegui Cillaurren. Arrasaten, ekainaren 21ean. 76 urte.

Miguela Romero Garcia. Arrasaten, ekainaren 24an. 80 urte.

M^a Estibaliz Gomez Ruiz de Vergara.

Arrasaten, ekainaren 26an. 76 urte.

Felisa Gabilondo Iñarra. Bergaran, ekainaren 24an. 95 urte.

Bene Bergaretxe Elorza. Elgetan, ekainaren 21ean. 88 urte.

Javier Villar Oyarzabal. Oñatin, ekainaren 25ean. 79 urte.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 28 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

Zapatua, 29 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Domeka, 30 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Astelehena, 1 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15

Martitzena, 2 JUNCAI: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99

Eguaztena, 3 FERNANDEZ: Musakola 11 / 953 79 22 26

Eguena, 4 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 28 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Zapatua, 29 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Domeka, 30 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Astelehena, 1 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Martitzena, 2 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Eguaztena, 3 ESTELLA: Matxiategi kalea 5 / 943 76 19 63

Eguena, 4 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 28 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Zapatua, 29 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Domeka, 30 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Astelehena, 1 GARATE: Kale Barria 42 / 9432 78 05 58

Martitzena, 2 GARATE: Kale Barria 42 / 9432 78 05 58

Eguaztena, 3 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Eguena, 4 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SANCHEZ ALVAREZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

OIARBIDE: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

URTEURRENA

Isidro Vicente Calvo



2023ko ekainaren 28an hil zen.

Beti gure bihotzean

Urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 30ean, 12:30ean, Aretxabaletako Jasokundeko Ama parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Aretxabaletan, 2024ko ekainaren 28an.

URTEURRENA



Agurtzane Elorza Larrañaga



2023ko ekainaren 27an hil zen, 60 urte zituela.

Denbora pasa arren, gurekin jarraitzen duzu.

Etxekoak. Bergaran, 2024ko ekainaren 28an.

ESKER ONA

Bito Alday Oruna



2024ko ekainaren 24an hil zen, 60 urte zituela.

Eskerrik asko urte hauetan hor egon zaretenoi.

Aramaion, 2024ko ekainaren 28an.

OROIGARRIA

Antonio Urzelai Bikuña



2024ko ekainaren 19an hil zen, 87 urte zituela.

Gogoan izango ditugu beti elkarrekin bizi izandako une goxoak



Larrain Gain K.J.B. Oñatin, 2024ko ekainaren 28an.

ESKER ONA

Bene Bergaretxe Elorza



Jose Luis Arozena Ojanguerenen alarguna

2024ko ekainaren 21ean hil zen, 88 urte zituela.

Seme-alabak: Juanje eta Pili Dominguez, Alberto eta Amaia Azkarate, Jose Mari eta Santi Gonzalez, Sorkunde eta Mikel Larrea; bilobak: Aner, June, Liher, Izortz eta Ainize, Ihart, Goizaldi eta Josu, Jon eta Marga, Eneritz eta Eneko, Uxue eta Judit.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Esker berezia amaren zaintzailea izan zen Jacinta Diaz eta Aretxabaletako GSR Egoitzako langile guztiei, gure amari eta guri emandako maitasun eta laguntzagatik.

Elgetan, 2024ko ekainaren 28an.

ESKER ONA



Felisa Gabilondo Iñarra



Nicolas Arzelusen alarguna

2024ko ekainaren 24an hil zen, 95 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2024ko ekainaren 28an.

Oroilore
Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gudan izan dituzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Mario, Iban, Maribi eta Cristian

617 44 21 55

BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**EUSKAL JAIA ZUZENEAN**

Eskoriatzako sanpedroetako egun handiak ematen duena jarraitzeko aukera, Goiena telebistan eta *Goiena.eus*-en.

'Bereziak' Astelehena, 13:00

**25. TORREAUZOKO KROSA**

Inoizko parte-hartze handiena izango du aurtengo krosak; han jasotako irudiak eta adierazpenak emango dituzte.

'Harmailatik' Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**JOSU WALIÑORI ELKARRIZKETA**

PuntuEus fundazioko zuzendariari egingo diote elkarrizketa, PuntuEus domeinuaren 10. urteurrenaren harira.

'Hemen Debagoiena' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**'ZENBAT AUTO DITUGU?'**

Galdera horri erantzuteko datuak bilduko ditu Txomin Madina kazetariak, *Datuetatik tiraka* tartean.

'Datuetatik tiraka' Eguaztena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**ELGETAKO ETA ESKORIATZAKO JAIK**

Bi herrietako jai nagusiek emandakoaren laburpena egingo dute, eta herritarren adierazpenak jasoko dituzte.

'Jaiak' Eguaztena, 19:00, 21:00 eta 23:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 28

ESKORIATZA San Pedro bezpera
Egitarau osoa *Goiena.eus*-en.
Eskoriatzan.

ELGETA Umeen eta Erretiratuen Eguna
Egitarau osoa *Goiena.eus*-en.
Elgetan.

OÑATI Zubillagako jaiak
18:30ean, txupinazoa eta Pello basurdearen jaitsiera, eta ostean, txorimaloak; 19:30ean, pala txapelketako finala; 20:30ean, barbakoa; 22:30ean, Kontralde, Inguma eta Garratz taldeak; eta ostean, DJ Izura eta bingo-jokoa.
Zubillagan.

ARETXABALETA 'Kolektibo bat borroka bat' manifestazioa
Lohixak transmari-bollo taldeak eta Atxabalta Harro elkarteak deituta. Ostean, *Pintxadrag!* eta mokadutxo.
Herriko Plazan, 18:30ean.

OÑATI Herrixa Kantuan
Ikasturteko azkena izango da.
Kontzejupean, 18:30ean.

ARRASATE Elkarretaratzea
Morbor taldeak deituta, Nazioarteko Sexu Askapenerako Egunaren harira.
Herriko Plazan, 18:30ean.

BERGARA Juan Manuel Arruabarrenaren erakusketa
Pintura lanak ipiniko ditu ikusgai Soraluzeko artistak, gaurtik uztailaren 14ra arte.
Aroztegin, 18:00etan.

BERGARA Zinegoak
Film laburren proiektzioa. Debalde.
Seminarixoa, 20:00etan.

OÑATI 'Txakolinaren ospakuntza' emanaldia
Ganbara Faktoriaren eskutik, Klean egitarauaren baitan.
Upain txakolindegian, 22:00etan.

ARRASATE Arrasate Musikaleko Big Band
Herritar guztiendako.
Monterron parkean, 22:30ean.

ZAPATUA 29

ELGETA Herri Eguna
Egitarau osoa *Goiena.eus*-en.
Elgetan.

ESKORIATZA San Pedro Eguna
Egitarau osoa *Goiena.eus*-en.
Eskoriatzan.

OÑATI Zubillagako jaiak
09:00etan, mendi martxa; 12:00etan, meza; 17:00etan, mus txapelketa, haur jolasak, puzgarriak eta txokolate-jana; 18:30ean, Pello txorimalo berriaren aurkezpena; 20:00etan eta 22:00etan, disko-festa; eta ostean, DJ Kirrin eta DJ Kepix.
Zubillagan.

OÑATI Ikatza aterako dute txondorretik
Herritarrek ikusteko aukera izango dute.
San Martinen, 09:00etan.

OÑATI 'Kalibre' omenduko du Gurutze Gorriak
Gurutze Gorriaren zilarrezko domina emango die haren senideei, boluntario gisa urteetan egindako ekarpenarengatik.
Santa Ana antzokian, 11:00etan.

ANTZUOLA San Martzial jaiak
11:00etan, plater jaurtiketa; 16:30ean, herri mailako plater tiroketa; 17:00etan, umeen krosa; 18:00etan, txokolate-jana; eta 21:00etan, afaria, eta ostean, erromeria, Astiazaranekin eta Narbaizarekin.
Antzuolan.

BERGARA Bisita gidatua Bergaran
11:00etan eta 12:30etan. Erreserba egiten duen lehenak aukeratuko ditu bisita mota eta hizkuntza. Izena emateko: 943-76 90 03.
Laboratoriumen.

ESKORIATZA San Pedro jaiak Zarimutzen
Gesalibar eta Garagartzako koruarekin meza izango da lehenbizi auzoko ermitan, eta, ostean, luntxa trikitilariekin.
Zarimutz elizatean, 12:00etan.

OÑATI Espeleotxiki

6 urtetik gorako umeekin egiteko. Erreserba egiteko: 943-08 20 00.
Arrikutzen, 15:30ean.

BERGARA Sanmartzialak
Erraldoien kalejira, Elgoibarko eta Arrasateko dultzaineroek eta Bergarako Txistulari Bandak lagunduta.
San Martin plazan, 18:30ean.

BERGARA 'Adore te devote' kontzertua
Bergarako Orfeoaren kontzertu sinfoniko-korala. Sarrerak, hamar euro.
San Pedro parrokian, 19:00etan.

BERGARA 'Oztoporik ez!' aurkezpen jaiak
Borla, Jai/egun eta etxeko DJak.
Kartzela zaharrean, 19:00etan.

OÑATI Torreauzoko jaiak
Auzotarrendako luntxa egingo dute.
Torreauzon, 19:30ean.

DOMEKA 30

BERGARA Sanmartzialak
Egitarau osoa 20. orrian.
San Martzialen.

OÑATI Ikatza aterako dute txondorretik
Txondorrean egindako ikatza aterako dute barrutik. Herritarrek aukera izango dute ikusteko.
San Martinen, 09:00etan.

ELGETA Ferixa Eguna
Egitarau osoa *Goiena.eus*-en.
Elgetan.

OÑATI Torreauzoko jaiak
10:30ean, 25. Torreauzoko krosa; 13:00etan, luntxa, Oñatzeko dantzariak eta bertso eskolako kideak; eta 14:30ean, bazkaria.
Torreauzon.

ESKORIATZA San Pedro jaiak
Egitarau osoa *Goiena.eus*-en.
Eskoriatzan.

ANTZUOLA San Martzialgo jaiak
11:00etan, txistulariak; 11:30ean, San Martzialgo igoera; 12:00etan, meza, salda eta luntxa; 13:30ean,



BELE

Oinarinen saioa; 14:30ean, bazkaria, eta erronomia; 18:00etan, desafioa Lizarraga eta Kalebarrenen artean; eta, 19:30ean, zozketa eta *tortilla la madre*. **Antzuolan.**

OÑATI Zubillagako jaiak

11:00etan, meza; 11:45ean, luntxa auzoko erretiratuendako, eta ostean, dantzariak, omenaldia eta zozketa; 13:00etan, pilota txapelketako finalak; 14:00etan, bazkaria; 17:00etan, zinta lasterketa; 18:00etan, toka txapelketa; eta 20:30ean, Pello basurdeari agurra. **Zubillagan.**

OÑATI Orientazio jolasa familian

Arantzazuko ibilbide irisgarrian egingo dute pisten jolasa. Izena emateko: 943-78 28 94 edo arantzazu@gipuzkoanatura.eus. **Parketxean, 11:00etan.**

ASTELEHENA 1

ESKORIATZA San Pedro jaiak: Euskal Jaia

Egitarau osoa Goiena.eus-en. **Eskoriatzan.**

BERGARA 'Automatak: mekanismo magikoak' erakusketa

Automatek, fidelitasunez erreproduzitzen dute ilusionisten, mugimenduan dauden metalezko eskulturen mugimenduak. Gaurtik irailaren 15era arte ikusgai. **Seminarixoan, 12:00etan.**

MARTITZENA 2

OÑATI Mediterraneoko krisi humanitarioari buruzko hitzaldia

Aita Mari erreskate-ontziko kapitain Iñigo Mijangosek eta Itsas Salbamendu Humanitarioko kide Amaia Iguaranek egingo dute berba. Argazki erakusketa ere egingo da. **Ulmaren egoitzan, 17:30ean.**

BERGARA Bele taldea

Debalde. Eguraldi txarrarekin, Seminarixoan **Usondo parkean, 22:00etan.**

BERGARA Bele taldea

Lide Hernando musikariak gidatzen duen taldearen emanaldia. *Beruna urre* bigarren diskoa aurkeztuko dute. Debalde. Eguraldi txarra bada, Seminarixoan izango da kontzertua. **Uztailaren 2an, Usondo parkean, 22:00etan.**

EGUAZTENA 3

ESKORIATZA Surf ikastaroa

12-16 urte arteko gaztetxoendako, Deban. Egun-pasa joango dira. **Gaztelekuan, 11:00etan.**

ARETXABALETA Basotxoko pintura ikasleen lanak ikusgai

Idoia Elexpururen gidaritzan egin dute ikastaroa. Mimoz eta ilusioz landutako margolan koloretsuak erakutsiko dituzte, hilaren 3tik 30era arte. **Arkupan 11:00etan.**

ARETXABALETA 'Mute' zirku-ikuskitzuna

Orain Bi zirku-antzerki konpainiaren eskutik. Akrobaziek eta umoreak bat egingo duten ikuskizuna, familia guztiarendako. Debalde. **Herriko Plaza, 19:00etan.**

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baseritarren garaiko produktuak erosteko aukera. **Oxirondon, 19:00etan.**

OÑATI '34 leihio afganiarrak' kontzertua

Musika, poesia, istorioak, argazkiak eta bideoak bateratzen ditu emanaldiak, Erei Elkartearen eskutik, Klean egitarauaren baitan. **Lazarraga lorategian, 19:00etan.**

EGUENA 4

ARRASATE Sasoibide

Ikasturteko azken egingo dute: Zarautz-Askizu-Zarautz ibilaldia. Aurrez eman behar da izena. Itzulera, 18:30eko autobusean. **Zalduspen, 08:40an.**

ARAMAIO Gazte Eguna

16:30ean, *Musika eta politika* hitzaldia, eta ostean, graffiti tailerra; 18:30ean, urrezko gibelaren igoera, eta 20:00etan, txosnaren irekiera eta DJ Altzu. **Aramaion.**

EGUBAKOITZA 5

ESKORIATZA Gastañuixera irteera

12-16 urte arteko gaztetxoendako. Bizikletaz edo oinez joateko aukera. Aurrez eman behar da izena. **Gaztelekuan, 11:00etan.**

ARETXABALETA Aretxarte jaia

17:00etatik 19:00etara, haurrendako jolasak, herriko hainbat gunetan; 18:30ean, Danbayan taldearekin batukada; eta 20:00etan, Zerendepya taldearen kontzertua. **Herriko kaleetan.**

ARRASATE Mondra&Roll

18:20an, Larru Beltzak; 19:15ean, Arene 6; 20:10ean, Kaleko Urdangak; 21:15ean, Brigade Loco; 22:30ean, Madball; 23:45ean, Sham 69; eta 01:10ean, Roy Ellis. **Monterronen.**

ARAMAIO Sanmartinak

19:00etan, Anbotoko Mariren etorrera, txupina eta pregoia; 19:05ean, kalejira trikiti eskolakoekin eta buruhandiek; 20:00etan, pilota txapelketako finalak, txosnen irekiera eta Dirty Durum Brass Band taldearekin kalejira; eta 23:00etan, Ziortza eta Leirerekin erronomia; eta Bele eta Raimundo El Canastero taldeak. **Herriko kaleetan.**

ZAPATUA 6

ESKORIATZA Fullkenpo MMA borroka txapelketa

Txapelketetan esperientziarik ez dutenei zuzendutakoa. **Kiroldegian, 10:00etan.**

ESKORIATZA Ibilaldi osasuntsua

Arantxa Otaduyk gidatuta, herriko eraikin esanguratsuenak ezagutzeko aukera egongo da. **Ibarraundi museoan, 10:00etan.**

ARAMAIO Sanmartinak

10:00etan, hockey partiduak; 11:30ean, umeendako jolasak; 12:00etan, patata-tortilla lehiaketa; 12:30ean, Sutan txaranga; 16:30ean, hainbat txapelketa; 18:00etan, zumba saioa; 19:00etan, Green Gras jaialdia; 19:30ean, Estampas De Mexico mariatxia; eta 23:00etan, The Clayton, Sukena eta Hankaz Gora taldeak. **Aramaion.**

ARETXABALETA Aretxarte Jaia

12:00etan, Suthai batukadaren kalejira; 14:00etan, sagardo kupela; 14:30ean, paella bazkaria; 16:30ean, apar jaia; 17:00etan, bingo jokoa; eta 19:00etan, DJ Txurru. **Herriko kaleetan.**

ARRASATE Mondra&Roll

18:20an, Kontralde; 19:15ean, The Chisel; 20:15ean, Kaleko Urdangak; 21:20an, High Vis; 22:30ean, The Baboon Show; 00:00etan, Cock Sparrer; eta 01:35ean, Les Testarudes. **Monterronen.**

DOMEKA 7

ARRASATE 'Anporretako bira. Burdinaren bidea' ibilaldia

Debalde. Izena emateko: *Arrasate.eus* edo 943-25 20 00. **Herriko Plazan, 09:00etan.**

OÑATI Ulma Challenge-Oñati Saria

Kadete eta junior neskendako. Goizean erlojupekoa eta arratsaldean 63 kilometrokoa. **Foruen plazan, 11:00etan.**

ZINEMA

OÑATI

KULTURA ETXEA

Manolo cabezabolo

Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka eta astelehena: 19:30.

GASTEIZ

FLORIDA

Amigos imaginarios

Egubakoitza: 19:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 19:00.

Robotia (euskaraz)

Zapatua eta domeka: 12:00.

Del reves 2

Egubakoitza:
16:45, 17:30, 19:45, 21:15, 22:00.
Zapatua: 12:00, 16:45, 17:30, 19:45, 21:15, 22:00.
Domeka: 12:00, 16:45, 17:30, 20:00, 21:15.
Astelehena: 17:00, 19:30.
Martitzena: 17:00.

La patria perdida

Egubakoitzetik domekara:
17:00, 19:15.
Astelehena eta martitzena: 17:00.

Los indeseables

Egubakoitzetik domekara:
16:30, 19:00, 21:30.
Astelehena eta martitzena:
17:00, 19:30.

Vidas perfectas

Egubakoitza: 21:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 21:30.
Astelehena eta martitzena: 19:15.

Memory

Egubakoitzetik domekara:
17:00, 19:15, 21:30.
Astelehena eta martitzena: 16:30.

El valle del viento

Zapatua eta domeka: 12:00.

Horizon: an American saga cap 1

Egubakoitzetik domekara:
17:00, 20:45.
Astelehena eta martitzena:
16:30, 20:00.

In restless dreams: la música de Paul Simon

Astelehena eta martitzena: 19:00.

Shayda

Egubakoitzetik domekara:
16:30, 19:00, 21:30.
Astelehena eta martitzena:
17:00, 19:30.

Ninotchka


Martitzena: 19:30.

Pandilla al rescate (euskaraz)

Zapatua eta domeka: 12:00.

Gardfield: la película

Zapatua eta domeka: 12:00.



Garfield filma.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Maite zaituztet

Zutabe honetan idazteko inspirazioa momentu diferenteetan sortzen zait. Egoera horietako batzuk bereziak dira: adibidez, ideiak ager daitezke mendian aldapan gora noala edo lagunekin nagoela gaueko ordu txikietan. Nolanahi ere, gaiarekin aurrera egiteko erabakia hartzen dut, batean, menditik etxera bueltatu naizenean eta, bestean, egunak argitu duenean. Ondorioz, ideia batzuek aurrera jarraitzen dute eta beste batzuek ez; agian, beste baterako.

Zutabe honek pasatu du galbahea, justu bada ere. Zergatik zalantza? Ondoren datorrena egiteko nolabaiteko lotsa alde batera utzi behar izan dudalako. Goazen muinera. Artikuluaren tituluan diodana irakurle berezi birentzat da: nire alabentzat. Bai, bi hitzak zuentzat dira.

Zergatik orain mezu hori? Erantzuna beste galdera bat da: eta zergatik ez?

Irakurle bereziak direla jarri dut. Hala ere, uste dut ez dituztela artikuluak irakurtzen, publikatu aurretik azaltzen baitiet zeri buruzkoak diren. Oraingoan salbuespena egin dut eta ez diet ezer kontatu. Ea ostiral honetan ze ordutan enteratzen diren eta deitzen didaten esateko: "Aita! Mesedez! Hau lotsa!".

BUKATZEKO



Irati Mujika eta Paulo Elkoroberezibar, Euskarabentura ekimenean parte hartuko duten bergarar bi. GOIENA

Hilabetez Euskal Herrian zehar, oinez eta euskaraz

Datorren astelehenean abiatuko dira Euskarabentura ekimeneko kideak, zazpigarren urtez, Euskal Herria zeharkatzera, bi baldintzapean: oinez eta euskaraz. Guztira, 127 gaztek hartuko dute parte ekimenean, eta horietatik hiru bergararrak izango dira

Julen Murua Mesonero BERGARA
Euskal Herria oinez eta euskaraz zeharkatzeko nahia dutenek uztailearen lean ekingo diote ibilaldiari Euskarabentura ekimeneko kideekin batera. Euskal Herriko eta diasporako 16 eta 17 urte arteko 127 gaztek hartuko dute parte ekimenean, eta horien artean badira bailarako ordezkariak; zehazki, hiru: Ane

Alberdi, Irati Mujika eta Paulo Elkoroberezibar.

Proiektu bidezko hautagaitza
Euskarabenturako espedizioarekin ibilaldia egiteko izena emateaz gain, badago beste baldintza bat: proiektu bat aurkeztea. Hori bera egin zuten, beraz, bailarako ordezkariak, eta, aurkeztutakoaren ostean

antolakuntzako kideen oniritzia jasota, prest daude ibilaldiari ekiteko. Proiektu aukeren artean "euskara batua eta euskalkien gaia lantzearen aldeko apustua" egin zuela dio Elkoroberezibarrek, eta gaia lantzeko orduan "historia oinarri hartuta" garatu zuela dio. Mujikak, berriz, "emakumeen eta kirolaren gaia lantzen duen

ipuin bat" aurkeztu zuen, eta bertan "egoera zein den lantzea" erabaki zuela dio.

Euskarabenturan aurrenekoz
Mujikak aurretik parte hartu du udaleku ibiltari batean, baina aurreneko aldia izango da harentzat Euskarabentura ekimenean: "Duela bi urte, udaleku ibiltari batean izan nintzen eta asko gustatu zitzaidan. Beraz, hilabete osokoa egitea oso interesgarria iruditu zitzaidan, baita jende berria ezagutzeko ere". Elkoroberezibarrek ere Euskal Herria oinez zeharkatu eta ezagutzeko "oso ekimen polit eta interesgarria" iruditzen zaiola aitortu du, eta, gainera, lehenengo aldia izanda, "jende berria ezagutzeko" balio dezakeela dio.

Hilabetez ibiliko dira Euskal Herrian zehar hiru bergararrak, eta, hortaz, toki asko ezagutzeko aukera izango dute. Elkoroberezibarrek dio ez duela bereziki bisitatu nahi duen toki zehatzik, "toki guztiak bisitatzeko gogoia" duelako eta guztietatik pasako delako "gustura". Mujikak, berriz, badu herri bat begiz jota: "Euskarabenturaren ibilbidetik gehien erakartzen nauen herria Gernika da. Sekula ez naiz egon eta gogo handia dut hara iristeko".

Motxila prestatzen
Hilabete osoa tokirik toki oinez ibiliko dira hiru bergararrak, eta beharrezko guztia sartzeko tokia beharko dute, ziur. Euren hitzetan, "hainbat zapata pare" eraman beharko dituzte horrenbeste kilometro egiteko, eta dagoeneko hasi dira guztia motxila barruan sartzzen bidaiari ekin ahal izateko.

ELGETAKO ETA ESKORIATZAKO JAIK

GOIENA TELEBISTA

UZTAILAREN 3AN, EGUAZTENA, 19:00ETAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
SANPEDROAK ETA FERIXA NAGUSIKO JAIK



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

